

IÑAKI DEUNAREN

GOGO-IÑARKUNAK

(SAN IÑAZIO'REN EJERTZIUAK)

RASABE AITAK AZALDUKA



ZORNOTZA'N
jaungoiko-Zale'ren Irarkolan
1932

4000 -

(Biar dan baimenagaz)

JAUBIA DAU



Deun Iñaki Iñanresa'n gogo-iñarkunak idazten

M-62853
F-63645

AV
26600

IÑAKI DEUNAREN

GOGO-IÑARKUNAK

(SAN IÑAZIO'REN EJERTZIUAK)

BASABE AITAK AZALDUTA



ZORNOTZA'N
Jaungoiko-Zale'ren Irarkolan
1932

H 372
1500

MEMORIA DEL

TRABAJO

DE





†
IHS

Iñaki aba deuna'ren gogo iñarkun edo Aita S. Iñazioaren Ejerzijuak

Zer dirian, eta zelan egin biar dirian

¡Gogo iñarkun edo Ejerzijo Santuak egitear etoñi zarian kristiñau maitia! Ziniztuizu bene-benetan:

1.^o Jaungoikuak berak zu maite zaitualako, ta zeure arimia salbatiañen, beste asko euren erijetan itxita, zure pekatuak aintzakotzat artu barik, ekañi zaituzala Etxe Santu onetara.

2.ⁿ Gogo iñarkun edo Ejerzijo Santu onek egiten zagozan bitartian, gogoratuizu begira daukazula Jaungoikua; onik-onenian eskribidu edo idazten bere liburu andijan zure salbaziñua,

ondo egiten badozuz; edo zure kondenaziñua, txarto egin ezkeru.

3.^o Ondo egiten badozuz, baketuko zara Jaungoiko ta zeure arimiagaz; eta artuko dozu poz garbi, bañuko ta zoragari bat. Bañiz ezpadozu alegiñ andirik egiten, euren amayan arantza bat eukikozu bijotzian, eta eskeñak irauten ezpadeutzu betiko inpernuan.

Iñaki deunaren gogo iñarkun deun edo S. Iñazioren Ejerzijo Santu, entzutetsuak, mundu guztija Jaungoikuaren grazijaz eta benedeziñoz bete dabena, dira gogarte edo meditaziño ta beste ontasunerako erakutsi batzuk guztiz egoiki ipiñijak, norberen arimia salbau ta santutasun andi batera ekarteko, zuzendurik onetarako bakotxak bere arazo ta beste gauza guztijak.

Misiño Santuetan entzuten dirian gure salbaiziño egi andijak. Ejerzijuetan be gogoratuten dira. Baña Ejerzijuetan Misiñuetan baño geyago ta astiruago, ta batez-be bakotxak bere bañuan, bakartasunian, geyago erabilten dauzala; ta orexegaitik egi mesedegari onek sartzen dira Ejerzijuetan ain bijotzen bañuan, eta emon oi-dabez frutu guztiz iraunkoñak.

Ejerzijo Santuak ondo egiteko Iñaki deun edo Aita San Iñaziok agintzen dabena lez:

1.^o Gogotsu sartu, diabruak, zuk aterako


zeunkian frutua zusmauta, burura ekañiko deutzuzan gogoraziño gogaikañijai jaramon barik.

2.ⁿ Begiratu zuzentzaliari Jaungoikuak beragana eruateko bialdu deutzun Aingeru bateri legez; eta bere esanik txikijenik bere, al dozula, bete barik ez itxi.

3.ⁿ Eregutu sañitan batez-bere Jesusen Bitzari, Ama Birgiñari, S. Joseri, Aingeru Jago-liari ta Aita S. Inaziori lagundu deizuela benetan Jaungoikuagana biurtuten. Ba Jesusen izena beraz ezin esan balei bere laguntasun barik, ainbat gitxiago, biotza aldatutia baizen arazo andlja, jeditxi giñei geure indar argalakaz.

4.ⁿ Mesedez eskatuten jatsu ixilik ibilteko, zeure bañuan sartuta, ta gelia maite izan daizula, gixonakaz egiten dan berbiak, Jaungoikua-rena itoten dabelako.

5.ⁿ Guztiz egokija izan oi da Jaungoikua eñukituteko, nekaldiren bat norberen gorputz edo arimiari emotia, bai berbetako gogua ukatuta, bai begijak batuta erabiliñaz, nai jateko zein edatekuan geyen gura dozunetik zerbait urituta, ta beste mila eratara.





Autorkuntzako ikurton edo Konfesiñoko Sakramentua

Jesukristo gure Jaunak, ilen artetik biztu zan egunian bertan, agerturik apostoluak egua-zan apaltokijan, arnasia euren arpegira botata, esan eutsen: «Artuizue Espiritu Santua; zuek parkatuten deutzazuezanen pekatuak, parkatu-ak izango jakez; eta lotuten deutzazuezanenak, lotuak dira».

Berba onekaz emon eutsen, ba, Jesukristo gure Jaunak apostoluai, ta euretan ondorengo abadeai, yaupariai, bada eskubide onek beti irau-n biar eban munduan, pekatuak bere beti egongo zirialako) pekatuak parkatuteko esku-bide afigaíja, aingeruai eurai emon ez eutsena.

Eskubide andi ori ezagun da ezebela artu edozelan emoteko, nori zer eta zelan emoten deutsen dakijela baño. Baíz ofetarako jakin biar da penitentiaren baíuko baí, pekatuen da-murik ete daukan, pekatuko uíeko ańiskuan ete

daguan, eta beste onako autortu barik jakin ezin leizan gauza asko.

Aor, ba, zegaitik dan biar-biafekuak pekatuak autortutia, parkatuak izateko.

Astuna dala uste izaten dabe askok autor-kuntza edo konfesiñua: Entzun dayela, ba, ikusi ebanak esanda; zer eragiten eutsen Japonen diabruagaz artuemona euken Jengiz deritxen galduak, pekatuen parkamena jadisteko uste guzufezkugaz:

Batzen zirian Nara deritxon erijan 2.000 gixon inguru, bidaldi bat egiteko. Bidia zan guztiz gatxa, 75 leguakua, ari-arterik-ari arte, ija guztija aldazgora, saritan arastaka abererik ez piztjarik ikusten etzala. Denpora askuan ez eguan urik; bakarik artzen eben, bakotxak aldian eroien eskubete aroz ere goiz ta aratsalde. Naikua da esatia egun guztijan legua bat baño ezin egiñ ebela, ta ainbat geratuten ziriala gose, egañi ta nekiaz ilda.

Jengis-ak izkintzatu prediketari deutse bidezti edo peregrinuari deboziño (oneraspen) andi bat izateko Jaka euren jainko guzufezkuari; ta egun aretako barauak ondo gordeteko. Onetan uts egiten badabe, edo beste zelanbait atsekaberik emoten badeutse, artzen dabe Jengisak bideztiya, ta ipinten dabe zugatz arbola

baten lotuta, bertan ilda, edo jausita banatuta geratu arte. Bidian duazanak onakorenbat aurkitu afen, aufera igaro biar dira, naita izan aita nai semia arbolan daguana; ta kontuz atsekabe edo sentimentuaren apurik ez erakusteko, bestela toki ta era efukafi aretan ipinten dabez eurak bere.

Ainbeste lastasun eta nekegaz biderdi egiñda, atsedeen eragiten deutse mendigoï aretako zabalune baten; eta besuak auma ta belaunburuagaz aua jotzen dabela, eukiten dabez gau ta egun oso-osuan astermena edo esamiñia egiten. Egoera ezin euki dan ori nekatuta izten dabeneko, an dagoz Jengis-ak, zigor bat eskuetan dabela, len lez ipinteko.

Esan dogun zabalunia itxi, egin legua asko, ta elduten dira mendi-bizkar batera. An dago atx andi zofoztz bat. Iru kanako burdiña bat ipinten dabe atx oretan sartuta, ta burdiñien ganian jarita, beian troka atxartetsu ta tokirik itzalena dabezala, autortu biar dabez banan-banan, beste guztijen aurian, urte aretan egiñiko pekatu ta okerkeri guztijak. Bat izten badabe esan barik, diabruzko Jengis arek, edo obeto, eurentan sartuta dagozan diabruak, artu ta botaten dabez andik bera, mila zati beko atxetan egiten diriala.

Guzuñezkuak dirudije gauza onek; baña Jengis aretatik biurturiko batek esanda, gure Jesusen Lagundiko A. Luis Guzman, edeslari edo istorijagile zintzuak argitaratuten deuskuz.

Alan guzuñezko pekatuen parkamenen us- tiagaz bañe ta burla egiten eutsen diabruak erukañi onei.

¡Zer esango ete leukie gure Paskuetako bildots edo akeñok, beste ainbeste, euren peka- tuak benetan parkatuteko, eskatuko bageuns- kijue!

¿Astuna dala autorkuntza edo konfesiñua? Autortuaz bakañik gorputzeko gatxat kendu al baleiz, ¡ze gaixo gitxi aurkituko litzakezan basteretan!

Jesukriston aldietan eguan Jerusalem'en pi- siña edo oxin miraritsu bat. Etorten zan aingeru bat noizian-noizian, eragiten eban ura, ta lenen- go sartzen zana, eukan gatxa eukala, osatuta urteten zan. Ezekijen noiz etoñiko zan ainge- rua, lenengua bakañik osatuten zan; eta alan da guzti be jentedi andija egoten zan urte asko- tan aingeru oñeri itxaroten: ogetaamazortzi urtian aingeruen zain egon zan Jesukristo gure Jaunak osatu eban elbañitu bat. Oxin edo pisiña ori konfesiñoko sakramentuaren irudi il bat da. Emen be pisiñan lez, gaixo mueta guztijak, eta

sartuagaz batera osatuten dira. Baña an eze-
kijen noiz etoriko zan aingerua, denpora askuan
itxaroten egon biar izaten eben: emen noz-nai
daukazu autor-entzula edo konfectoria, ta bera
geyagotan egongo da zuri itxaroten, zu berari
baño. Oxiñian lenengo sartzen zana bakarik
osatuten zan: emen lenengua zein azkenengua,
bardin.

Eta au alan izanik; ikusirik gaurko egunian
bertan ainbeste jente duala baño-etxietara, di-
rua ugari eralgiten, osasunaren ziurtasunik euki
barik, ¿ezta izango negargañija aurkitutia autor-
tegi edo konfesonarijo inguruak utsik, batez
-be, gixonez?

Arimako osasuna gorputzekua baño biala-
gokua dalako, ipiñi dau Jaungoikuak arimen-
tzat, gorputzentzat ipiñi eztaben bañua; bere
odol eder, mundu guztijak baño geyago balijo
dabenagaz egiñikua. ¡Baña mundurik-ara gabiz
gorputzeko osasunaren bila, arimiarentzat Jesu-
kristok ipiñi daben iturri gozo, ezez, ainbeste
kostarikua alpeñik galtzen itxita! ¡Gixonak!
¡Ikaragañijak izan biarko dau gure juizijuak!

Izanik ba, konfesiñoko sakramentua, Jesu-
kristok bere odolagaz ipiñiriko bañua, ezta an-
dija sartuagaz beste barik, pekatu guztijetatik
garbitutia. Konfesiñuan gertatuten da Jaungoi-

kuak Isaias igarla deunaren bidez agindu ebana: *Sutena edo grania baño goñijago zure jantzija balego bere, eduña baizen garbi ipiñiko dot.* Bai; bego bat adiñera eldu zanetik eun urteraño okerkerija baño egin eztabena; diabru guztijen pekatuak bere lepuan daukazana: bañu onetan sartzen daneko, geratuko da bere arimia zuri, eder, zoragañi, Jaungoikuaren beraren begijetan.

Bai; baña bañu bakaña, bide bakaña pekatuak parkatuteko. Pekatu astun edo mortal bat egin dabenantzat, eztago besterik, edo konfesiñua edo kondenasinua.

Ezaguna da; baña, añañija dan aldetik, esan biar dot Pelayo eñukañijaren jazoeria. Egiñ eban pekatu ezain bat; bai laster damutu be: jaña, bañuan! Konfesau gura, ta konfesaten lotsa. Onako estutasunetan ebilela, otuten jako gorputz-neke edo penitentzija añañijak egitia, konfesau ez añen laungoikua eñukituko zalakuan. Bakartegi baten eguan konbentura dua ta an eñegu luze, barau ta beste penitentzija andijakaz artzen dau birtute andikuaren izena. Baña kontzientzijek diadar bere bañuan: «¡Pelayo! Alpeñik zure entzutia, konfesaten ezpazara, alpeñik zure penitentzija ta beste zeure buruari emoten deutzazuzan atsekabiak. Konfesau autortu zadi, autortu zadi».

Dana alpeñik; geruago ta santu izen andijago, geruago ta konfesateko lotsa geyago. Il zan azkenian konfesau baga.

Zabalduten da bere il-bañija; egiten deutse obite edo entierua: erlijioso guztijak egozan mirariren bat noiz ikusiko. Uringo goizian aurkituten dau sakristauak gorpua obi ganian, eta osterabeobiratuten dau. Beste goizian be bardin. Ikaraturik, emoten deutso danen bañi konbentuko nagosijari. Elduten da au beste erlijiosuakaz korpua eguan tokira, ta itanduten deutso: «¡Pelayo! Bizitzan ain esanekua izan zarian ezkerro, izan zadi il da gero be: ¿zer gura dozu, zer esan gura dau obitik urten eta kanpuan gelditutiak? ¿Ondra andijagoko lekuren bat emon biar ete deutzugu?» Eta gorpuak diadar andi bategaz: «¡A ene galdua, diño! ¿Ondra andijagua niri? Eztau leku santurik biar nire korpu madarikatu onek. Egin neban pekatu bat; eneban konfesau; alpeñekuak nire atsekabe ta gogortasun guztijak. Artu ta bota nagizue, abere zatar bat lez, leza batera: auxe da Jaungoikuaren borondatia».


¡Bai! Alpeñik apurtuko dau bijotza damuen damuz; alpeñik urtuko da negañez: konfesau aldala, konfesaten ezpada, dana izango da utsa.

¿Zetarako bestela emongo eutsen Jesusek aiñ menetik apostoluai, ta euretan ondorengo

abadiari, al izate ariñari ori, bakotxa eurakana eldu barik pekatuetatik azkatua izan al baleitekean?

Orexegaitik deituten deutse konfesiñuari Eleixako Guraso Santuak ontzija galduta ija-
ituan dabilenari jaurtiten jakan ola, gaurko egu-
nian esango geunkiena *salbabidia*. Galdu-gor-
dian dabilenak ¿zelan maitetu ta oratuten deutso
botaten jakan salbabidiari? Alan maitetu, ta ain-
gogotik oratu biar deutso pekatarijak konfesi-
ñuari.

Ia, ba, pekatari maitia, sartu zadi zeure bai-
uan, eta esayozu zeure arimiari: ¡Ene arimia!
salbau gura bozu, nai-ta-nai-ez konfesau biar
dozu, ta konfesau ondo. Ondo konfesateko biar-
biañekua da esamiñia ta beste lau gauzak ¿ze-
lan egin dozu bakotxa? Ta ez baketu arik-eta
ziur egon arte, onako gauzetan euki leiyan ziur-
tasunagaz, egin dozula eskatuten jatsuna, edo
konfessore batek esan arte naikua dala, eta ez
eragiteko geyago.





Azterketa edo esamiñia

Autorkuntza edo confesiñua epai-leku edo tribunal bat dan lez, aurkitu biar dira erabagilia edo jueza, zalatzalia edo fiskala, ziñaldari edo testiguak eta eruduna: erabagilia konfeso-ria da, zalatzaile, testigu ta erudun konfesaten dana bera: beronek, ba, orduan, berenez agertu biar ditu bere eruak, beste zalatzaile ta testigu barik. Ortik dator astertu edo esamiña bira.

¿Zer da azterketa edo esamiñia? Bakotxak bere bañua astertutia, azkenengo ondo egiñiko konfesiñotik ona egindako pekatu astun guztijak burura ekarteko alegiñagaz, da azterketa edo esamiña». Esan dot «azkenengo ondo egiñiko konfesiñotik ona», ba auñeragoko konfesiño edo konfesiñuak txarrik izan badira, atzeratu egin biar dira kontuak, ondo egiñiko konfesiñora eldu arte. Konfesiño txarrik, pekatuak

parkatu birañian, beste pekatu astun, ikaragañi bat, sakrilejijua, esañi baño eztau egiten. Lotuten dozu txalekua, baña lenengo botoia bigařen beste aldeko zuluan sartzen bozu, botoi guztijak geratuko dira txarto. Zuzenduteko, danak azkatu ta bakotxa bere lekuan ipiñi biar.

Bardin konfesiño txarañak egin dauzanak be, danak askatu, desegin biar ditu, ta danen konfesiño bañi on bat egin.

Esan dot, bigařenez, pekatu astun edo mortalak; ba arin edo benialak, ezkagoz biartuak konfesetako; nai ta izan ona konfesetia, astija dagonian.

¿Baña zelan nik burura ekañi ainbeste denporan egin dodazan pekatu astun guztiak? Pentsamentu onegaz lotuten ditu diabruak arimarik asko, ta konfesiñotik atzeratuten ditu. Eztot nik esan, azkenengo ondo egiñiko konfesiñotik onako pekatu astun guztijak burura ekañi biar diriala, ofek burura ekarteko *alegiña* egin biar dala baño; ba alegiñ ori egiten badozu, naita astuta itxi mila pekatu astun, danak parkatuko jatzuz, ziatz-ziatz esanagaz baizen ondo.

Danori etxatzue kenduko onegaz kezka guztija, ta egingo dau batek baño geyagok bere birañian: ¿Zelan jakin noiz dan naikua alegi-

ña? Ezta érez esateko gauzia; ezta danentzat be eztago neuñi bardiñik.

Ilían-ilían konfesauten danak, denpora gitxiago emon lei, urtian bein konfesaten danak baño; buru onak ariñago gogora ekañiko ditu, buru gogoñen aldian.

Langintza edo ofizijuak be, badagoz batzuk bestiak baño arazo ta obligaziño gueyago daukezanak. Bestiak bardin diriala, otsein edo serbitzari batek obligaziño laburaguak daukoz, ugazabak baño; eskonge edo solteruak eskondurikoak baño. Bañiz aberats batek geyago, nekezaliak baño; dendarijak, atxurlarijen aldian. Olagixon nai éfementari baten alkondaria ezta ain garbi-éraza, zelan dan beste askorena; Ikasgin baten eskuak igortzi geyago biar dabe, arotz batenak baño.

Ondiok lañi izango dira asko ondo esamiñaten ete-dirian. Arazo onetan uts egin lei lañegiz eta gitxiiegiz. Lañegiz uts egin darue arima eskrupuloso, kezkatu ta bildurtijegijak, euren buruak austen dabezanak, denpora luziak emonagaz ez bakañik alpeñik, kaltegarirako baño. Onelanguakaitik esaten eben protestantiak konfesiñua zala arimen urkamendija. Oñek beti irudituten dabe Jesukristo gure Jauna, Jerusalem'go Eleixan bein egon zan lez: zigoña eskuetan daukala.

¿Ze uste ete-dabe gixajo onek dala gure Jaungoiko ona? Eztabe ez atera uste ori Espiritu Santuak escribiduriko liburuetatik, ez Eleixako Guraso Santuenetatik be, eta bai euren buru txiki ta bijotz zimeletik. Egizu kontu daukazala aita batek seme bi: bata beti dago arduraz naibagerik ez emoteko aitari, ta iñoiz atsekabetuten badau, parka eskatuten deutso; bestia bañiz, beti dago asmauten nun da noiz ta zelan naibagetuko ete-daben, bitartian gauza on andirik egin barik. Esaidazu: ¿Zein geyago maite izango dau aitak? ¿Lenengo seme bijotz andi ederduna, ala beste estu, ezer-eza? Bada zeuek, txarrik izanik, (esango deutzuet Jesukristok beste baten esan ebana), zeuen semientzat onak bazare, ¿zelan uste zeinkie gure Jaungoiko ona, bere seme maitientzat, pekatuak goñotau ta arimak garbituteko ainbeste alegiñ egiten dabentzat, ain gogoña izango dala? Sartu daigun geure bañuan egi bildurgari, baña batera pozgari au: Gure Jaungoiko andija gogoña da, siñiztu giñayan baño gogoñagua, pekatua maite dabentzat; baña ona, neuñi barik ona ta samuña pekatuakaz aspertu, ta arimatik kanpora jaurtiteko alegiñak egiten dabezanentzat.

Beste batzuk bagoz besteko bidetik duazanak, ardurabako ta nagijak arimako gauzetan.

Il asko ta urte askotako konfesiñuak duaz esamiña barik edo guztiz ariñagaz.

¿Ze uste ete-dabe onek dala gure arimia ta Jaungoikuaren grazija? Bada gauza balijotsuren bat galduten dauenak, ateraten ditu kontuak nundik-nora ibili dan, noz galdu eikian, eta dua leku arek kontuz ikustera, begi asariakaz, damuz eta atsekabez galdu ebalako. Aurkituten badau, ¡zelako poza! Bada ¿zer dauke zer ikusi luereko bitxi, tresna ta gauzarik edereñak, Jaungoikuaren grazijaren aldian?

Lagun bat gexorik dago, ta gura dau jua Bilbora osagile bategana. Ta diño bere baruan: egingo deustaz itaune edo pregunta batzuk; aurretijaz pentsaten ezpadot zer esan, onik onenian esango deustat ezetz, baietz esan biar neukianian; edo beñikbein ezteustat neure gaixua ondo agertuko. Ta asten da pentsauten jua baño lenago, noiz batu eban gaixua, zelan, zer sentidu daben onako edo arako denporaldietan. Bada konfesaten duana, gaixua da; osagilia, konfectoria; ta eztau bere bira ondo egingo, penitentiak agertuten ezpadeutso bere barua.

Batek diño: ¡Aita! eztakit zer egin neure buruagaz; gaur egin dodaz ordu bi astertuten neure barua, atzo ordu bete, araiñegun ordu bi: eragiñago, ta matasia nastauago.—Ez, ba, egon

geyago esamiñetan.—Baña, diño, denpora geyaguan esamiñaten banaz, izan lei beste pekatoren bat aurkitutia.—Ezta ardura; ta oba izango da ez esamiñautia, esamiñautia baño. Ta oraiñ geyago diñautsut: Zuk diñozu beste ordulauren baten esamiñauko baziñake, izan leikela beste pekatoren bat aurkitutia. Ta nik erantzuten deutzut: Ezta ziur bazengoz be, ordulauren órétan esamiñauten egonda, pekatu mortalen bat aurkituko zeunkela, eztaukazu obligaziñorik ez ordulauren órétan, ez miñitu baten be esamiñauteko: eztau ipiñi Jaungoikuak konfesiñua buruak austeko.

Konfesiñua izango da txara esamiñiaren aldetik, edo, egin aldala, bat bere egiten eztanian; edo apuren bat eta ganora barik egiten danian. Eta ori pekatu astunak dagozala; ba pekatu mortalik eztaukala ziur badago, eztago esamiñauteko obligaziñorik, naita izan ona orduan be esamiñautia. Gauza astuna da ondo konfesetia, ta salbaziñua juakuna; óregaik artu biar da órétarako, beste gauza astunetan artzen dan arduria; baña geyegi lañitu barik.

Gaixuak sañitan, eta konfesau barik denpora askuan egon dirianak, ezin gogoratu izango dabez pekatu guztijak; baña esan dogun alegiñā egin ezkerro, konfesauak zein astu diranak

bardin parkatuten dira. Onek ezteizala asi kontuak ateraten noraño joten etedaben onako edo arako saritan jausten dirian argaltasunian, egiñiko pekatuak; oba egingo dabe pentsautia zeinbat bidar, gitxi gora-bera, jausi dirian batez-beste egunian, astian edo ilian. Bardin oitura txarren bat daukenak bere.

Esamiñia egiteko: 1.^o Eskatu argija Jaungoikuari, Jesus'en Bijotza, Ama Birjiñia, San Jose ta Aingeru Jagolia bitarteko ipiñita; bagure kontzientzija leza sakon eta iluna da, ta argi barik eztoguz ikusiko onduan dagozan piztijak. 2.ⁿ Artu esamiñia daukan libururen bat; eta itaune edo pregunta bakotxian, pentsau jausi ete-zarian. Baña pekatu astuna bada, eskatuten deutzut bene-benetan, etzaitezala auñera igaro, itandu barik zeure buruari zeinbat bidar jausi zarian. Irakurten eztakijanak pentsau dayala agindu bakotxian zer egin daben pentsamentuz, berbaz, egitadaz; zer egin daben bakañik; zer bestien auñian; zer astegunian, zer jai egunian; zelan bete dauzan bere eginbiañak. Badauko nok irakuñi, onena izango da entzutia irakurten esamiñia.

Berba baten; ez nagijak izan, baña ezta bururik ausi be; ez gogaitik egin, ez asti geyegi igaro, eztalako esamiñia gauzarik biañena.



Damua

Kristiñau askori begitanduten jake, azterketa edo esamiñia egiñ, eta aurkituten dabezan pekatu guztijak ziatz autortu edo konfesau ezkerro, ondo konfesauten diriala. Ta alan ikusten dira esamiñauten ardura andijagaz, damuari ainbeste begiratu barik. ¡A itsutasun ainbeste arima inpernuratuten dauzana!

Zirautsan Santa Teresak sermolari bati: ¡Aita! diadar egiñ bei autorkuntza edo konfesiño txar-en kontra; ba Jaungoikuak erakutsi deust, eztaukala diabruak arimak arapetako sare oberik, autorkuntza txar-ak baño.

Damurik ezaz konfesiño txar-ak egitia, lotsaz pekatuak konfesau barik iztia baño txar-ago da: lotsaz pekatuak ixilduten dauzanak, badaki nun dagon gatxa, badaki txarto dagola, eztauko bakerik, arantza bat dauko bijotzian; eta entzuten dauzania Jaungoikuak onako lotso-akaz

egin daruazan kastigu andijak, lafi, ikaraz eta bildurez konfesauten ditu bere pekatu guztijak; baita konfessore ez-ezagun bat bialduten dautsanian be. Bañiz, damu bako konfesiñuak egin daruazanak, érez edo gatx, siñistu erazoten deutso bere buruari ondo duala; ta alan dago pekatuko lo-zoruan, diadañakaz be iratzartuten eztala, inpernuko txingañak sentidu arte.

¿Zer da, ba, damua? Da, Trentoko Eleix-Batzar Santuak diñuan lez, egin dirian pekatuen atsekabe ta goñotua, auñerantzian pekatuak ez egiteko asmuagaz.

Bitarikua izan lei: *Kontriziñua* edo maite-tasunezkua, ta *atriziñua* edo bildurezkua. Entzuten dau batek arako mendijan dabilela basurde bat: artzen dau eskopetia, ikusten dau sasi ostian baltzune bat, jaurtiten deutso tirua, ta erazten dau luñera. Badua basurdia il dabelakuan; uñerago ta gixonen antz andijago. ¡Gixona! ¿Zer egiñ dot nik? ¡Gixona il dot! ¡Artuko nabe preso! ¡Agur ni, agur nire emaste ta umiak! Uñeratuten da, zein gixon ete-dan ikusteko; ta aurkituten dau ¡bere aita! Asten da alarauka, bere aitari deiez, bijotz guztija erdibituta, bere aita maitia il dauelako, pre-sondegirik, ez beste etorkizunik gomutau barrik.

Baita pekatarijak be dakusazanian bere pekatuak ekañi deutzazan kaltiak; zerurako esku-bidia galduta, inpernura juan bialik, lengo irarabazi ta merezimentu guztijak ondatuta, Jaungoikua asafe, arimia ezain eta diabruaren menpian, artuten dau egijazko damua, ta erabagiten dau geyago pekatuik ez egitia: auxe da *atriziñua* edo bildur-damua.

Bañiz beste batek ikusten dau bere pekatuakaz josi egiñ dauela kurutze baten bere aita baño aitago dan Jesukristo gure Jauna, biguntasun eta erukitasun uts-utsa; ta gorotatuten dau pekatua, bere aita ain maitagarija kurutzian il dauelako; auxe da *kontriziñua* edo maitetasunezko damua.

Baña sañitan egon oi dira damu bituok batera.

Damu bi oneititik maitasunezkua da asko be obia; ba, batetik maitasunezko suak onduen garbituten dau arimia; ta bestetik, absoluziñoa artu baño be lenago, kenduten ditu pekatuak, bildur-damuak egiten eztauena.

Damu bata nai bestia izan biar da *arimakua* ta ez, nai-ta-naiez, gorputzekua. Kristiñau on eta Jaungoikoaren bildurti asko dagoz euren buruak alpeñik naibagetuten dabezanak. Begitanduten jake onei, bijozketa edo sentimentu samuñik

emoten ezpadabe, damurik eztaukela, edo beintzat ez tala aiñ sendua.

Jakin beye onek gauza bat dala borondatia, ta beste bat bijotza: borondatia ariman dago, eztau sentiduten ezer, bere egikizuna da gura edo ez gura izatia. Ta auxe da naikua damuarentzat: egiñiko pekatua txartzat emotia, eze giñ gura-izatia; naita bijotza, gorputzeko aragi zati au, otz-otz, ezer sentidubarik egon.

Egija da damua andija danian, arimatik gorputzera jatzi oi dala, ta esan dodazan ezaugañ jakaz kanporatuten dala, dakuskun lez S. Pedro, Madalenia ta beste askogan; baña sañitan ezta damu andijaguaren ezaugañija, bijotz samuñaguena ta gorputz bigunaguena baño; ta alan dakusgu andrazkuetan gixonezkuetan baño geyago.

Dana dala, goñoto andi bategaz begiratu egiozu pekatuari Jaungoikua iraindu dozulako, ta zeure buruari ekañi deutzazan kaltiakaitik: eta eukiko dozu damu egijazko ta sendo bat. Suge bat uñeratuten jatzunian ¿zelako begijakaz begiratuten deutzazu? Oñegaitiño be eztozu negañik egiten. Auxe berau egijozu, ba, pekatuari, ta ez bildurtu beste samurtasun eta bijozketarik euki ez añen.

Damua izan biar da ganera *sobrenaturala*:

da esatia, gure indar eta alegiñ guztijen ganetikua, Espiritu Santuaren grazijaz sortua; ta, len esan dogunez, Jaunaren maitasunagaitik, edo zerua galdu dalako; edo inpernua nai Jaungoikuak mundu onetan bialdu leiguzan kaltiakaitik arturikua. Jokolari askok, galduta gero, mada-rikatuten dabez kartak; ordijak, ardaua, jausita banatuten dirianian; ta gixaseme askok euren pekatua, lotsagañizko gaixuak gorputza eřeten deutesenian. Baña ořen guztijen damua, pekatuak berez ekarten dauzan gatxakaitik arturikua da, ez Jaungoikuagaitik; eta ezta naikua.

Beste zerzelatasun batzuk be euki biar ditu damuak; baña eztago zetan aitatu be; ba, izan ezketiño, esan dogun lez, *izatiaren-ganetikua*, beste biar dan guztija be, eukiko dau.

Oiñ gurako dozue jakiñ nok daukan, ala ez, benetako damua.

Arimako gauzak eztira aiñ jakiñ-eřazak. Alan da guzti be, esango deutzuet:

I. *Eztauke damurik*: 1.^o Benetako gořotuan dagozanak. 2.ⁿ Lapuřetan, gauza andijan edo txikijan, baña astunera elduteko bestian, egiten dabenak. 3.ⁿ Lotsaz pekatu astunak konfesau barik izten dabezanak. 4.ⁿ Ekandu txara pekatu astuna egiteko euki, ta kentzeko alegiñik egiten eztabenak. 5.ⁿ Uřeko okasiño

edo ariskuan *borondatez* dagozanak: nai dagola ariskua etxian, nai auzuan, nai kanpuan; izan deila aragizkua, ardauskua zein osterantzekua. *Urekua* da arizkua bat-edo-batentzat, arizku oretan sartu ta beti, edo ija beti, pekatuan jausten danian. Berbarako: batuten da bat urlijagaz, edo dua toki atara edo bestera; ta persona oregaz batu, edo toki oretara juaten dan guztijan, edo ija beti, egiten dau pekatu. Ba, orentzat persona oregaz batzia, edo olako tokira juatia, ureko okasiñua da, ta bere borondatez ezin lei sartu. Borondatiaren kontra sartu biar bada, konfesoriak esango deutso zer egin.

Ureko ariskuan, ba, borondatez sartzen danak, eztauko egijazko damurik; eta konfesoriak esan aren: «Neuk absolbiduten zaitut», Jaungoikuak ganeratuten deutso: «Neuk lotuten zaitut; eta kate orek ezpadozuz ariñ zatituten, esku ta oñ eurokaz lotuta, betiko inpernura botako zaitut».

II. *Bildur* izatekua da damurik ete dauken, ala ez: 1.º Arako nabo-lorarik nabo-lorara baño konfesauten eztirianak, oretarako estu-estuka ta itoka, esamiña andi barik, damurik artzen denpora asko emon barik, ariñen konfesauten dabenagaz miñitu batzuetan konfesau,

ta uréngo urteraño bakia, lengo pekatu ta oitura txarai bardiñ jaraituten deutsela. 2.ⁿ Bildur izatekua da damurik ete-dauken, ariskuetatik urteteko, urékuak izan ezañen, alegiñ an-dirik egiten eztabenak. Onakuak dira batez be neska-mutiñ dantza-zaliak, edo nasaitasunez berba labanak esaten sañi alkañegaz dabilzanak. Onek, konfesau ta gero, lengo pekatuetan. len baizen sañi, jausi oi dira; ba, sustraitik bedar txara kentzen ezpada, bañiro urteten dau; ta jausi dan tokira ostera be juan gura dauenak, jaustia gura ete-dauen bildur naz.

III. Azkenez *ziur* egon beitez (onako gauzetan euki leikian ziurtasunaz, osua izan ez añen, kezka barik biziteko bestekuagaz), baukela damua, ariskuetatik alde egiten dabenak, Sakramentuak sañi ta ondo gerturik artuten dabezanak, gorputzari nekaldiren batzuk emoten deutsezenak, éregu-zaliak, Jaungoikuaren berbia sañi ta gogoz entzuten dabenak, bere bildur santuan bizi dirianak, pekatu ariñai be, goñotoz begiratuten deutsenak; eta batez-be gixon eta andra urtietan auñera juanik, pekatu astunik egiten eztabenak, konfesiño general on bategaz euren arimak garbituta gero.

Onei guztijoi adierazo biar deutset, ez ibilteko bilduñez damurik ete-dauken; ba onek beti

dauke damua, naita eurak uste izan ez; euren eleizkizun, eřegu ta beste gauza on askotan egiñ daruezalako pekatuen damuen egikizun asko.

Ořegaitiño be guztiz izango da mesedegařija konfesiño auřetik zerbait denpora, damua artzen, emotia: gertatuten dalako Sakramentuakaz, pitxar bategaz ituřira duanari gertatuten jakona, zenbat eta neuři andijaguagaz eldu, grazijazko ur geyago atera.

Ořetarako da ona S. Carlos Bořomeok aginduten dauen lez, esamiña ostian, iru ikustaldi edo bisita egitia: bata zerura, ta begiratu bertako atiak itxita zeure pekatuakaitik; bigařena inpernura, ta ikusi atiak zabalik; irugařena Kalbarijora, an agertuko jatzu Jaungoiko andija, zeure Aita, aitarik onena ta maitegařijena, zeure pekatuakaitik ilda; ta juañ Jesus Kuruțekuaren oñetatik, bere ordeaz dagon konfessoriaren oñetara, odol balijotsu aretan zeure arimia garbitutera.



Erabagija edo onduteko asmua

Erabagija da Jaungoikua auferantzian gauza andijan ez irainduteko asmua.

Izan biar da, damua lez: 1.^o *Guztirakua* au da, zabaldu biar da pekatu mortal edo ilgari guztijetara. 2.ⁿ *Sendua*. Ezta asko, onduteko gurarija eukitia; pekaturik ez geyago egiteko borondate sendo ta benetakua biar da. 3.ⁿ *Eragilia*, artuten diriala pekatuan bañiro ez jausteko egiñ-bide ta neurijak.

Izan ezketiño, ba, erabagija *guztirakua*, *sendua* ta *eragilia*, ona izango da konfesiñua; naita ziur egon konfesau ta laster lengo pekatuetan jausiko dala; ba ezta eskatuten erabagijan geyago pekatuan ez jaustia pekatuetan, jausi ez gura izatia baño. Lengo pekatuetan jaustia izango da erabagirik ezen ezaugarija, konfesau ta laster, arizkua datofeneko, bape alegiñik egin barik, jausten bada.

Izan biar da, ba, erabagija, esan dan lez.

1.º *guztirakua*: Pekaturako bide guztijak gorotau nebazan diño David igarla santuak. *Omnem viam iniquitatis odio habui*. Ezta naikua pekatu bat edo bestetik aldendutia, guztijak itxi ta gorotau biar dira. Egon bedi arianua alde guztijetatik azkatuta; soka bategaz erpe bat lotuta badauko, naikua da egarik ez egiteko.

Kromasio eritxon gaixo batek eskatu eutsan San Sebastianeri, arien, osatu egijala.—«Osatuko zaitut, erantzun eutsan santuak, baña aurretiaz apurtu ta jaurti biar dozuz zeure jainko guzuzeko guztijak». Bayetz aginduta, juan zan etxera ta apurtu ebazan bat-ezeze beste guztijak. Biurtu santuagana; artu beronen onetsi edo bendiziñua; baña osatu ez. Santuak: «Zer-edo-zer dago emen. ¿Apurtu dozuz jainko guzuzeko guztijak?»—Eta gaixuak, dana lotsatuta; «Bat itxi neban, guztiz neban maite-ta».

Etxeratu, apurtu azkenengua be, artu onetsi edo bendiziñua, ta bat-batera geratu zan osatuta.

Geure arimara bere eztau konfessoriaren absoluziñuak osasunik ekañiko, len maite genduzan jainko guzuzeko guztijak, pekatu astun guztijak, gorotau ta apurtuten ezpadoguz.

2.º Izan biar da erabagija *sendua*, au da, erabagi biar da aurretizian pekaturik, astunik

beñik-bein, ez egitia. Ezta naikua onduteko gurari apur bat eukitia; borondate zintzo ta benetakua biar da geyago pekatu astunik ez egiteko.

Borondatia oretara sendatuteko guztiz da ona *arima indartsuentzat*, gogoratutia zelako eragozpen eta trabak daukiezan, begiratu danai arpegiz-arpegi, eskatu Jaungoikuari laguntasuna, ta erabagi bein, biritan eta geyagotan, eragozpen orek eta norberaren makaltasuna gora-bera, eztabiela beste bein olako pekaturik egingo.

Oregaitiño pekaturen bat gogora ekartiak, nai ta beste bein ez egiteko izan, biztuko baleu bat-edo-baten argaltasuna, oba egingo dau, olako pekaturik gogoratu barik, erabagitia ez-tabela geyago pekaturik egingo. Baita pekatu barik egoteko daukazan gaiztasun eta eragozpenak bururatutiak makalduko baleutso borondatia, oba izango da, olako gaiztasunakaz ikaraturik geratu ezteitian, erabagitia bere baruan geyago pekaturik ez egitia. Ba erabagijaren sendotasunak eskatuten dabena da bakar-bakarrik geyago pekaturik ez egiteko benetako gogua eukitia. Ta baldin olako gaiztasun eta eragozpenak etorten bayakoz, uste izan biar dau Jaungoikuak emongo deutsala orduan la-

guntasun eta indar geyago, ta garaitzale urten-go dala. (1)

Askok izten dabez pekatuak, baña ez betiko, aldi bateko baño. Dagoz txorijak artagarauak jaten bidiaren erdijan; jaurtiten deutse batek arija, ta igesten dabe inguruetako zugatz edo arboletara: itxi dabe artua, baña ez betiko; an dagoz begira; laster, arija bota dabena alden-dutakuan, etoñiko dira ostera be, len itxi eben artua jatera.

Bai, pekatari askok bere erabagiten dabe konfesiñuan pekatuari iztia, baña ez betiko, negurako, astegunerako, garizumarako, ta alan. Eztabe kendu pekatuaganako maitasuna; oñegaitik duaz, txorijak lez, lengo pekatuen atsegiñetara. Oñegaitik aginduten deusku Espiritu Santuak; «Isuri zeure bijotza ura lez, Jaungoikuaren aurian». Isuriten dan ura ezin batu lei; baña bai lepotik botaten dan sakua, ostera be artu. Ba askok, batez be pasko-akeñak, sakua botaten dabela-ta pozik ibilten dirianak, egijaz egiten dabena da, jaurti sakua, baña ostera be leporatuteko, ez ura lez geyago ez artzeko.

Ori olan izanik, egingo dau batek baño ge-

(1) Cfr. Ball. not. ad núm. 159, tom. 2.º; Lehmkuhl, tom. 2.º, núm. 295.

yagok, nik eztaruat erabagirik, ziur nago konfesau ta laster jausiko nazala-ta.

—Baña ¿«gura dozu pekaturik egin»?

—«Ori ez, jauna».—Ba naikua dozu. Bata da adin edo entendimentua, bestia borondatia; ta nai-ta ziur egon, konfesauta laster pekatu astunen bat egingo dozula, *konfesaten zarianian* ezpadozu gura auferantzian pekatu andirik egin, ondo zagoz. Jokolarijak eztaki garaitzale urtengo dan, ala ez; saritan baki galduko dabela; alan da guzti be gogo bizi-bizija dauko ondo urteteko. Baita zeuk be, naita ziur egon diabruak goituko zaituzala, *konfesatorduan* ezpadozu gura garaitzale bera urtetia, zeu baño, naikua da. Egin biar dozuna da eskatu Jaungoikuari sendatu deyala zure gogo ori, ta etzai-zala itxi bere eskutik.

3.ⁿ Erabagija izan biar da *eragilia*, artuten diriala pekatuan ez jausteko eginbide ta neurijak. Danak esan darue, salbau gura dabela; baña gitxik benetan gura dabe. Baita pekaturik ez egitia be erabagiten dabe askok, baña ez benetan. Benetako gogo ta erabagija egikere-tan agertu biar da. ¿Ikusten dozu zelako alegi-ñak egiten dabezan merkatarijak asko ta ondo saltzeko? Benetan aberastu gura dabelako. Ge-yago pekatuan ez jausteko, zerbait ezpadozu

egiten, eztozu gura pekatuak ez egitia. Ta alan diño Santo Tomas jakitunak: «Benetako gogua ezta, egiteko ordua etoñita, zer-edo-zer egiten eztanian». Ezta ori benetan gura izatia, gauzia ona dala ikusi, ta beretzako zelan alango gogua eukitia baño.

Orduan ¿lengo pekatuetan jausten dirianak, eztabe eukiko benetako erabagirik? — Zelandan. Egin daigun kontu dagola bat birauak esateko oitura daukana; edo gauza txarén bat ikusten dabeneko, pentsamentu ta gurari dongietan gogoz egoten dana. ¿Ardurarik ipiñi dau beste bein olako pekatuetan ez jausteko? ¿Eskatu deutso Jaungoikuari laguntasuna, edo liburu onen bat irakurri, edo diru apur bat luzatu ez eukijai, edo nekaldiren bat gorputzari emon, edo begiak batu, arizkua eldutakuan, edo beste zerbait egin dau?

Ba olakorik egin badau, jausi añen osterabe lengo argaltasunian, uste izatekua da, borrodatia makaldu jakolako, edo diabruak gogorago ezetsi deusalako, jausi dala, ta ez benetako erabagirik euki eztauelako.

Baña alde autortegi edo konfesonarijotik, eta bape ardura barik lengo pekatuetan, len baizen érez eta sañi jausten bada, bildur naz konfesiñuen orde, deunauste edo sakrilejiuak

egin ete dauzan. Ba, ¿zelan izan lei benetako erabagija, bape jausi ezteitian ardurarik artzen ezpada? ¿Erbija artzeko benetako gogua daukala esango dogu, artu eskopetia, zuzendu erbijagana, baña tirorik egiten eztabenak? Beste ainbestekuak dira askoren konfesiñuetako onduteko erabagijak.

Onako oituradunak esan darue, ezin dabezala bete pekaturik ez egiteko artzen dabezan erabagijak. Entzun jazoera bat.

Ostendeko uriya artzeko inguraturik eukien soldauetatik bat, guztiz birautija zan. Gogor egiten eutsen, baña alpeñik; erantzuten eban ezin egon zeinkiala biraurik bota barik. Eldu zan abade jaun bategana gosez, erdi biloixik, eskian. Eta abadiak ogetabateko bat erakutsita, dirautso: «Auxe emongo deutzut, baña ordu betian ibiliko zara neugaz biraurik jaurti barik». Abadia auñetik, noizian-noizian uñari zir-zart eragiten eutsala, ta soldaua atzetik, juan zirian soldauarterik-soldau-arte. Lagunak, ezaguturik zer zan, zirikatuten eben soldaua birauren bat erasoteko, bera ixilik; burla ta bañe, ta esan gauzarik mingarijenak; baña soldauak begiratu diruari, ainka miñari, ta mututa jauñera! Ordu bete onetara emonda, sazerdotiak: «¿Ezin zariala egon biraurik jaurti barik? Eta ¿uñe apur

onegaitik egin dozuna, zeruko ondasunakaitik eztozu egingo?» ¡Amaika kendu ezindakotzat dagozan oitura txar kenduko litzakez, bijar edo etzi itxi biar dogun uré apuía beste maitetuko bageunkez, zeruko ondasun eder betiko iraungo dabena!

Erabagija artzen dogunian esan biar geunskijo geure buruari, San Remijiok Clodobeo prantzijako efégiari, batiatu auñian, pekatuen damua ta auñerantzeko erabagija artzeko esan eutsana: «Éreizuz oin arte gurtu edo adorau dozuzan jainko guzurézkuak, eta gurtuizuz oin arte ére dozuzan santuak». Alan geuk be, konfesiño ostian, ére ta goñotau biar geunkez, ordurarte maite izan doguzan bijozketa ta gurari txararak; eta gurtu ta maitetu, ordurarte goñotau, edo beintzat biar beste maite izan eztozuzan efégu, nekaldi, ta beste gauza onak, urteten gariala beste gixon batzuk eginda, konfesiñuan artzen dogun erabagijagaz.

Mutil gazte batek, diño San Anbrosiok, guttiz nasai ta nabarmena, bidaldi baten, Jaungoikuak bijotzian ikututa, egin eban konfesiño eder bat. Etxeratuta, ikusi eban lengo pekatuko laguna; baña begiratu be egin barik, igaro zan auñera. Lagunak, ezagutu ezebalakuan, auñerata dirautso: «Neu naz a». Ta gaztiak: «Ba-

ña ni ez a». ¡Auxe bai aldatu zala benetan!

¡Baña zenbat eta zenbat geratuko dira bijotza benetan aldatu barik! ¡Bai! Esan biar da, ta saritan, arima askoren salbaziñua dua-ta: asko ta asko izan biar dira konfesiño txarrik egiten dabezanak, benetako erabagirik ezaz. ¡Bai! konfesiño on bat egiteko biar dirian bost gauzetatik, erabagija da gatxena ta sarijen uts emoten dabena. Gatxa da astermen edo esamiñia; baña zerbaitako alegiña egin ezkerro, naikua da, batez be konfessoriaren laguntasunagaz; eta, naita pekatu asko gogoratu ez, danak parkatuten dira, ziatz ziatz esan balira lez.

Damua be bialrekua da; oregaitiño be maite-tasunezkua askorentzat ezeza izan ez aren, aor dago bildurezkua, inpernura ez juatiafen artzen dana, sinismen apur bat daukanarentzat ain gatxa eztana. Baita pekatuak autortutiak be estututen ditu batzuk: alan da guzti be goitu lei bildur ori, mundu guztijaren auñian lotsatu ez gaitez an juizijoko egunian. Bañiz *erabagija* ja ze gatxa dan Eleixatik urun dabizan askorentzat! Juaten dira, bai, asko konfesetara, konfesau be bai ziatz pekatu guztijak, baita bularari ots batzuk emon be. Baña ¿benetan erabagi auñerantzian pekaturik ez egitia? Eztakik egiten ete daben, batez be gazte mundutarrik, eta ara-


ko pasko-bildots edo akeñak. Konfessoriaren esanak entzun, absoluziñua artu, ¡baña amaika bidar geratuko dira oso osorik ariman lengo pekatu guztijak, deun-auste edo sakrilejijo andi bat ganian dabela! Ta gero esaten dabe pozik eñukañijak: ¡Itxi dogu ikatz sakua! ¡Ez! Bañuan daukazu, ta len baño be andijago ta astunago eginda.

¡Amaikarentzat izaten da absoluziñua arimak lotuago egiteko kattia! ¡Amaika añituko dira Jaungoikuaren Tribunalian, ikusirik zelan urteten dirian euren kontzientziñako sokondotik, parkatutzat eukiezan pekatuak!

Eztago besterik pekatu astun bat egin da benarentzat: edo benetan erabagi pekaturik ez egitia, edo iruntzi betiko kondenaziñua: troska onetan laprast eginda, duaz inpernuko su-lezara kondenaten dirian fededun geyenak.

Ikusi biar dau, ba, konfesatera duanak, zelako pekatuak egin dauzan, eta zelako okasiñoz edo bidez; eta artu asmorik senduenak, beste bein olako pekatuetan ez jausteko, ta alako añizkuetatik alde egiteko; eskatuten deusala Jaungoikuari indaña oñetarako, arturik egin-biderik onenak; eta eskiñi bein, biritan eta geyagotan, eztala olako argaltasunera beste bein obenduko. Oñetara gogortuten da gogo

makala; ta ori egin ezagaitik geratuten dira
ainbeste erabagirik artu barik, edo beintzat
jausten dira ain ezez lengo pekatuetan.



Autorkuntza edo konfesiñua

Agozko autorkuntza da: «Lengo zuzen egiñiko konfesiñotik onako pekatu astun guztijak, argiro, konfessoriari autortutia».

Pekatu bat mortala, astuna edo ilgaríja izateko: 1.º Izan biar da egiten dan gauzia bera *astuna*, norberen eritxijan. Astuna izan añen, norberak arintzat badauko, ezta izango pekatu astuna. (1)

2.º Euki biar da *ezaguera osua* egiten dana txarà ta astuna dala. Bape ezaguerarik ezpadago, eztago pekaturik be, ez andirik, ez txikirik. Alan umiak, adiñera eldu baño lenago, gauza berez txaràk dirianak egin añen, eztabe

(1) Baña eritxi ori guzuzekua dala agertu ezkeru, nai konfessoriaren esanez, nai beste edozelan, zuzendu egin biar da; bestela guzuzeko eritxi ori jaraitutia, izango da pekatu. Alan aurkituten dira seigarreneko gogoraziño ta gurari zataràk pekatu eztiriala uste dabena, egitadazko pekaturik euki ezik. Ba konfessoriak esan ezkeru pekatu astuna dala gogorazino ta gurari oñei leku emotia, ezer egin ezaren, sinistu egin biar dau.

pekaturik egiten; ezta oso zoruak be. Ezaguera apur bat baño ezpadago, izango da pekatua ariña, naita gauzia astuna izan: oregaitik ondo iratzartu barik, erdi-lotan, eukiten dirian gogoraziño txarrik kendu ez arien, ezta egongo pekatu andirik.

3.ⁿ Euki biar da *borondate osua*. Bape borondaterik ezpadago, ezta egongo pekaturik; amesetan oretxegaitik ezta egiten pekaturik. Borondate apur bat bakarik badauko, izango da pekatu ariña. Alan ames txar bat euki dabena, iratzartuta gero ames ori gogoratu, ta, batetik gura pentsau ta bestetik ez, badabil, egingo dau pekatu ariña. Bardin egunez etortzen dirian tentaziño ta gogoraziño txarretan be. Gogoraziño txara izango da pekatu mortala, sentidu atsegiña, sentiduten dabela jakin, eta alan da guzti be, atsegin artziari jaraituten ba-deutso borondate osuagaz.

Baña adierazo biar dot, esan dodan ezaguera ori euki biar dala pekatu egin baño lenago; ba, gauza txara eginda gero datoñen ezagueriak, eztau pekaturik eragiten. Askok umetan, edo gero ezaguera baga, egin okerkerija bat, eta andi egindakuan, ezagutu, edo sermoren baten eutzun, nai libururen baten irakuri, lengo okerkerija ori pekatu aundija dala, ta ibiltzen

dira euren buruak atsekabetuten; eta ez gitxik, lotsaz konfesau baga itxi, ta egiten dabez deun-auste edo sakrilejijo andijak.

Onegaz jakingo dozue zer konfesau ta zer ez: gaiztakeriya andija izan bada, ta euki badozu ezaguera ta borondate osua, pekatua astuna izan da, ta autortu biar dozu; bestela eztaukazu obligaziñorik.

Ezta tentaziñuak be, eztago esateko obligaziñorik, leku osorik emon etxakenian.

Asko dagoz tentaziño bat, batezbe aragizko pekatu andi bat, edo fede nai Jaungoikuaren kontrako pentsamentuaren bat burura etorten yakenian, pekatu mortal ezin-esaniko bat egin dabela uste dabenak.

Entzun jazoera bat. Bizi zan emakume, bes-tetik kristiñau ona zana, guztiz lañi ta estu pekatu ezañen bat egin ebalako ustiaz, etoñi yakalako pentsamentu donga bat Jaungoikuaren kontra; ta egon zan urte osuetan agertu barik, sañi konfesau ta komulgaten zala jañagiñekua izan zan bere lotsia!

Eldu zan zoriyonez misiño bat bizi zan eñira. Ta juan misiolarijagana, ta esan eutsan: «¡Ai, neure arimako aita! ¡Galdua naz! Pekatu ezain eta lotsagañi bat daukat, urte askotan esan eztodana, ezta beroñeri agertuteko be eztaukat

bijotzik». «¿Zein pekatu izan lei, erantzun eutsan konfessoriak, niri esateko bijotzik eztaukazuna?» Asi yakon itanduten agindu guztiyeta-
tik, eta ezaban ezer aurkituten. Eldu seigafen-
era, ta an be garbi eguan. Asaratuta dirautso
konfessoriak, destañaz: «Izan dozu iñoz Jaun-
goikuaren kontrako pentsamentu ezañik?» Eta
emakumiak: «¡Ai, Jauna! ¡igari deust!»

¿Ori da guztiya? ¿Egon ziñian pozik gogo-
raziño ezain ofetan?»—«Ez Jauna; lañitu ta ika-
ratu nintzan.»—¡Zorua! dirautso konfessoriak,
etzenduan pekaturik, ez andirik ez txikirik,
egin, eta ezeukazun konfesakizunik, baña itxi
zenduan konfesau baga pekatu andija zalako
ustiagaz; egin dozuz, ba, sakrilegijo asko, txar-
to konfesau ta komulgauaz. ¡Alan arapau eban
dirabruak, bestela arapau ezin ebana!

¿Eta konfesau biar ete dira iñok emoniko
tentaziñuak?—Tokirik emon ezpadeutsezu ez.

Kristiñau onai be ezteutse askok izten ziri-
katu barik berbaz, kiñuz edo eskuka txararakaz.
Olakuetan igesten badozu, arpegi astuna eraku-
tsita, edo gogor berba eginda, eztago pekatu-
rik, ez konfesakizunik; baña bai arpegi pozez-
ko ta argijagaz auferapidia emoten badozu,
nai-ta esan epel-epel, bañe eginda: «¡zagoz
geldi!» Sugia aurian ikusiko bazeunke, ¿esan-

go zeunskijo: sugia, zagoz geldi? ¡Ze gitxi!
Laster igesko zeunke.

Ba, beste ainbeste dirautso egiteko Espiritu
Santuak pekatu ta pekaturako bidiagaz bere.

Agozko konfesiño au izan biar da:

1.º *Osua* esaten diriala lengo zuzen egin-
dako konfesiñotik onako goguan dagozan pe-
katu astun guztijak. Azturikuak esandakuak
lez parkatuten dira; baña gogoratutakuan, ur-
engo konfesiñuan esan biar. Ézin esan diria-
nian, berbarako aldi txar baten, naikua da be-
gijakaz, eskuakaz edo beste era baten konfe-
sateko gogua erakustia; osatutakuan, danak
ziatz autortu bíaña dago.

Pekatu guzti onek norberak agertutia da
onena. Asko geratuten jakez konfesoriarri aúez-
aúez, mututa; ta igafi deyuela zer egin daben.
Eta konfesia eztan lez igarlia, asi biar da bata
ta bestia itanduten, *tantiuan*, buruauste andi-
jagaz, eta ez gitxitan begijak argituteko ariz-
kuan. Asaíatu gero egiten dira batzuk, itandu-
ten badautse ezer ostu ete-daben, edo beste
onako gauza astunik. ¡Eurak esan baño ezeu-
ken!

Misiñuetan, eta asti gitxi dagonian, ondo
da konfesoriak itandutia; ostian, norberak esa-
miñan zer aurkitu daben, axe esatia da onena.

Egoten dira batzuk, konfesorioak itanduten ezpadeutse, pekatuak ixilik, pozik, isten dabezanak.

Artzain batek, emastiak lagunduta, ostu eban bildots bat. Konfesorioak, ze ofizijo eukan esan eutsanian, dirautso:

¿Ostu dozu ardirik?—Ez, jauna; artzaiñak.

Urten eleizatik, eta aurkiturik bere emaztia, ¡Maripa! dirautso, ¡Ezkaituna gaur makaletik librau!—¿Zer ba?—¿Ezteust itandu, ba, konfesorioak ardirik ostu ete-dodan? ¡Lenguan ostu genduan bildotsagaitik itandu baleust!

Konfesiñoko osotasun onetan uts egin darue beste askok be. Badira aragizko pekatu osuak egin, eta eskuka loyak euki dabezala, esaten dabena; eskuka loyak euki, ta pentzamentu txarretan egon diriala; pentzamentu txarretan gogoz atsegin artu, eta tentaziñua euki dabela; ta ez gitxik gogoraziño ta gurari txarai leku oso-osua emoten egon aren, ezer autortuten eztabe, egitadazko pekatuetan jausi ezpadira.

Beste antzeko pistija txarrek be badira, konfesorioa atzipetu edo engañateko maixu andijak. Begitandu-edo egin biar izaten jake gixaxuoi, konfesorioa atzipetuta, bere ostian dagon Jaungoikua be bardin atzipetuten dabela; edo konfesorioari iruzur eginda artzen daben absoluzi-

ñuak, Jaungoikuaren aurian be baliyo deutsela.

Badauko batek etxian lagun dongia, ta autortuten da onetara: «Aragizko pekatuan jausi naz onenbeste bidar»; eta konfesoría zolija ezpada, edo itandutia aztuten bayako arizku urékuan etedaguan, dua aurera, ta beste ainbeste pekatutan jausteko, osterabe gertu dago.

Beste batzuk, konfesoríak itandu aŕen, guzuzeraz nastauten dabe guztija, aŕizkua kendu ez dagijuen. Onetariko askok esan darue: Ateraten badot, edo urteten banaz, urtia osotu baño len, txarto esango dabe. ¡Agur nire entzutia ta ixen ona; agur nire ogija! ¿Nun aurkitu alako serbitzarija; nun alako ugazaba?

¿Au zer da? Pekatuan baŕurago sartutia, katiak astunago egitia, pekatua edertu-guria. Baña ¿zer erantzuten deutse Jesu-Kristo gure Jaunak? «Baldin eskuak edo oñak emoten badeutzu arimia galduteko bidia, ebagizuz. Begijak bazaruaz pekatua, ataraizu. Oba dozu esku, oñ ta begi bakaŕagaz zerura juan, esku, oñ eta begi bijakaz inpernura jausi baño». Au da esatia: esku, oñ eta begija bera baño bíaŕagokotzat badaukazu pekatua zaruazan persona, etxe, leku ta beste edozein gauza, uratu, zatitu ta bota deizula. Inpernura bazuaz, ¿nok atarako zaitu? ¿Ugazaba edo neska tentatzale,

goñotorik andijenaz, zeure salbaziñoko arerijorik andijenari lez, begiratu biar zeunskijon ofek?

¡Ze ondra, ta ondra oste! Jentiak lenago ezer ezpadaki, ezin ezer esan lei; badaki, ofetxegaitik kendu biar da zer esana. Gosia emoten dan etxetik, edo ugazabandria eñijeta-zalia bada, laster urteten da; bai neskatila otseiña be bialdu, ostuteko ekandua badauko. Ezin urtenak dira arimia galduteko arizkua dagonian. Edo itxi konfesiñua, ta juan inpernura; edo bialdu arizkua, edo urten etxe atatik.

Baña ¿zer egin darue alan bizi dirianak? Edo ukatu pekatua, edo bilatu konfessore ez jakin, nai manga-zabal bat, bijen galdumendirako, diño San Antoniño Florenziakuak.

Jauna, esaten dabe olakuak, juango naz len txarto bizi nitzan etxera, edo batuko naz arizkuzko persona aregaz; baña kontuz ibiliko naz; ezteutsat ezegaitik be ikuturik txikijenik egiten itxiko.

Ez siñistu, lenengo sañeran egongo zara bildur apur bategaz; nundik edo andik agertuko da lengo pekatuko laguna. Onik-onenian an dago lengo asmo dongetan; eta ezpadago be, begijak eztozuez beti luñian josirik eukiko, elduko yatsu ikusguria, ikustiak biztuko dau

maitetasun txarā, asiko dira iri-bañiak, begijak ezartiak, berba egitia, bakarik geratutia; ta oñā osterā katigu, lenago baño kate gogoragukaz.

Apur bat ikusi daben konfesoriarī, ezteutsazu besterik siñistu erazoko.

Aurkituten dira beste batzuk, ostu daben baño gitxiago autortuten dabenak; edo ipinten dabezanak atxakijak osturikua ez biurtuteko. Beste askok biurtuteko gogorik baga, biurtuko dabela esan; edo len bein, biritan edo geyagotan biurtuteko berbia emon, eta ezabela bete esan ez; edo esan agindu deusela semiai testamentuan biurtu dayuela

Onek eta euron antzeko asko, al izanik, bakotxari beria emon gura eztautsenak, entzun beye zer diñuan San Agustin jakitun andijak: «*Non remittitur peccatum, nisi restituatur ablatum*».

Ezta parkatuten pekatua,
Biurtuten ezpada ostua.

Azkenez badagoz pekatu bikotxak, baita irukotxak eta laukotxak be, eskonduakaz edo senidiakaz egiten dirianak. Onelanguak agertu biar dabe zerzelatasun au, baldin pekatu egin ebenian, pekatu bañija zala jakin ba-eben; bestela ez.

2.ⁿ Izan biar da konfesiñua *tolesbagia*, pekatuak edertu baga, ta batezbe pekatuen jazoera ta istoriak albo batera itxita. Batzuk confesateko egun erdi biar da.—¿Biraunik edo maldeziñorik iñori ezañi deutzazu?—Bai, jauna; baña entzun bei, eztaki zelakuak diran nire umiak.—Itxiyezu umiai bakian; birauak ezañi deutsezuz; ¿ezta?—Birauak, bai; baña ezin dot neure umiakaz. Atzo goizian... Oretara konfessau biar bageunkez guztijak, Erromako konfessore danak elitzakez naikua izango, eñi txiki batekuak konfesateko. ¡Esaizu zure pekatua soil-soil, biar eztiranak itxita!

3.ⁿ Izan biar da konfesiñua *apala* edo *umiñia*: Eruduna da pekatarija, ta eztirudi ondo eruduna jnez edo auzi-epaliaren auzian arokerriaz agertutia. Apaltasun au erakutsi biar da zein egokeran, aldala belauniko, ta gixonak burutsik, zein esakeran, lotsaz autortuten diriala pekatuak. Ez, askok egiten dabena, kalian lagunakaz berbetan balego lez, itzal edo erespetuaren apur barik. ¡Ze gitxi gogoratuten yaken onei, sakramentua baizen gauza astuna ta santua egiten dagozala!

4.ⁿ Izan biar da *zuñia* edo prudentia, esaten diriala pekatuak al dirian berbarik garbijenakaz; eta bestien pekatua agertu barik, norbe-

renak autortuteko nai - ta - naiezkua ezpada.

Andra bateri konfessoriak «¿Ondo konponduten zara senařagaz?» — «¡Ai, jauna! Nire senařa baño txařagorik eztago». — Baña ¿nor da oin konfesaten dana, zeu ala zeure senařa?

Eldu zan bein gixon bat konfesatera, ta konfessoriari: ¡Jauna! Emon beit absoluziñua. — Esaizuz, ba, pekatuak. — Ara; ontxe konfesau dan emakumia da neure emaztia; berak esango eutsazan nire pekatuak neuk baizen ondo ta ziatz.

5.ⁿ *Zintzua*, konfessoriaren itaunai zuzen erantzunaz, gauza astunian guzuřik esan barik, batez be pekatuan saři ostera be jausi ete garian, edo uřeko ařizkuan ete gagozan itanduten deuskunian; egin eztozun pekaturik esan barik, eta egindakuak geituten eztiriala, beintzat gauza andijan.





Zelan autortu biar dan


Autorkuntza egin biar da alik labur eta tolesbagiena. Ezta esan biar: autortuten dodaz egin izango dodazan pekatu guztijak; amar aginduen contra egin dodazanak; au edo bestia egin badot. Ori ezta ezer esatia.

Ezta lenengo aginduetan be, eztago zetan esan: autortuten dot eztodala maite izan Jaungoikua biar dan lez (ezta aingeruak eurak be, eztabe olan maitetuten).

Ara emen autortuteko era-eraza: ta ondo buruan artu: (1) Esan «Ni pekatarija». Ezta bialrekua, baña ondo da esatia. Bañiz jente asko dagonian, esaizu zure aulrekua absoluziñua artzen dagon bitartian, konfectoria gero zuri itxa-

(1) Oretara konfesaten balekije, geyenak minutu baten edo bijan bakotxa ezez konfesau leikez, buru-auste asko konfessoriai kenduta; ta ikusirik zein ezez eta arin konfesaten dirian, zaletuko litzakez sarijagotan konfesatera, arimen irabazirik andijenagaz. ¡Ze ondasun andijak datoza gauza ain txikitik!

roten euki barik. Konfessoriagana eldutakuan, esaizu: ¡Agur Marija, guztiz garbija! ¡Neure arimako aita! Onenbeste denpora (urte-bete, ila-bete...) da autortu nintzala; lenengo aginduan egin dot au edo bestia (pekatu astuna bada, esan zenbat bidar, gitxi gora-bera, egunian, edo astian edo ilian, batez-beste. Ariña bada, eztago zetan esan zenbat bidar; ezta pekatu arin guztijak be, nai bat esan, nai mila esan, danak esanda baizen ondo parkatuten dirialako). Bigaíenian ezer ezpadaukazu, ez esan: Bigaíena alpeíeko juramenturik ez egitia. Agindu santu onetan eztaukat ezer. Suaz irugaíenera, bitarteko ausi eztozuzanak itxita. Pekatu ariñak baño ezpadaukazuz, ondo da esatia azkenian: «autortzen ditut lengo bizitzako guztijak be»; ta gura badozu (ez nai-ta-nai-ez), ganeratu: «ta batez-be onako aginduaren kontra egin dodazanak».





Autortuteko lotsiatzaz

¿Nok biar dan lez esan zenbat deun-auste edo sakrilejijo egiten dirian pekatuak lotsaz konfesiñuan ixilduta? ¿Nok merezi daben lez negar egin mutute onek betiko inpernuan ondatuten dabezan arimakaitik? Jaungoikuaren kastiguz eta diabruaren engañuz izan ezik, ezinlei ondo ulertu edo entendidu onetan gertatuten dana.

Jaungoikuak erabagi eban, autormena gixonakaz eta ez aingeruakaz egitia, autortutorduan euki biar dan lotsiaren bildurez, pekaturik egin eztein. Beti, ba, orduan egon biar da lotsa apur bat.

—Ori, ba; lotsa ori nik ezin kendu, lotsoña naz-da.—Lotsoña izan biar ziñian pekatu egiteko; baña pekatua autortuteko, gauza ona egiteko, ¿zetan zara ain bildur? ¿Eztakizu ba konfensoriak, ezta eferko baleukie be, ezteutsala iñori zure pekatu ori agertuko?

Konfesore izan dirianak, eldu dira gixonik gaizkiñenak, siñistausle edo erege ta euren buru izatera. Alan be eztau Jaungoikuak itxi olakuak ateratia autormenian entzundako pekaturik.

Baita beste konfesore izan dirian asko, biur-tu dira zoro; baña orduan be, zorakerijarik bañ-egafijenak esan añen, autormeneko gauzarik esan eztarue: jañigañija da Jaungoikuak onetan daukan arduria, gixon argal eta bañitsuen miñak lotuteko!

Esan oia da, eztala liburuetan irakurten, iñoiz-ko denporan konfesoreren batek agertu dabela autormenian entzundako pekaturik.

Bai bestera, ez agertutiañen, ez bakañik entzute ona, baita bizitzia bera be galdu; edo obeto esateko, Jaungoikuagaitik emon dabe, martiri egiten diriala.

Askok dakijena da S. Juan Nepomuz'ekoren gertaeria. Wenzeslao IV'ak Ungarija'ko eñegiak, santu onen jakiturija ta arimen zaletasuna ikusirik, izentau eban bere sermolari ta limos-nemoletzat, aututen ebala eñegiñak be bere arimiaren artezkari. Baña okerturik eñegia, asten da, onakuetan oi dana, eñegiñaren kontra berak egiten ebazan gaiztakerijak susmaten. Eta bururatuten jako egija zan, ala ez, bere konfessoriagandik jakitia.

Palagu ta labankerijakaz artu konfesoría, eskiñi sarijak, alpeñik; zematu presondegi ta beste atsekabiakaz, bigundu ezin; eta artu ta jaurtiten dau Moldava'ko ibaira, bizitziagaz martirijen koroia erosten dabela.

Baeroian koñontak korpu santua; baña bere inguruan agertu zirian argijai jañaituta, artu ta obiratu eben.

Andik iruregun urtera, atarau ebenian, aurkitu eben bere miña usteldu barik, bizi-bizi.

Oregaitik da santu au, ez bakañik konfesorien, baita entzute ta izen ona añizkuan daukien guztijen jagola ta gordetzale be.

—Baña pekatu ori autortuten badeutsat, ¿ze-lan begiratuko deust auñerantzian?—Ezin lei konfesoríak ez bakañik pekaturik esan, ezta eurakaitik begi txañakaz begiratu be; ta baldin, naita begirakune utsez izan, adierazoko baleu zure pekatu ori, ta jakingo baleuskijue Vitorijan kenduko leuskijue konfesau ta Mesia emoteko eskubidia, ta ezañiko leuskijuez beste eñusari edo kastigu asko.

—¡Ain andijak ezpalira nire pekatuak! —Konfesorerik gaztienak dakiz zuk egin dozu-zan, eta egin ziñeikezan pekatu guztijak. Amar Mesa eskiñiten ebazan misiolari batek, esango eutsazala, berak ezekijan pekatoren bat autor-

tuten eutsanari: amar urtian ezeutsazan inok irabazi.

—¡Ain naz lotsofa!—¿Benetan zara lotsor andija? Ainbat geyago oin lotsa apur ori kendu biar dozu.—¿Ezetz? Ba, bitik bat: edo oin esan pekatu orek konfessore bati, ezegaitik be inori esango ezteutsazanari, zenbat eta pekatu andijaguak esan, eruki geyagogaz begiratuko deutzunari; edo gertu zaitez pekatu orek eurok esateko juizijoko egunian konfessore oren aurian, zeure gurasuen aurian, zeuk geyen ezkutau gura zeuntsezanen aurian, zeruko aingueru ta munduko gixon guztijen aurian, esaten deutzuela balez eta destañaz: ¡Aur pekatari itsu, arua; ezeutsazan esan gura pekatu orek konfessore bati, zerura juateko; ta oin zelan esaten dabezan zeru ta mundu guztijaren aurian, ta ganera inpernura betiko juan biar! ¿Zer egon lei au baño burubakotasun eta itsutasun andijagorik?

—¿Zer gura dau? Ori ta guzti be, etxat kendu lotsa guztija.—¿Ta kendu jatsu lotsa ori botaten eztozulako bijotzian sartuta daukazun arantzia? ¿Zer dala uste dozu ezezago? Beti bake barik egon, deun-auste edo sakrilejijo andijak egin, Jaungoikuaren asefia zeure buruaren ganian euki, erijotza ta bere osteko inper-

nuaren bildur bizi; ala lotsatxu ori jaurti, bake andija bijotzian sartu, Jaungoikuaren lagun maite egin eta zeruko bidian geratu?

Ta batez-be onakuak, baldin siñisterik galdu ezpadabe, edo Jaungoikuaren kastiguz bijotza ari biurtuta ezpadauke, ¡zelako bildura, zelako dardaria jauna artutorduan! Bakije bere aseñian dagozala, bakije euren arimia pekatuz atsituta, diabru bat baño baltzago daukela; ta alan da guzti be, juan altara santura, atara miña, artugure Jaun andija, ta bota euren bijotz ¡zikiñera! ¿Zer egingo ete-dau Jaun ain garbijak, ain garbi-zaliak, an, basatzan lez, pekatutzan sartuta? ¿Mirari izango da onako lotsoñakaz kastigu ikaragañijak egitia? Ba, egin oi ditu, ta ez gitxi.

Ara emen jazoera ziur-ziura.

Aita Ramirez, geure Jesus'en Lagundiko misiolari entzutetsua, amaseigaren gixaldijan, Valenzian misiño bat emoten egoala, etori jakazan kolejijora, gaixo bat konfesateko. Bialdu eban nagosijak beste lagun bategaz, eta konfesau eban gaixua, neskatila bat.

Konfesaten eguan bitartian, ikusi eban bere lagunak, esku baltz, uletsu, atzokol andidun batek estututen eutsala eztañija gaixuari. Etxeratu zanian, esan eutsan nagosijari zer ikusi eban.—«¿Lo, edo, egongo ziñian?»—«Ez, aita;

neu be lenengotan begitaziñoren bat etezalakuan nenguan; baña ez, sañitan ikusi dot».

Deitu nagosijak aita Ramirez'eri, ta dirautso: «¿Konfesau dozu gaixua?» — «Bai, ta pozik; negar andijakaz egin deust bere autormena.» — «Ta gero ¿juan zara osterera be ikustera?» — «Ez; eztot uste izan biarko nenduanik, eze-guan ain txarto.» — «Suaz, ba, esker asko zor deusaguz etxe oñeri-ta.» Juan zan, eta il zala.

Biurtu zan etxera zer ete-zan pentsaten, eta esan eutsan aita nagosijari jazo zana. Orduan nagosijak agertu eutsan bere lagunak zer ikusi eban; eta agindu eutsan otoiz-gela edo kapilara juateko, arima aregaitik eñegututera.

Atan ziarduala, gabeko amabijak inguruan, ara nun agertuten jakon neskatila aren arimia su urdiñez inguratuta.

Ikaratu zan misiolarija; baña dirautso ikuskizunak: «Neu naz gaur konfesau dozun neskatiliaren arimia.» — ¿Zu olan? — «Bai; betiko galduta nago, ta Jaungoikuak bialduten nau neure bañi zuri emotera, bestiak neugan ikaratu deitezan. Ni, nire amaren denporan, ondo bizi nitzan; baña gero egin neban pekatu ezain bai; eta, bildur nitzan lez autortuten, ixilik gorde neban, jañaituten neutsala sañi konfesetiari, neukan entzute ona ez galtziañen.

Onetan urte asko emonda, Jaungoikuak ekañi zinduzan uri onetara neugaitik; eta alan zure sermo bakotxa untze bat zan nire bijotzarantzat. Etxeratuten nitzan, sartzen nitzan sokondo baten, emoten neutsan negañari, ta egiten neban neugan: Zu zeure burua galdu gurarik zabiz; zuaz misiolari oñegana, ordu-lauren baten urtengo dozu zeure estutasun oñetatik. Baña egiten eustan bañuak: ¿ta zer esango dau? Ezta-baida oñetan nenbñlela, igaro eustan bate-tik-bestera neure bijotza zure sermo batek, eta erabagi neban zugaz konfesatia. Ta bildur izanik zer esango eteustan neure konfessoriak beste bategaz konfesaten ikusita, egin neban neure burua gaixo, ta deitu neutzun.

¿Goguan daukazu zelan asi nintzan pekatu txikijetatik? ¿Ai andijetatik asi banintz? Negar arek etzirian pekatuak erazoten eustazanak, lotsien lotsiak ateraten eustazan.

Diabruak ipiñi eustan buruan, ondo nengola; gero, benetan gaixotuten nintzarian, konfesauko nintzala, ta alan itxi nebazan agertu barik neure pekatuak. ¡Ordu txañian miña bidar! Emon eustazun absoluziñua, baña bera izan zan nire kondenaziñoko epaia. Asafatu jatan Jaungoikua, bialdu eustan erijotzia, galduta nago, ta betiko».

¿Zer da, bada, esan eutsan misiolarijak, oin geyen saminduten zaituana?

«Gauza bi; bata, jakitia neugaitik bialdu zinduzala Jaungoikuak, eta ni ez nintzala bera-gana biurtu; bestia, eztodala iñoiz onduteko erarik eukiko.»

Au esanda, eskutau zan.

¡Beste amaikagaz egingo eban Jaungoi-kuak, neskatila erukañi onegaz egin ebana!


—Ez; niri etxat olakorik gertatuko; konfe-sauko naz; baña oin ez, gero.—¿Zer esan do-zu? ¿Oin konfesau ez, eta gero bai? Oin lotsa bazara, gero geyago. Ari bategaz zaukaz lotuta diabruak; egin beste konfesiño txar bat, beste ari bat; jaunartute txar bat, beste bat. ¿Nok esan zelako soka lodija egingo daben, urte ba-tzuetan txarto konfesau ta Jaunartuagaz? ¿Eta zuk oin ari me ori eten ezin, eta gero ¿uste dozu soka lodi a apurtuko dozula? ¿Eztozu ikusten argi-argi diabruaren lakirijua dozula ori?

¡Gero konfesauko zariala! ¿Nok esan deu-tzu etzariala ilgo bat-batera, edo berba barik, beste asko lez? Baña egizu eukiko dozula astija ta berbia, ¿eukiko dozu konfesorerik? ¿Mirari izango da Jaungoikuak konfessore barik zu iztia, ainbeste bidar konfesoriarri guzura esan deu-tsazulako?

Dana emotiañen, egin daigun baukazula azken orduan astija ta berbia, baita konfesoría be. ¿Konfesauko zara? Eztakit. Nik dakidana da, bat baño geyago geratuten dala Eleixakuak artzeko egin oi dan konfesiñuan bertan, lengo lotsazko pekatuak autortu barik, jakin añen ez-tala geyago konfesauko, ta inpernura duala zuzen.

¡Fededun bategan ija sinistu ezin dana, baña Jaungoikuaren aseñiak onako lotsorakaz egiten daben kastigu ikaragaríja!

Esaisuz zeure pekatuak, andijena edo lotsarik geyen emoten deutsuna auñetik bialduta; ta jakizu añantzalia, zenbat eta añaiñ andijagua artu, pozago egiten dan antzera, geu be, izanik gure eginbiar edo ofizijua apostoluena berbera, arimen añantzale izatia, ez gariala iñoiz pozago geratuten, onako añaiñ andijak artzen doguzanian baño.





Autorkuntz orokor edo konfesiño jenerala

Autorkuntz orokor edo konfesiño jenerala askok uste daben baño biraagua da; ba bera egitetik edo ez egitetik, zuzen edo oker egitetik, dago askoren salbaziño edo kondenaziñua.

Autorkuntz orokora da len banan-banan egiñiko konfesiñuen bañizteta bat, esaten diriala konfesiño baten, konfesauta dagozan eta eztagozan pekatu guztijak.

Konfesiño au izan leike bizitza guztikua edo denpora zati batekua, norberari zelan onduen jatorkan.

¿Zetako da konfesiño jenerala, len egin bada konfesiñuak? Au ondo jakiteko ipiñi daiguzan persona guztijak iru pilotan; batzuentzat da *kaltegaría*, *mesedegaría* beste batzuentzat, eta irugarientzat *nai-ta naiezkoa*. *Kaltegaría* da konfesiño jenerala keskatí, bildurtijegi edo eskrupulosuentzat. Onek len bein edo

geyagotan egin konfesiño jenerala, gertu edo preparaten ziriala ainbat onduen, ezagueraz itxi barik pekatu astunik; eta jazoten jake gero arimako bakia galdutia. Sartzen dira laritasun, ikara ta bildur gogaikarjetan. Noizian-bein juakoz konfessoriari bata ta bestia autortutera, aspertu eziñik esatez. Aztuten jakez zertzuk konfesau ebezan; irudituten jakez pekatutzat gauza begitanduak; pekatu anditzat, guztiz ariñak; konfesauak, konfesau bakotzat; oker esanikotzat, zuzen esandakuak.

Konfessoriaren oñetatik urten orduko, gomutaten jake beste zerbait. Diabruak lagunduten deutse, kontzientzija nastaten; kenduten deutse atsegin eta poz guztija Jaungoikuaren gauzëtarako, ta ekarten deutsez mila gogoraziño estugañi.

¡Ai, ene!; diñue: ¿zer izango da nigaz?

Konfessore jakitun batek esan añen ez eragiteko lengo gauzai, esanda daukezala biar dan bestian, egiten dabe euren bañuan: «eztaki konfessoriak nire bañi, uste dau konfesauta daukadazala, bildurtijegija nazala ¿ta konfessoria-
ren engañuak salbauko nau?»

Artu deyoguezan, ba, onakuai kontuak: Konfesiño jenerala egin zenduanian, ¿esamiñia egin zenduan?—Bai, jauna, egun askotan be.

—¿Itxi zenduan lotsaz pekatu astunik?—Ori ez, jauna. Ezteutzu esan aiezkerok konfesoriak ez eragiteko lenguai, izteko bere kontura?—Bai, ez gitxitan.—Ba, erukañijori, ¿zelan zabiltz olako buru austietan? Zegaitik obeidu ez konfesoriarri, izanik zuretzat bere esana, Jesu-Kristoren esana berbera? Laño artian zagoz, eta biar dozu nok zuzendu; itsua zara, ta itsu-mutila artu biar dozu; ta aur zelan emoten deutzun Jaungoikuak zuzenduteko bere ordezkua, berberak lagunduta beste.

—Baña pekatuan benetan banago, konfesorria engañaten bada; ¿konfesorriaren engañuak inpernutik gordeko nau?

—Bai; ta ondo aitu auxe. Egizu kontu era-zoia daukazula, txarto egin zenduala zeure konfesiñua, konfesorria engañauta dagola. Alan da guzti bere, zuri entzun da gero, esaten deutzu ez eragiteko, ondo zagozala; Jaungoikuak ezteutzu pekatu oren konturik eskatuko; lenengo artuko dozun Sakramentuan, danak parkatuak izango jatzuz. Ziurtasuna gura zeunke, ondo zagozala; baña ogetamar konfesiño jeneral eginda be, eztozu eukiko, konfesorriaren esana egindakuan besteko ziurtasunik.

Ez iges beste konfessore ez-ezagunagana: lenengotan euki ziñei bake apur bat; baña ez

Jaungoikuak emonikua, zeure gogua egin dozulako artzen dozuna baño: ziurtasunik, ez bake iraunkorik eztozu eukiko, konfessoriari itsu-itsuan jaraitu ezik. Ez bilatu beste biderik, eztau Jaungoikuak ipiñi.

Onakuentzat da, ba, kaltegaríja konfesiño jenerala.

Mesedegaríja da:

1.^o *Iñoiz egin estabementzat.* ¿Nok ezta-ki zelan duazan txikitako konfesiñuak? ¿Nok orduan konfesiño jeneral on bategaz eztitu zuzendu gura izango, artzen dabela bere bidez salbaziñoeko ziurtasuna, onako gauzetan euki leikianeaz?

2.ⁿ *Estadua artu gura dabementzat:* mila ariskutan sartzen dira, ta ondo urteteko biar dabe artu ugari Jaungoikuaren grazija. ¡Amaita eskontza oker zuzenduko litzakez, aberiak lez artu barik, konfesiño jeneral on bategaz euren arimak garbituko baleukez!

3.ⁿ *Edadian sartuten duazanentzat.* Askok ogetamar, berogeí urtera ezkeru, eztabe pekatu andirik egiten: esan gura da, aurético zerurako bidia eginda daukela; atzetikua be konfesiño jeneral on baten bidez zuzenduten badabe, aur dana ziur. ¡Zelako bakia eukiten dabe gero onakuak!

4.ⁿ *Eleixakvak artu biar dabezanentzat.*
Euren bizitza guztiko kontu emotera Jaungoikuaren Tribunalian agertu biar dira. ¿Ezta izango gauza egokija, aurretijaz erukizko Tribunalian, konfesiñuan, kontu orek garbitutia?

5.ⁿ *Damu gitxigaz konfesau dirianentzat.*
Egija da eztagola biartuta konfesiño jenerala egitera, ziur eztagona konfesiño txarā egin dabela. Baña konfesiño ariñak egin dabezanak, eta len esan doguzan damu gitxikuak, konfesiño jeneral on bat egiten badabe, beste poz bat eukiko dabe euren baruan.

Konfesiño jenerala da *nai ta-naiezkoa*, konfesiño txarāk egin dabezala ziur dagonarentzat. Irakuři zeintzuk dirian onek, damurik eztaukela nortzuk ziur egon leizan, esan dogunian.

—Ori olan izanik, diño batek, nik konfesiño jenerala egin biar dot, nai-ta-naiez; ba, txikitan egin neban zikinkerija bat eskolako lagunakaz, eta eztot ondio konfesau. Uste neban batzuetan etzala pekatu andija, beste batzuetan bariz bai; baña egija esateko, dana izan da lotsien-lotsaz, ez konfesetiařen.—Ondo izango da konfesiño jenerala egitia; bildur naz konfesiño txarāk egin ete zenduzan-da.

Ni be atrapanau, ba, gaurko esaldijak, itxi

nebazalako konfesau barik fediarene eta Jaungoikuaren kontrako gogoraziño ikaragarriak.— Biar bada ezeuntsezun lekurik emon olako gogoraziñuai, ta etzenduan pekaturik egin; baña pekatu zirialako ustiaz, konfesau barik egon zara lotsaz; egin dozuz, ba, deun-auste edo sakrilejijo andijak.

—Nik egin neban beste tranpa bat, diño nok -edo-nok. Euki nituzan lotsaz agertu barik denpora zati baten pekatu batzuk; eta bildur nintzan lez esaten konfessoriari lotsaz itxi nebazala, esan neutsan aztu egin jatazala.—Konfesiño txarrik egin dozuz, eztozuzalako esan pekatu astun guztijak, lotsaz itxijagaz egin zenduzan sakrilegiuak.

—Ori baño ezpalitz, diño azkenez beste bateg: txikitatik asi nitzan gurari loyai leku osoosua emoten, berba satarik esaten eta entzuten; egiten nebazan eskuka loyak neure buruagaz eta bestiakaz. ¿Nok esan zenbat pekatu modu? Baña enebazan autortuten erdijak be, txikijenak esan, andijenak itxi. Argiro ikusten dot konfesiño jenerala egin biar dodala, ¿baña nundikasi? ¿Nok gogora ekafi ainbeste pekatu?

—¿Gura dozu itxi oitura txar ori? ¿Gura dozu auferantzian bizitza on eta garbi bat euki? ¿Bai? Ez orduan bildurtu.

¿Baña zelan burura ekañi ainbeste urteko pekatu guztijak, buruko uliak baño geyago bada-
dira?

Eztago ardurarik. Esamiñia zer dan esan-
danian, ikusi dogu, eztagola obligaziñorik pe-
katu guztijak burura ekarteko, ofetarako alegi-
ñak egiteko baño. Ta ganera, sañitan, pekatu
geyago egin dabena, obligaziño gitxiago dau-
ke kontuak ziatz aterateko, ezin dabelako.

¡Ai ikusiko bazeunke zelako bakia artuko
leukian zure bijotzak! ¡Ze atsegin garbija, bañu-
kua, iraunkoña, (ez oñartekuak lez loiak, aza-
lekuak, une baten igaro ta mingoztasun andija
dakañenak), sartuko litzakizun azufetaraño!
¡Zelan dagozan zuri begira Jesu-Kristo gure
Jauna, Ama Birjiñia, zure deboziñoko santuak,
zeruan daukazuzan zure asaba ta senidiak, zeu-
gaitik eskatuten, konfesiño general on baten
bitartez euren betiko lagun egin zaitez! ¡Eta
batezbe ikusiko bazeunke zein gauza ezeza,
uste dozun baño miña bidar ezezagua, dan ain-
beste ikaratuten zaituzan konfesiño ori egitia:
ziur nago añituta geratuko ziñakiala, ainbeste
balijo dabena gauzia, ain ezeza aurkitu dozulako;
miña iraun ta desprezijo esango zeunskijozala
zeure buruari, ain luzaro mia eder au topau ba-
rik egon zarialako; ta aspertu eziñik eskeñak

emongo zeunskijozala Jaungoikuari, baita geuri gixontxuo*i* be, erakutsi deutzugulako.


Ara orain emen konfesiño generala egiteko era guztiz e*r*aza:

Ikusizu lenengo nai-ta-naiezkua ala borondatezkua dan; ba borondatezkua izan ezker*o*, ariñago egiñ lei, eztagolako danak esateko obligaziñorik. Gero artuizu esamiñia egiteko emon jatzun argibidia; ta begiratu, konfesiño jenerala nai-ta-nai-ezkua danian (bestela eztago obligaziñorik), gauza astunen baten jausi zariala aurkitu dozunian, ia zenbat bidar bakotxian astian edo ilian, gitxi-gora-bera; jakiñik urte askotako pekatuak ezin leikezala ain ziatz konturatu.

Seigafenera eldutakoan, diru asko kontau gura dabena*k* ipinten dabezan lez, pesetak pi*l*o baten, peseta-bikuak bestian eia alan: baita zeuk be ipiñi pi*l*o baten, gitxi-gora-bera, egunian edo astian gogoz euki dozuzan pentsamentuak, bestian berbak, bestian gurarijak (1); ta azkenez egikerak, bakañik zein lagunagaz, banakattuten dozuzala ezkondu baño len eta ezkondu ezker*o* bestiakaz batera egiñikuak. Aur dana.

(1) Bizitza nasaya daukenak, eztauke pentsamentu, gurari ta berba onen kontu au zetan atera; ba jakiña da asko daukezala, ta ezin kontau leikezala. Onek atera dayela egikeren kontua batezbe.

Ezta orduan askok uste daben baizen zeregin arazotsua; ta egun asko gertuten edo preparaten emon biar dana, konfesiño jenerala; naita izan guztiz mesedegaríja egun batzuk onetan egitia, astija dagonian, bijotza obeto aldatu, ta bizikera bañi on bat artzeko.





Txarto-egiñen Ordaña edo Kitugarija

Pekatu astunagaz zor andija ekarten dau-
tsagu geure buruari: betiko inpernua.

Zor ikaragari au parkatuten yaku, Jaungoi-
kuari eskerak, ondo konfesauta, pekatu ofen
eua parkatuten yakunian. Baña geyenian ez
yaku parkatuten zor guztija. Egija da, damua
andija danian, parkatuten yakula zor eta pena
guztija oso-osorik, baña au gitxitan gertatuten
dana da; geyenian inpernuan betiko igaro biar
geunkezan atsekabe arek, aldatuten ditu Jaun-
goikuak purgatorijuan edo mundu onetan igaro
biar doguzanetan.

Dabid'ek negar andijak egin ebazan bere
pekatuagaitik; eta Natan igarriak esan eutsan
Jaungoikuaren izenian: «Jaunkoikuak be zuri
parkatu deutzu zure pekatua; baña bere ixena
iraindu dozulako, ilgo da zure semia».

Ipinten dau batek jantzi eder bat, jausten

yako orban, mantxa, bat; naita asko igortzi, ezta geratuten len baizen garbi.

Pekatu astun bat egiten dabenen arimia be, munduko gauza loi guztijak baño loyago ta itxusijago geratuten da. Ondo konfesauta artuten dabena grazijaren urak, garbituten dau; baña geyenian ezteutso lengo edertasun guztija ekartzen, garbijago egin biar da.

Bañiz zeruan, Jaungoikuaren jauregijan, aingeru ta santuekaz biziteko, guztiz garbi egon biar: aur ba zegaitik, Jaungoikuaren grazijan egon aŕen, garbitu biar dan arimia; edo mundu onetan, borondatez artuten dirian atsekabe ta beste egikizun onakaz, nai Jaungoikuak bialduten dabezan kastiguak iraupen edo pazientzijaz eruanda; edo beste munduan, garbileku edo purgatorijuan tormentu aŕigaŕijak igarota.

Baña ez uste Jaungoikuak grazijan dagonari onako atsekabiak emoten deutzazanian, asafe dalako, edo pekatu zatiren bat eurakan ikusten dabelako emoten dautsazala. Ez; jakituri ta ontasun andijagaz egiten dau.

¿Eztogu pekatu egitorduan Jaungoiko andija iraindu, ta bere lege santua zapalduten, geure buruari atsegin apur bat emotiaŕen? Nekatu daitela, orduan, geure burua.

Ganera, pekatu egiten dogun bakotxian, penitentzija barik parkatuko baleuskigu guztija, éreztasun andija artuko geunke beste ainbeste egiteko. Ta zelan aginduten deutesen gurasuai Jaungoikuak seme - alabak okerkerijaren bat egiten dabeanian zurateko, makiliaren bilduréz osterá be egin ezteyen, auxe berau egiten dau berak be.

Ausi Epaliak edo Juezak erabagija emondakuan, érusarija edo kastigua esarten deutso érudunari: beste ainbeste aginduten deutso konfessoriari Jaungoikuak, benetako Ausi-Epalia egin dabelako.

Beste aldetik bañiz, gorputzeko gatx bako- txak bere osagañi edo éremedijua badauko, baita arimakuak be. Ibiliko da gixon bat beste guztijak aspiratu gurarik; edo emakume bat mundu guztija bere auñian makurtutia gura da- bena: agindu begijue konfesoriak egunoro luñari mun egiteko esanaz, «autsa zara»; edo go- goratu deyela inpernuko diabruaren oñpian egon biar ebela; ta ikusiko dabe euren buruak apaldu edo umilduten jakezala. Eta alan beste guztijetan.

Emendik aterako da era bitakuak diriala konfesoriak emon oi dabezan penitentzijk: *kitu- garijak*, edo Jaungoikuari pekatuakaitik deu-

tsagun zoía ordaidutekuak; eta *osagañiak*, ostera pekatuan jausi ez gaitezan emoten deuskuzanak.

Orduan ¿obligaziño astuna egongo da penitentzija beteteko? — Dago obligaziño astuna zuzen emoten dan penitentzija astuna beteteko gogua ta erabagija eukiteko. Da au badago, naikua da. Gero nagitasunez bete barik izten bada, ezta oregaz txartuko len ondo egiñiko konfesiñua; baña nagitasun oregaz egin dozu pekatu bañi bat.

Astuten bada penitentzija, ta érez itandu ezin bayako konfesoriarri, edo ezin bada bete, barbarako, gaixo bat datoñenian, eztago ardurarik bete ez añen.

Da luzaro penitentzija bete barik egotia, ¿pekatu da? Ona da penitentzija ainbat lasterren betetia, ez bakañik aztu ez dedin, baita be dalako guztiz ona grazijan dagola betetia; bada penitentzijak, konfesiñoko sakramentuaren zati bat izanik, indar andija dauko pekatuen zoía kitututeko, Jaungoikuaren grazijan bete ezkerro; bañiz pekatu astunian dagola egiten bada, bape ezta gauza oretarako. Oregaitiño bere ezta izango pekatu astuna, luzaro penitentzija bete barik egotia, ez pekatu mortalian betetia beste gauzaren bategaitik ezpada. Penitentzija ariña

bada, ezta borondatez iztia be, ezta izango pekatu ariña baño.

Penitentzijatza emon dan egikizuna betetan darian penitentziaz gomutau barik, edo gomutau penitentzija, baña betetia geroko izten darian, ¿beteten da penitentzija?

Bai; ta alan emoten deutse bati penitentzijatza Mesa bat entzutia, ta entzuten dau, penitentziaz bape gogoratu barik; edo gogoratuten da, baña egiten dau beragan: «gero entzungo dot penitentzijako Mesia». Ba onek entzun daben Mesiagaz bete dau penitentzija, ta eztauko beste Mesarik zetan entzun.

Baña ¿zer esan giñei penitentzijak artu gura eztabezanakaitik, edo konfessoriaren kontra, gogoa dala, ezjakiña dala, ta beste oñen antzera lotsa gitxiko autuak darabilezanakaitik, zerbaitako penitentzija emon deuselako? Eztakijela zer dan pekatua. Balekije ondo munduan izan eta izango dirian gixon guztijak, munduaren asijeratik amairano, San Lorentzok bere martirijuan ikusi ebazan atsekabiak igaroten egonda be, eleukiela jadtixiko pekatu astun baten zoña garbitutia; balekije ezta inpernuko tormentu guztijakaz be ezin leikiala ordaindu pekatu astun bat: eleukie txartzat artuko konfesoriak, auñerantzian pekatu egin eta inpernura juan

ezteitezan, Mesa nai barau batzuk, edo añisku batetik urteteko agindutia.

Gure aita San Inazio ija urte betian egon zan Manresa'ko arzuluan, ogi apur bat jan, saku bat soñekotu, burdiña gogofez azotau, ta sei edo zazpi orduan eřegu belauniko egiten ebala. San Luis'ek pekatu arin osora be elduten etzirian utsegite bi gaitik, odolduten eban bere aingeruzko gorpustxu eřubagia. ¿Zegaitik? Ondo ezagututen ebelako pekatua, ta pekatuagaz irainduten dan Jaungoikua. Guk orduan, pekatu andiakaitik penitentzija ain txikijak artu-ezguraka gabilzarian, ondo adierazoten dogu itsututa gagozala, eztala ondio gure ari-man Jaungoikuaren argirik sartu. Siñismena daukanak, lotsa apurtxu bat daukanak, eztayela, ařen, esan andijegija dala emon jakon penitentzija.

Au penitentzija *kitugañija* dan aldetik; eta ¿zer esan *osagañija* danez? Geure bañuan daukagu arerijorik gogořena, len ainbeste bidar galdu gaituzana, ta oin be gu galdu gurarik dabilena; ¿eztozu susmau edo sentiduten bil-bil irakiten zeure bañuan aragi zitala? ¿Ta arerijo ain gogor eta, batera, ain malmutz, zimaño ta tranpatijagaz bigunkerijan eta palaguan bizi? ¿Indańak kendu biarean, bañijak emon? ¿Ondo

lotu biar zeunkiala, nasai-nasai itxi? ¿Ito biarian lodi azi? Ba: «*Qui delicate nutrit servum suum, postea sentiet eum contumacem*». Laster asiko jatsu ostikoka; ta eztakizulako, goituten berak zeu goitu ta menderatuko zaitu.

¿Zer egin eben beste askok? San Jeronimo beti izan zan naikua garbija; baña garbijago izatiañen, juan zan bakartadera, ta an gitxi jan, gitxi lo ta biar asko egin, azala azuñen ganian baño ezebala, esan zeinkian ilda eukala gorputza. Baña ija ilda eguan gorputz aren bañuan, ez eguan ilda arerijua; ta artu ari bat, eta zaurituten eban bere gorputz zimel oritua. Alan beste askok gaurko egunian be, santu entzuterik euki ez añen, bai lekaretxe edo konbentuetan, bai munduaren beraren erdijan; eta ori sañitan euren bizitza guztijan onak izan dirianak, penitentzija ta otoitz edo eñeguakaz, griña txarñak goituagaz, arerijua makaldu, bezau ta ostikopetuta daukela.

Ta gu, munduaren erdijan egon, diabruak, santu batek ikusi ebazan lez, bake-bakian jañita dagozan lekuan, gu geurez pekatuan jausten garialako; kanpotik arerijoz inguratuta, bañutik beteta; asko sasorik txarñenian, ¿eta penitentzija egin gura ez? ¿Geuk egin biar geunkiana konfesoriak emondakuan, muñuzkadaka abijau,

artu gura ezda; edo bayetz esan, egiteko asmo barik; nai gogo onagaz artu, ta gero bete barik itxi?

Eri guztijetan dagoz gazte nasayak, paper txarrik irakuri, lagun deungakaz ibili, ta gero esaten dabenak, eztagola inpernurik, zorakeriak diriala elexako kontuak. Dator paskuazkua egitera; ikusten dau konfesorik txarto dagola, betiko galdu biar dala, otzitzen jualako fedia, salbaziñoko gauza on guztijetarako sustraya. Ta emoten deutso penitentzija eztayela irakuri olako paper txarrik, ez ibili olako lagunakaz. Ta erantzuten deutso: «Ez beit emon olako penitentziharik». ¿Ez? Esaten deutzut zelako arerijuak daukazan zure arimako gazteluak; zeleyo edo bentanetatik sartuten jatzuzan lapurak zuri grazija ostuteko, ¿ta eztozu ardurarik artuten? Galduko zara emendik auffera be, oin artian galdu zarian lez. Zure salbaziñua estu ibiliko da.

Dago beste gixon indartsu bat, odola irakiten eta aragija garretan daukana: olakuentzat onena litzake jatekua, ta oba ondio edarija, zerbait uritutia. Baña ¿nok ori penitentzijatatzat agindu?

¡Ai! Geña daukagu gorputz eta arimiaren artian; eta ¿zer egiten dogu? Gorputza ondo

artu, geitu bere indaŕak, kontuz ibili ez nekatuteko; arimiari baŕiz eŕegu, sakramentu ta beste sendagaŕirik emon ez; gorputzeko gauzak lenengo, arimakuak gero. ¿Zer urten lei emendik? Urteten dana, urten biar dana, arerijo gogoŕaguak bigunagua goitu ta zapalduta iztia.

Onek esaten deutzuedaz emoten jatzuen penitentzija gogoz artu ta bete dagizuen; eta emoten ezpadeutzue miñduten zaituezan penitentzijarik, zeuek eskatu. Eŕosarijo santua onada, Mesia obia; baña arimia zaurituta badaukazu, eztakit oŕegaz bakaŕik osatuko dozun. Min emoten deutzun penitentzija, axe da onena. Osagiĕ edo medikuak, zaurija nun daukazu ikusteko, ikututen deutzunian, eztozu miñik artuten, zaurijan atzamaŕa ipiñi arte. Bardin ¿konfessoriak emoten deutzun penitentzijak, min emoten deutzu, salto eragiten deutzu? Ezaugaŕija da min daukazun tokijan ikutu deutzula: ez jua beste penitentzija bigunaguaren bila.

Eztot onegaz esan gura, ezagututen dozuenian emon jatzuen penitentzija andijegija dala daukazuezan indaŕentzat; edo beste zer-edo-zer-gaitik eztozuela beteko, ezin jua zeinkiezala beste konfessore bategana. Baña ez esan kon-

fesoria dala gogoña, zeuek bigunak ta indar gitxikuak baño.

¿Bakizue zelako penitentzizak emoten zirian pekatuakaitik, (baña bakarik agertuten zirianian), antxiñako denporetan? Birau edo blasfemia bat esaten ebanak, egin biar eban zazpi eguneko baraua, ogi ta ur utsagaz; beste zazpi egunian egon biar zan Eleixako atarijan, Mesa nagosi bitartian, belauniko, burutzik, ortozik, soka bat samatik ebala; ta beste zazpi urtian penitentzija bigunagotxua egiten. Jayegunian biar egitiagaitik, zazpi eguneko ogi ta ur utsezko baraua. Barau bat austiagaitik, ogei eguneko barua, ogi ta ur utsez. Aitari edo amari biraua ezartiagaitik, berogei eguneko baraua, ogi ta ur utsez. Gurasuai atsekaberen bat emoten eutsen umiak, iru urteko penitentzija; atsekabia andija bazan, zazpi urtekua. Asefekuntza bategaitik, zenbat eguneko asafekuntzia, ainbeste eguneko ogi ta ur utsezko baraua. Seigaren aginduaren kontra pekatu egiten eban neska edo mutilak, iru urteko penitentzija; eskonduak amar urtekua. Lapuñetan egiten ebanak, gauza astunian, zazpi urteko penitentzija; bardin guzur astun bat esaten ebanak.

Penitentzija onek egiten zirian, eleixako atarijan auspez etzunda, soñeko zar, etenagaz;

burua autsez estalduta. Barauak asko, ta sañi
ogi ta ur utsez. Ta alan egoten zirian eleixara
sartuten ziranai eskatuten jadtzi eyuela Jaungoi-
kuagandik euren pekatuen parkamena; egiten
ebezala penitentzija ta gogortasunik andijenak,
gaurko egunian siñistu be ezin doguzanak, bes-
te kristiñauakaz batu arte eleixa ta sakramentu-
etan.

¿Zer deritxazue? Ba geu be, eurak lez, kris-
tiñauak gara; eurak juan gura eben zerura, juan
gura dogu; baña eurak egiten ebenik eztogu
egin gura. Pekatu egiten dogunian, orduan pe-
katu egiten ebenen antzera egiten dogu; baña
penitentzija egin biar darian, bakañik izten do-
guz.

Oin bigunagua edo izan biarko da Jaungoi-
kuaren legia, edo pekatua ariñagua, penitentzi-
ja txikijaguak emoten dira-ta. Ez olakorik; esan
doguzan penitentzijek emotera orduko konfeso-
riak igituten zituzan Espiritu Santuak, gaurko
egunekuak be txikijaguak emotera zirikatuten
ditu. ¿Bakizue nun dagon desbardintasuna?
Geugan. Orduan, pekatu egiten ebenak eurak,
baita penitentzija egiteko be beuken indaña.
Gaur pekatu egiteko indaña baukagu, peniten-
tziarako argalak gara; ta oréxegaitik ezteuskue
emoten eruango ezgeunkien zama edo kargarik.

¿Zer egiten dau osagiliak gaixuagaz? Al baleu artu okela eña ta ardaua, emongo leuskijoz, ariñago osatuko litzake-ta; baña eztauko in-darik, gatx egingo leuskijo, ta emoten deutso salda ta sopa apur bat. Gaixo gara geu be; ofetxegaitik ezteuskue emoten penitentzija an-dijagorik. Pekatua, antxiña baizen astuna da; Jaungoikua antxiña baizen zuzena; zerua len baizen goi, bertarako bidia len baizen estu; inpernua len baizen ur, ta bidia len baizen za-bal. Bakarik geu ezkara antxiñakuak lakuak; eta gogoñaguak izan biar geunkiala, arerijo ge-yago ta indartsuaguak daukaguzalako, mila bi-dar makalaguak eta epelaguak gara. ¿Ta mira-ri izango da gaurko egunian ain gitxi salbautia?

Ta salbauten dirianak be: ja ze purgatori-jua!; ba pekatu egin dogunontzat, bitik bat: edo munduan penitentzijagaz geure arimak garbitu, edo gero garbileku edo purgatorijuan.

Bañiz emengo penitentzijak asko be geyago balijo dabe arimak garbituteko, purgatorijoko atsekabien aldian; eta ganera emengo peniten-tzijakaz zerua irabazten da, purgatorijokuakaz ez.

Ikusi, ba, zer dan oba, emen penitentzija apur bat egiñagaz purgatorijua gitxitu, zeru asko irabazi ta arimako arerijuak zapaldu; ala


purgatorijuan asko geyago igaroteko itxi, zeru gitxi irabazi; ta griña txarāk gordin eukita, salbaziñua arisku andijan ipintia.

Au entzunda, batek baño geyagok, arituta, esan darue: ¡Nire erukañija! ¡Ezin dot penitentzizarik egin!—¿Ez? ¿Nekazarija zara? Eukiko dozuz egualdi txarāk, zeure zeregiñetarako oker jatortsuzanak, berua udan, otza neguan; izango dira urte urijak; edo, biarækua izan arén, gauzaren bat eztozu eukiko. Sartuko jatsu nai-bagia ariman, gaixo nai izakera edo genijo txara etxian, edo auzo zital bat albuan; orek eta beste edozelako samintasuna emoten deutzuen gauza guztijak artu ondo, ez galdu erua-pen eta bakerik; begiratu zelan jatortzuzan Jaungoikuaren eskuetatik zeure pekatuakaitik, zeuk eurakaitik egin biar zeunkian penitentzija-ren orde; eta naita zu minduta geratu, egingo dozu penitentzija edera.

Azkenez begiratu, batez be gaztiak, nora duazan zeuen begi-bijotzak, eta ikusten dozue-zanian okeřetaruntz duazala, eutsi ta tira gogor atzeruntz. Begi orek ezteyela begiratu nora nai; belari orei ipiñi arantzazko esi bat, pekaturako labangañija izango dan gauzarik sartu eztedin; moztu min zořotz ori, lagun urkuaren entzute ona ezten bategaz lez ze zulatuteko. Berba ba-

ten; begiratu bakotxak nun euki daben oiñ arte pekaturako ariskua, nun eukiko daben auferantzian, eta kendu arisku ori.

Ekañi eskura griña txarñak; goitu, ausi burua gurari galduai; eta besterik egin ezarñen, penitenzija ona izango da, bai pekatuen kitugarñizat, bai batez be auferantzian ez geyago egiteko.



Azterketa edo esamiñia egiteko itaunak

LENENGO AGINDUA

Jaungoikoa maiteen izatea

¿Zenbat denpora da konfesau zariala? ¿On-
do konfesau ziñian? Txarto egin baziñian, ¿zen-
bat bidar konfesau ta komulgau zara ordutik
ona? (Urte nai il bakotxian onenbeste, batez-
beste, gitxi-gora-bera).

¿Bakizu kistar-ikasti edo dotriñea?

¿Ukatu dozu gure Erlijño Santuko egirik,
berbarako inpernua dagola? ¿Ezta-baidan ibili
edo dudau dozu zeure artian? ¿Ukatu dozu aoz
olako egirik, zeure baruan siñistu aren? ¿Olako
autuetan dabilzanai auferapiderik emon deutse-
zu, itaunakaz, arpegi argija ipiñita, edo bañe

eginda? (1) Erlejiñoaren kaltez berbetan eragon dozu? Esaterako: il ezkerro guztia amaitu dok, eta olangoak. Abade ta lekaide edo praleen aurka ezer esan dozun, esaterako: alpeñak diriala, aberatzen adiskide ta beargiñen arerio dirala... Onango gauzarik gogoz entzun izan dozun, esaten eragon dautsonari auferapiderik emon izan dautsozun. Txonitz edo sermoyetan entzuna ukatu edo zalantzan imiñi dozun, edo -ta txantxetan artuta lagunakaz bañe eragiten ibili zarean.

¿Egon zara luzaro otoitz edo eregurik egin baga?

¿Eleixa, eleiz gixon (2) edo gauza santuai lotsia galdu deutsezu?

¿Jaungoikuaren kontra jagi zara, esanaz,

(1) Onako sinisgalduai arpegi txarñ erakusten ez jakelako, zabalduen duaz euskal-erijan be, geure siñiste edeñaren kontrako autuak, kalterik andijena, fediarene oztasuna, dakañenak. Jaungoikuak erakutsi ta Eleixa-Amak siñistuteko erabagita daukazan egijak ukatutia, da iru pekatu andijenetarikuetatik bat; ereji-jako pekatu ikaragañija, gure asabak erijotziagaz ziatu edo kastigauten ebena.

(2) Abadien kontra ekiteko ekandua kaltegarijene-tarikua da, itsututen dabelako jaungoikuaren grazija zerutik luñera jatziteko daukagun odi edo urbidia, sa-zerdotia. Jakitekua da orixe artu dabela masoiak Erli-jiñua galtzeko biderik ziuñentzat.

berbarako, eztala zuzena, edo erukioia, zeu edo zeuriak naibagetan dagozalako, gomutau birañian eztabela egin Jaungoikuak mundu au gu zaritu edo bakotxari beria emoteko, zelakuk garian ikusi, batez be atsekabietan, eta beste munduan zerura edo inpernura bialduteko baño?

¿Jaungoiko edo santuen kontra biraunik esan dozu? (1)

¿Salbauteko itxaropenik galdu dozu; ala us-te izan dozu, bestera, agindu guztijak bete barik salbautia?

¿Igarla, adibinadore edo astruen bategana juan izan zara?

¿Irakuri dozu Erlijiñuaren kontrako paper edo libururik, berbarako protestantiak, masoiak, sozialistak eta liberalak?

(1) Iru pekatu nagosijenak itxita, auxe da beste guztijak baño andijagua: bere onduan eztauko zer ikusi ezta gixona iltiak be.—Oituraz esaten dot.—Ainbat txarago, zer esaten dozun dakizula esaten badozu. Erdel bedar txar au euskal-erijan be sartzen dua, guraso ta beste agintaritzia dauken guztijak egin-alak egiten eztabezalako. Oitura diabruzko ori kentzeko, goizian-goizian erabagi, biraunik ez esatia; ta uts egiten badozu, zigarorik ez ere egun aretan; edo zenbat bidar esan dozun, ainbeste kurutze egin miñagaz luñian oerakuan.

BIGAREN AGINDUA

Jaungoikuaren ixen santua alpeñik ez aitatutia

¿Zin edo juramenturik egin dozu guzuzez edo ezta - baidan, Jaungoikua nai bere izatia berariz agertuten daben gauzak lekuko edo testigutzat ipiñita?

¿Okeñerijaren bat egingo dozula - ta, zin edo juramenturik egin dozu? (1)

¿Jaungoiko nai santuai egiñiko *eskintzari* edo *botuak*, bete barik, al dozula, itxi dozuz? (2)

(1) Olakuak ez dira bete biar.

Umiak, atzamañakaz kurutzia eginda, mun egiten deutesenian; edo *Jaungoikorako* esaten dabenian, ezti-rudi benetako zin edo juramentua. Baña eztira ez egin ez esan biar, txaragora oitu ezteitezan, eta Jaungoikuaren ixen santuari jagokan lotsiagaitik.

(2) Gauza ona da eskintzari edo botua; baña ezta ona ariñegi egitia, konfessoriagaz itundu barik.

Sañtan aginduten deutso batek Jaungoiko nai santuai au edo bestia egingo dabela; atarako pekatuaren beian lotu barik. Oñek eztira eskintzarijak, erabagi edo asmo onak baño; ta olako erabagi, asmo edo proposituak austia, ezta berez pekatu.

Guraso ta aginpidia dauken beste guztijak, kendu edo indarbagnetu leikez mendekuen eskintzarijak. Senar-emaztiak be bai batak bestiagan daukan eskubidien kontrakuak badira. Baita konfesoriak be batzuetan aldatu leikez Kruzada'ko Buldiaren bidez.

IRUGAREN AGINDUA

Jai-egunak jai-egitia

¿Alpeferijaz itxi dozu Mesarik entzun baga, edo Ofertorijua asita eldu zara? (1)

¿Biarik egin edo eragin dozu ordu biterdi inguru? (1)

(1) Yaupa edo Mesia entzuten beartu edo obligaurik eztagoz:

I) EZIN DABENAK; eta dira: 1.^o *Kalte anditxuren bat jatorkenak*; edo bestetan eztauken irabazi andiren bat galdu biar dabena. 2.^{en} *Gaixuak gaixo ostian*, bildur badira gatx egingo deutsela etxetik urtetiak. 3.^{en} Beste edozelako *bildur* edo *lotsa anditxuren bat* igaro biarko leukenak. 4.^{en} *Nai-ta-naiezko bidaldi* bat egin biar dabena, lenago edo geruago ezin entzun badabe. 5.^{en} *Otsein edo serbitzarjak*, ugazabak izten ezpadeutse; baña beste ugazaba bat, aldala, bilatu biar dabe, 6.^{en} *Eleixia urun daukenak*.

II) OP.ZIJUAGAITIK egon leiz Mesa barik:

1.^o *Artzañak eta bizarkentzaliak*, ezin badabe besteren bat euren ordeztu ipiñi. 2.^{en} *Amak*, umiak etxian euki biar dabezanian, edo Eleixan ezin egon diranian, gañaxika ibili barik, ez eurak Mesarik entzun, ez bestiai entzuten izten deutsela.

III) KARIDADIAGAITIK egon leiz Mesa barik, gaixuak, nai etxia, norberena zein inorena, zaintzen geratuten dirianak.

(1) Lan edo biarari isterik eztauke:

I) EZIN DABENAK: Onek dira: *Kalte anditxuren bat jatorkenak*, barbarako, laboriak galtzeko ariskuan badagoz: 2.^{en} *Irabazi anditxuren bat*, bestetan eztaukena, galdu biar badabe. 3.^{en} *Astegunian euren edo*

¿Barauak egin dozuz, edo egun debekau-
etan okelarik jan dozu? (1)

etxeko *jantzijak* garbitu edo konpondu ezin dabezanak,
jantzi onek garbitu nai konponduteko.

II) OPIZIJUAGAITIK: 1.^o *Ule nai bixarkentzaliak*,
besteren bat euren tokijan ezin itxi badabe. 2.^{en} *Okin*
edo panaderuak, ogi barija euki biar badabe. 3.^{en} *Sas-*
tre ta jostunak eskontza baterako edo beste onen an-
tzeko gauzarako bialfekua dan jantzija amaitu ezin
badabe; edo bezeruai, alan-bialian, emoniko berbia
ezin bete badabe. 4.^{en} *Ugazabak aginduten* dabenian;
baña, al dala, beste bat bilatu biar da.

III) KARIDADIAGAITIK: Eñeten dagon etxeren bat
itzuli edo amatauten nai gaixuari lagunduten, zein
ezeuki edo pobreren batentzat bialian egon danak.

Mesarik ez entzute ta biar egitiaren ganian, gauza
bi adierazo biar dira: bata da onetan eztala ibili biar
norberen eta bai Pañoko jaunaren eretxiz, al daitela.
Bestia; ezin danian Mesarik entzun, edo biar egin lei-
kianian, ezta izango, esan dogun lez, pekatu; baña
Mesa santua izanik berez, eta Mesa nagosija ondio
geyago, gure arimen janarija; Mesarik entzuten ezta-
bena, ta batezbere jai egunetan biar egiten dabena,
arisku andijan dago arimia makaldu ta gorputzak goi-
tuta geratuteko. Onakuak aberiak lez, mundu onetako
gauzetara guztiz makurtuta bizi oi dira, lantegi edo
fabrika andijetan ikusten dana. Ta zelan gorputzari
janariren bat ezin emon deusagunian, beste bat bila-
tuten dogun; arimiarentzat bere, Mesarik ezin entzun
danian, nai dala eñeguak egitia, nai liburu on bat irakur-
tia, guztiz izango da egokija. Baña berez eztago oñek
lango obligaziñorik.

(1) Eztauke obligaziñorik baraurik egiteko:

1.^o EZIN DABELAKO: gaixuak gaixonduan, edo beste
edozelako makaltasun bat daukenak. Luzaro jan barik
ezin egon dirianak, esaterako, seindunak nai bulareko
umiak daukezanak; eta eskekuak izan ez añen, barau

LAUGAREN AGINDUA

Gurasoai dedu ta lotsa izatea

Senar emaztiak: ¿Erakutsi deutsezue alkareri txarto-gurarik arpegi gañatza *sañitan* ipiñita, berba mingañiak edo aseñetutekuak esanda, nai berbarik egin barik, luzaro, gauza utsakaitik egonda?

¿Irabazi dozuna emon deutzazu emaztiari;

eguneko jatordu nagosijan, baraua gordeteko biar leuken beste jan ezin dabenak.

2.^{en} OPIZIJUAGAITIK. Eztauke obligaziñorik baraurik egiteko: nekezaliak, atxurlarijak, argiñak, ireltzeruak, arotzak, efementarijak, zapatarijak, okin edo panaderuak, bidaldi luze bat oñez egin biar dabenak, eta beste onen antzekuak. Josliak, alan andrazkuak zein gixonezkuak, berez, eztagoz azkatuta; baña eurek, nai beste edozeñek ezin badabez bete euren egin biarñak, barau eginda, eztagoz biartuta barau egitera, ta bai ez egitera.

3.^{en} URTIAKAIT.K: Eztauke barau egin biarñik ogetabat urte bete eztabezanak; edo irurogeigañen urtia, asi dabenak. Garizuma guztijan (ezta domeketan bere), ta beste barau egunetan ezin lei jan okelarik. Baña okela buldiak emoten dau eskubidia añaña bakañik jan biar litzaken egun batzuetan, añain ordezt okelia jateko. Ezeuki edo pobriak, onetarako naikua dabe aita gure bat eñezetia bulda ordezt. Buldia daukanak artu lei okela-saldia ta gero okelia jatordu baten, buldiagaz okelia jan leikian egunetan.

ala gorde dozu gauza andirik taberna, kafe ta batezbe jokorako, zeure emazte ta seme-alabak gosez edo zoñez itxita?

¿Emaztiaren baimen barik aldendu zara luzaroko zeure etxetik? ¿Etoñi zara berandu etxera, emazteari aseñia ta umiai erakutsi txaña emoten deutsezula?

¿Eskurik jaso deutzazu, edo aseñaldi andirik emon, batezbe seiñdun dagola, edo biar gegiririk olakuetan eragin deutzazu? (1)

¿Matrimoniño santuaren kontrako kezkarik badaukazu?

Gurasuak: ¿Euki dozu ardura andi bat erakusteko zeure seme-alabai, ainbat lasterén erreguak, dotriñia ta dotriñiaren azalketa edo espelikaziñua, Mesia entzun-erazoteko, ta konfessau ta komulgau deitezan, ezaguerara eldu ezkerro, au da, zazpi urtegaz gitxi-gora-bera, Aita Santuak oraintzu agindu daben lez?

¿Lagun txañetatik aldendu dozuz?

Eñomerija, nai neska mutilak batzen dirian beste lekuren batera, zainduko dabezan lagun-

(1) Oñetxegaitik ainbeste sein galtzen dira, ta beste asko jayo erkin, indarga, ezetarako gauza eztiriala; edo beintzat izan biar leuken baño makalago: oritxe da gure enda ta izakera edeña galtzen daben sustrayetatik bat.

en bategaz izan ezik, juaten itxi deutsezu? (1)

¿Iluntzera ezkerro, batezbere alabia, etxeratu dozu?

¿Lau, bost urterik aurera seme-alabai, alkañegaz, edo senar-emastien gelan lo eragin deutsezu? (2)

(1) Diabruak sartuta dauko, zoritxarrian, euskalerrian eñomerijetako oitura, ainbeste arimen galgarria; ta batez-be baseñijetan zorotzat daukez aldenduten dirianak.

Baña oitura ori gora bera, egija da Eleixako Erakusle guztijak dirauskuena: lotuak dagozala gurasuak, euren seme-alabak pekatuko ariskuetaatik, al dala, aldendutera.

¿Gaurko eñomerijak bañiz, norentzat eztira pekatuko arisku? ¿Eta aurkituten dira gurasuak eñomerijak galerazo baxarian seme-alabai, euretara juateko zirikituten dabezanak!

¡*Kolokau* egin biar doguz! ¡Ederto *kolokcuten* dozuez askok inpernuaren erdijan! *Kolokauteko* eruan biar badozu alabia eñomerijarik-eñomerija, beyak ferijetara lez, ezta gauza asko. Gauza dana, etxian bere bilatuko dabe; gauza eztana, eñirik-eñi erabili añen, saritan geratuko da santuak jasteko, edo izango da ordi, jokolari, alper batentzat. Gari ona ganbaran bilatzen da; oña ta ona, apain-apain eginda, dabilen neskia, mostradoretako pañueluen antzekua da, iñok gura eztabena, edo gauza eztana. Obeto *kolokouko* zenduan ondo azita, eñirik-eñi arimen arapatzañe ta jentien bañegari erabili jagaz baño.

(2) Umiak gaur uste dan baño begi argijaguak dakañez: ¡Amaika umek santutasunaren bixilekua izan biar leukian etxian, euren eñubakotasuna edo inozentzia galtzen dabe, gurasuen konturik ezagaitik! ¡Oñek eztira gurasuak, euren bijotzeko zatijen, umien, erijotza-giñak dira! *Non sunt parentes, sed preemtores.*

¿Senar edo emaztegeyagaz alaba edo semiari bakarik egoten itxi deutsazu? (1)

¿Beste edozein pekaturako arisku edo okasiño anditik, al dozula, aldendu dozuz? (2)

¿Agindu onetan galerazota daukela ikutsen dozun gauzaren bat egin dabengan, atzeratuteko bestian agirakatu, zuñau edo jo dozuz?

¿Bialdu dozu, edo, juaten itxi deutsazu mutilari, premiña andi barik, eñi urunetara, diruapur bat ekartiañen, euren arimak eta ez gitxitan gorputzak eurak galtzeko ariskurik andijenagaz? (3)

¿Bota dozuz alabak otsein edo serbidutera,

(1) Onako gurasuak ezin egon leiz bakian euren kontzientzijan, diño San Ligorio jakitunak.

(2) Auxe da gurasuak euren seme-alabakazko daukezan egin birañetan neuririk laburñena ta zuzenena. Ikusi nun eukiten zenduezan gaztetan pekaturako ariskuak, antxe eukiko dabez zeuen seme-alabak bere. ¡Aldendu! Osterantzian baukazue zer ikusi Jaungoikuaren aurian.

(3) Mutil askok zerbaitakuak izateko, eta gurasuak Ameriketatik etoñiriko batzuen diruai begi argijegija ipiñita, artzen dabe asmua eurak juan edo semiak, txarago ondio alabak, bialduteko: etoñi dirianen diruai ainbeste begiratu barik, obeto pentsauko baleukie zelako bizitzia, ta batezbere zelako erijotzia Ameriketan askok eukiten daben, eta euren siñismen eta salbaziñua biar dan beste maite baleukie, beste ardurarik eukiko leuke onetan. ¡Noraezian baño ezta bialdu biar!

zelako etxian sartuten dirian, edo zelan dabil-
tzan begiratu barik?

¿Itxi deutsezu eurai jagokenagaz eta euren
denporan bixibide edo estadia artuten? ¿Gale-
razo deutsezu erlijioso nai abade izatia; (1) ala,
bestera, oretarako biartu dozuz?

¿Erakutsi txarrik emon deutsezu zeure birau-
akaz, abade edo erlijionuaren kontra jardunagaz,
batari bestiari baño maitetasun geyago, bideba-
ga, erakutsijaz, etxeratute berandukuakaz, edo
beste zelanbait? (2)

Seme-alabak: ¿Egon izan zara etxian sarí-
tan bekoki astunagaz, berba banakak eta gogor
baño esaten eztozuzala, gurasuak bigun egin
áren?

¿Burlarik egin deutsezu?

¿Zematu edo amenazau dozu gurasorik be-

(1) Au pekatu astuna da, bidebaga edo eñazoe barik
egiten bada, naita kristiñau ontzat dagozan askok sarí-
itan egin. Onetan ez bakotxak bere buruari siñistu;
itundu konfessore jakitun, kontzientzija andiko bategaz.
Baña duala beragana seme edo alabia be, bere eñaso-
iak emotera. Bijari entzun barik, ezin erabagirik emon
lei zuzen.

(2) Emen ezañi dirian gurasuen egin bíañak, Eleixa-
ko Erakusletatik aterauak dira; euretatik juzgauko di-
tu Jaungoikuak. ¡A zein gitzi izan biar dirian, orduan,
salbauten dirian gurasuak! Baña beste aldetik gatxago
da gixonezkuentzat, eskondu barik Jaungoikuaren
aginduak gordetia.

tondoz, berbaz nai eskuz; bultzarik egin edo jodozuz? (1)

¿Erijotzarik opa izan deutsezu, euren ondasunak zeuganatuteko, edo nasayago biziteko? ¿Biraarik ezaíi?

¿Euren esanak egin dozuz, Mesatara ta beste gauza onetara juateko, lagun deungakaz ez ibilteko, arin etxeratuteko, ta beste onen antzeko gauza astunak *gogor agindu* deutzuezanian?

Bete dozuz euren testamentu ta azken aginduak?

¿Irabazten dozuna emon deutsezu; edo gorputzeko zein arimako premiñetan lagundu deutsezu; berbarako, arin konfesauteko, sentzuna galdu arte itxaron barik?

Neba-añebak: ¿Asaíe andirik euki, edo luzaro berbia alkañeri ukatu deutzazue?

Ugazabak: Arduria euki dozu menpekuai gauza onak erakusteko, ta txañetatik aldenduteko, seme-alabakaitik esan dan lez?

¿Astun artu dozuz? Emon deutsezuz, eta laster, euren irabazijak?

¿Euren utsegitiak agertu dozuz, zegaitik eztagola?

(1) Onakuak ilteko agindu eban Jaungoikuak bere legian. (Exod. 21, —15). Bardin gurasuai birauak esartzen deutsezanak be. (Lev. 20—9).

Menpekuak: Bizi zara asárez otsein edo krijau zarialako, Jesus'ek berak esanik bere buruagaitik: Ez naz etoñi bestiak serbidu nagijen, neuk serbiduteko baño?

¿Zeure ardurapeko gauzak galtzen itxi dozu?

¿Denpora askorik emon dozu alpeñerijan? Ugazaben kontra jardun dozu, edo agertu ixilik gorde biar zan gauzarik?

¿*Botua* emon deutsezu Erlijiño ta urijaren alde geyen egingo dabenei, Aita Santuak diñuan lez; begiratu barik nok emongo deutzun diru geyago, nori zor deutzazun mesede geyago; zein dan adiskidia, zein auzokua, ta alanguak?

BOSKAREN AGINDUA

Ez iñor iltia

¿Iñor iñ, (1) zauritu edo jo dozu, gurariz, berbaz edo egikeraz?

(1) Uste dan baño sañijagotan gertatuten dana dau. Umia guztiz da biguna, batez-bere jayo baño len. Onakuai erijotzarik ekarten deutzana, jakiñen ganera, eskomulgauta dago. Baña konfesiñuan zuzenduten ez-tan gauzarik eztago; ez bada atzeratu oñegaitik.

¿Goñotorik badeutsazu inñori? (1) ¿Biraaurik ezañi?

¿Erijotzarik opa izan deutsazu zeure buruari; naigabe *txikijakaitik*?

¿Edan (2) edo jan dozu gatx egiteraño? ¿Beste zer-edo-zelan zeure edo bestien osasunari kalterik ekañi deutsazu? (3)

¿Lagun urkuen arimiari gatxik egin deutsazu, pekaturako bidia emonda, berbaz, kiñuz, edo egitez; kalian, plazan, taberna, kafe ta beste batzañetan (4); eta, ondio txaraño dana, umiai nai beste erubako edo innozientia, begirik aigitu deutsezu?

(1) Goñotua eztan gauzia, edo beintzat astuna ez-tana, pekatu anditzat artuta, atzeratuten dira ez gitxi konfesiñotik: esan gustia, dan lez, konfessore jakitun bati.

(2) Mozkortijen azkena geyenian da zoro-etxe edo bide ertz bat, mundu onetan; eta bestian inpernua.

(3) Gauza gustijen Egiliak emon deuskun bizitzia kendutia edo norberaren burua iltia, ezaubera osuaz egin ezkerro, gaiztakeri arigañi ta kristiñau artian sinistu bere ezin leyena da. ¡Jaungoikuari berari bere eskua kendu gura izatia! Ori egiten dabena, pekatu ikaragañiaz Jainkua iraindu, bere erija ezaindu eta betiko inpernua irabazten dau. Erázo andijaz, Eleix Ama Santuak aginduta dauko, ofelanguai leku bedeinkatuan luñik ez emoteko.

(4) Auxe da gaizbide edo eskandaloko pekatu andija. Beraitik diño Jaungoikuak: «*Animam pro anima*». ¿Arimia ostu deustazu? Zeure arimiagaz ordainduko deutsazu.

SEIGAREN ETA BEDERATZIGAREN AGINDUAK

Aragizko pekatuak ez egitia.—Inoren emazterik ez gura izatia

¿Atsegin txarrik gogoz artu dozu pentsamentuz, gurariz, berbaz edo egitadaz; bakarik, bestiakaz, eskonge nai eskonduagaz, edo personia eztanagaz? Esan ziatz, lotsa barik, Jaungoikuari lez, bakotxa zeinbat bidar, egunian, astian edo ilian gitxi-gora-bera, inor izentau baga.

Ganera autortu jazo jatzuzan beste argaltasun eta loikerija mueta guztijak entzutez, esatez (autu, ipuin eta kantak), ikustez (zeure edo bestien biloztasuna, estampa komedija, zinematografo); irakurtez (liburu, nobela ta enparauak); dantza, (1) mosuka, estutute, bultza, oratute, besarpetute, ziri ta beste aragizko atsegiña artzeko era guztijak. Bada, gauza bat jakin biar da agindu onetan, ezkontzaz ostian artzen dan

(1) Naste-yantza edo baltseua pekatu dan ala ez zeure kontsentziak esango deutsu. Ba pekatu egiten da: 1.º Ikutu txarrik egiñaz edo autu txarrik esanaz, nai gogo pentsamentu zein gurari loyai leku emonaz. 2'en Ikutu txarrik egiten itxijaz, naita norberak atsegiñik artu ez, zegaitik itxi ezpadauko; bada lapuñetan beste bati lagunduten deutsanak, berak ostu ez añen, pekatu egiten

atsegin txar guztija, baldin ezaguera ta borondate osua badagoz, dala pekatu astuna. Eztago, orduan, zer miraritu ainbeste izatia kondenauten dirianak; ez, kondenauten dirianetatik eundik larogetaemeretzi pekatu onegaitik kondenautia, ezta Jaungoikuak pekatu ezain, ezin-esangari au alagiñan gorotau ta nekagari edo kastigorik arigarijenakaz antxinatik ona ziatu edo kastigautiak bere.

badau, lagundu biarik ezpadauko, baita ikutu txarrek egiten iztia, zein dantzan zein beste edozelan, izango da pekatu astuna, naita norberak atsegin loirik artu ez. 3.^o Aragi-erainkera, zirkin edo mobimentuak norberen eruz eukiegaz. 4.^o Pekatuko ariskuetan norberen gurariz eta obligaziño barik egonagaz. Eta ¿dantza nastu edo baltseoa dala-ta pentsamentu txarretan etzara yausten?

Izan lei, batzuk-batzuk batera ez bestera pekaturik ez egitia. Baña batu aldra andijan estu-estu neska buruariñak, loikerijaz eta ez gitxitan ardauz beteriko mutilakin, soñu, kanta, jantzi nasai ta beste aragijaren biztugari guztijak dagozan tokijan; ibili ordu bat edo bijan loikerija baño ez ikusi, ez entzun, ez bilatzen eztala; eta alan da guzti bere pekatu astunaz loitu barik urteten dana, bene-benetan edo da aingerua edo arija.

Ofetxegaitik ezin siñistu dot, jolastutia baño beste asmurik eztaukela diñuen guztijak, egija autortzen dabela; bada zartzaruan edo ezkontzeko egiten daben autorkuntzan, esan darue naste-dantziagaitik: Bagenkijan gauza ona etzala, baña, igaztiak izan! Egin daigun eztala orduan pekatuan jausten, baña ¿zelako irudijak sartuko jakaz buruan? ¿Zelako gogo edo pentsamentu, gurari ta pekaturako makurtasuna etxako ortik.

ZAZPIGAREN ETA AMARGAREN AGINDUA

**Ez ostutia.—Ez inoren ondasunik
(bidebage) opa izatia**

¿Ostu dozu, edo ostuteko gogorik euki dozu?
Saldu-erosijetan bidebageetasunik egin dozu:
gauza eztirianak salduta, edo onak txarraz
nastauta, bestiak oi daben baño goraguan emon-

sortuko? Alan ikusten dira dantza-zalietatik eunetik
lau eztiriala aurkitzen pekatu astun barik. Balak ge-
tan gorputzik aña arima, ilten dabez naste dantza mada-
rikatu onek. ¡Bai! Aragijak asten ditu naste-dantzak,
aragijak daukaz onian, eta aragijak jaraituten deutse.
¡Kendu aragija! Ta munduko gauzarik zoruenak lez,
bertatik kenduko dira naste-dantza guztijak. Oretxe-
gaitik bilatzen dabe naste-dantza-zaliak gaba, bakar-
tasuna, edo erbestia.

Gorputzeko osasunari bagayagokoz izenbat gaixo
eztira batzen olako dantzetan nekatu, ixerditu ta ez
gitxitan etxerakuan bustita!

¿Ta euskaldunak euki munduko dantzarik edereña,
ta wals, habanera ta beste eñi usteldurikuetatik artu-
riko dantzak geure artian sartu, geure ixakera indar-
tsua galdu, ta gorputzen ostian arimak inpernuratze-
ko? ¿Nun dira agintarijak? ¿Nun gurasuak? Gurasuak
dira geyen egin leyenak, eta oretarako egin-biarik
astunena daukenak.

¡Bai! Konfessore, sermolari, agintari ta batez-bere
gurasuak diranak alkar artuta, alegiñik andijenak
egin biar dira diabruak, askotan ardau-saltzaliakin bat
eginda, geure artian sartu deuskuen erbesteko oitura
gorputz-arimen ondagarri au, ainbait lasterren euskal-eñi
maitetik bere tokira botateko.

da, neuři txikijaguak eukita, edo jakiñen ganera osturikua erosita?

¿Jokuetan tranpaz ezer irabazi dozu?

¿Testamentu ta beste azken-aginduak bete dozuz?

¿Zorik, al dozula, garbitu barik badaukazu?

Kalterik, jakiñen ganera, egin dozu?

¿Ostu nai kalterik egiteko agindu, edo orotarako biderik emon, edo zelanbait lagundu deutzazu?

¿Osturikua, edo jakiñen ganera egiñiko kaltia, al-izanik, eztozu biurtu edo ordaindu? (1)

ZORTZIGAREN AGINDUA

Guzuřik ez esatia. Inōri egin eztabenik eze zartia

¿Guzuřik esan dozu? (2)

¿Beragaz inōri kalterik ekaři?

(1) Alan bada, pekatu gustiak artez esan eta konpesiñuan-agertutia bakařik, ezta uaukua, benetako asmu eta gogua ezpadago, ostu dabena eta egin dan kaltia, al daitela, biurtuteko asmu eta propositua ezpadauko: bada, konpesoriak, Jaungoikoaren izenian pekatuak parkatu leiz, baña izango da ori, oztu dana biurtuteko gertu badago. Ez, bada, ořegaitik atzeratu konpesiño on bat egitetik; bada konpesoriak lagunduko deutso, pekatutik urten eta pekatarijk euki leizan kezka gustijetatik azkatuteko.

(2) Guzuřik ezta esan biar purgatorijoko arima

¿Eregi edo jaso deutzazu inñori guzuzeko gauza astunik?

¿Murmurijan egin dozu bestien gauza onak txartzat artuta, txarrik geituta, onak ukatuta, edo bestiak goratuten dabezanian ixilik, asmoz, geratuta?

¿Murmurijan dabiltzanai auferapiderik emon deutsezu itaunak eginagaz, edo arpegi argija erakutsijaz?

¿Kartarik edegi dozu, jakiñik gauza astunen bat daukala, edo txartzat jaubiak artuko dauela?

¿Bata-bestien kontra entzunikorik esan dozu, alkarren artian asaria sartzen dozula? Ixen on edo kreituaren kontrako gauzarik esan dozu, naita egija izan, zabaldu bakua danian?

¿Inñoren kontra uste edo juzgu txarrik euki dozu uskerija bategaitik?

¿Bestien ixen ona galdu dozunian, naita egija esan da, biurtuteko alegiña egin dozu, esanaz, berbarako, oker esan zenduala; edo beste gauza on bat bere alde atarauta?

guztijak ateratiañen bere, ainbat gitxiago gauzak *er-emedijetiañen*: onetarako oba da eskutau egija.



Jaunartze Santua

Bein arimak konfesiñuan garbitu ezkeru, guztiz da ona, naita obligaziñorik ez izan, Pasko-aldijan izan ezik, Komuniño Santuan gure Jaun eta Jaungoiko andija artutia, grazijan sendatuteko, egin deuskuzan mesediakaitik eskeñak emoteko, pekatuakaitik parka eskatuteko, ta beste gura dan guztirako; bada, Sakramentu santu au, Jaungoikua berbera, bere aberastasan guztijakaz eukirik, danetarako da esan leikian baño obia.

Baña, ¿nor da, Sakramentu santu onegaitik, biar dan lez, berba egin dayana? Kerubiñen adin zolija, Serapiñen borondate sutsua, Aingeruen miña biar litzakez oretarako, eta elitzake naikua izango. Ipiñi eban Jaungoikuak bakar-bakarrik adierazo lei, jagokan bestian.

Alan da guzti berē, ona izango da zerbait esatia; oba dalako, San Agustiñek dinuan lez,

gauza andi onegaitik zerbait jakitia, munduko gauzetako jakiturija andija baño.

¿Zer da, bada, Altarako Sakramentuan artzen dana? Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputza berbera, bere Odol, Arima ta Jaungoikotasun guztijagaz.

Neuri guztijen ganetik gu maite izanik, ez jakon eretxi naikua ogetamairu urtian geure artian, geutariko bat eginda, bizi izatia. Bere Aitagana juan biar eban lez, aurkitu eban modu bat jakituri, maitetasun eta alizatez beterikua, bere Aitagana juan aŕen, geugaz betiko ego- teko.

Oretarako azkenengo apal-orduan, arturik bere esku santuetan ogi-zati bat, jasoten ditu begijak bere Aita zerukuagana; ta eskeŕak emonik, bedeinkatu, zatitu, ta emoten deutse apostoluai esanaz: «Artu, ta jan egizue guztijok, bada auxe da nire Gorputza.» Ta edontzi edo kalixan ardaua ipiñita: «Edan egizue emen- dik guztijok, bada auxe da Testamentu Bariko nire Odola, zuekaitik eta mundu guztijagaitik ixuriko dana, pekatuen parkamenerako».

Ezta Jaungoikuaren berbia, guria lakua, utsa; guk eztoigu naikua esatia; gauzak egite- ko, eskuak erabili biar doguz. Jaungoikuak, bariz, esan eban: «Egin bedi», ta beste barik

zerua, luña, itxasua ta eurretan dagozan gauza guztijak, ezer-ezetik atera ebazan.

Bada, berba indartsu ta eragile oregaz esan eutsan eskuetako ogijari: «Auxe da nire Gorputza»; ta beste barik; len ogi utsa zana, Jesu-Kristoren egijazko Gorputz egiñik geratu zan.

Zelan au izan leikian esango deustazue; eta nik bere itanduko deutzuet zelan izan leikian berba utsez, gauzak ezer-ezetik ateratia. ¿Zein dala uste dozue gatxago, gauza bat ezerezetik ateratia, ala len munduan dagona beste baten biurtutia? ¿Ezer ezetik atera ziñai gauzarik? Ez; au Jaungoikuarena bakañik da; bañiz gauza bat bestian biurtutia, egunoro egiten dozuena da. Artzen dozue fosforua, ixioten dozue, ta fosforuaren lekuan sua geratuten da. Eñe tabakua, ta biurtuten da su, ta sua auts. Eta esan gura dodana uñeragotik joten dabena; jaten dozue ogija, ta ogi ori zuen gorputz biurtuten da.

Zer dauko, bada, orduan, zer miraritu, Jaungoikuak ogija Jesu-Kristoren Gorputz biurtutiak?

Gogoratuizue lenengo gixonaren gorputza nundik atera zan, bustin zati batetik. Baita bakizue Jesu-Kristo beraren Gorputza bere, lenengo aldiz, Ama Birjiñiaren odol apur batetik

egin zala. Alan bada, Ama Birjiñaren odola be-
ronen eñai garbijetan, Jesu-Kristoren Gorputz
biurtu eban lez, sazerdote jaunaren eskuetan
bere biurtuten dau ogi apur bat Jesu-Kristoren
Gorputz gure Jaungoiko andijak.

Baña ogija Jesu-Kristoren Gorputz bizi biur-
tuten da. Jesu-Kristoren Gorputz bizijak bañiz
bere Gorputz, Odol, Arima ta Jaungoikotasun
daukaz: aur bada, zelan len ogia eguan tokijan,
geratuten Jesukristo gure Jauna oso-osorik,
bere Gorputz, Odol, Arima ta Jaungoitasun
guztijagaz.

¿Zer egiten da, bada, diñozu, ogija? ¿Nora
juan da? Ta ¿nora juaten da, erantzuten deu-
tzut, jaten dogun ogija, gure gorputz biurtuten
danian? Inora bere ez; bata bestian biurtuta ge-
ratuten da.

Eztago, bada, orduan, ogirik ostija santuan,
bein kontzagrau ezkerro: lengo ogija Jesu-Kris-
toren Gorputz biurtu da.

Oregaitiño bere ostijak ogi - antza dauko,
ogi-margo edo koloria, ogi-dasta edo gustua;
Jesu-Kristok gura izan daualako, ogirik egon
ezañen, ogijaren antz, irudi ta ganerantzeko
guztijak gordetia, eurakaz estaldutiañen bere
anditasun eta argitasuna. ¡Gure erukañiak os-
terantzian! ¿Nor asartu beragana uferatu ta ar-

tzen, Tabor'ko mendijan lez eguzkija baño argijago agertuko balitz gure artian?

Sakramentu Santu onetan siñistu biar da ondio geyago: ostija guztijan baxen osorik dagoa Jesu-Kristo gure Jauna ostijaren zatirik txikijenian. Ispilu andi baten aurian geratuten zare: zeuen irudi bat baño eztozue ikusten; ispilua erdibitu, ta erdi bakotxian dago irudi bat, ispilu osuan eguan lakua. Erdi bakotxa zaitu, ta eukikozuez lau irudi, ta alan añera.

Bada onen antzeko bat Sakramentu Santuan bere gertatzen da.

Fediak Sakramentu onetzaz erakusten deuskun guztija siñistuteko biartuak gagoz, ereje edo siñistausle izan eta kondenatiaren beian. Oretarako Jaungoikuaren berbia baño ezta biar. ¿Berak diño alan dala? Bada alan da. Ezta Jaungoikua, gixona lez, utsegin leyana, ez guzurtija. Gauza guztijak dakiz; eta oregaitik Berak uste dabena, alan da. Bañiz, guztiz ona ta santua dan aldetik, berak uste dabena baño ezin lei esan: orduan berak diñuana, egija da. Lenago igaroko dira zeru-luñak, diño Jesu-Kristo gure Jaunak, nire berbak uts emon baño.

Eztago, bada, Sakramentu onetako siñismena egijaztuteko, zetan miraririk eskatu.

Oregaitiño bere, mirari asko egin dira oře-

tarako. Ta andijena ¿bakizue zein dan? Sakramentu Santu au sañi ta ondo gertaurik artzen dabena, arisku andijeneñ artian, sasoirik txar-enian, pekatu astunik egin barik euren bixitza guztijan egotia, mundu onetako gauzarik aintzat artu barik, beti Jaungoikuarenak gogoratu ta maitetzen, aingeruak baxen garbi, pozik eta atsegiñik andijenagaz, egunoro ikusten dogun lez bai bakartegi edo konbentuetan, bai munduaren beraren erdijan.

Beste mirari asko gogora-erazoko neuskizue; baña ez luzatutiañen, bat baño ezteutzuet esango, gaurko egunian bere gura dabena ikusi leyana, miraririk oin eztagola esan deyen.

1597'gn. urteko Mayatzian Alkala'n, emon eutsazan gure Jesus'en Lagundiko A. Juan Jua'rez'i gixon batek, moruak elexetan osturiko ostija batzuk. Itundurik A. Juan Juarez teologo andi A. Gabriel Vaskez'egaz, onen eretxija izan zan etziriala iruntzi biar ostija arek, moruak lupu edo berenoz beterikuak izan eikezalako; ezta jaurti bere kontsagrauta egon biar ebela-ta. Alan ipiñi ebezan ontzitzu baten altara nagosijan, erlikijen onduan.

Ilabeteren bat baru ustelduten asten dira ostijak kopoian. Il batzuk igarota, juan zan A. Juan Juarez ostija arek ikustera, ustelduta

egongo zirialakuan, pixiñara botateko. Edegi-
ten dau ontzitzua, ta ara nun ikusten dauzan
ez usteldurik, egon biar zirian lez, zuri, eder,
egin-baři-antzeko baño.

A. La Palma zan orduan probintzija atako
nagosi, eta gaur bere entzute andikua España
guztijan. Aginduten dau, bada, ostija santu
arek ipinteko altara atzian, bustitasun andi bat
eguan tokijan. Ipiñi ebezan, baña eurakaz ba-
tera beste ostija kontsagrau bakuak. 1609'an,
au da, amabi urte igarota, ikusi ebezan; eta
aurkitu zirian konsagrau bakuak, danak usteldu-
ta; kontsagraurikuak, bařiz, zuri-zuri.

Gixon asko ekaři ebezan lekuko edo testi-
gutzat. Irakuři dot zer diñuen Unibersidade edo
ikastola nagosi ospetsu atako teologo, filosofo,
mediku, letrau ta beste jakitunik andijenak:
miraririk ukatu ez, eztabaidan ipinten dabenik
be eztot aurkitu.

Ordutik ona urteoro gogora - erazoten da
mirari ori Paskotik boskařen domekan, eta osti-
ja santuak egin-bařijak baizen zuri, erakusten
dira.

¿Jaunartzera zelan eldu biar da? Gauza bi
dira nai-ta-nai-ezkuak: bat gorputzaren aldetik,
bestia arimiarenetik.

Gorputzaren aldetik biařekua da baraurik

egotia, gabeko amabijetatik auñera ezer yan ez edan barik (Elexakuak artzeko ezpada), ezta osagañi edo botikarik artu bere. ¿Da zerbait artu badau, zer egiten daben jakin barik? Ausi dau baraua, ta ezin jaunartu lei.

Oyetatik urteniko odol apur bat, edo agin-artian geldituriko ondakiña iruntsi añen, ezta austen barau au; ezta lapikua ikusteko salda apur bat aguan, iruntsi barik, artuta bere: zigaruagaitik bere ez.

Izanik ain bialekua gaxuentzat gure Jauna sañi artutia, euren neke ta atsekabiak iraupenaz eruateko; ta gaxo asko baraurik egon eziñik, Aita Santu Pio X'ak: arin osatuteko ziurtasun barik, ila bete gaxo daruanentzat, emon dau eskubidia konfessoriaren baimenaz gure Jauna artzeko, astian biritan, etxian dagonian edo Mesia etxian esateko eskubidia daukenak; eta ilian biritan, beste guztijak, Jaunartu baño lenago edari antzera zerbait artu añen.

Ezta pekatu ostijari agiñakaz ikututia, ez Jaunartuta gero txistua botatia; oba izan añen ez botatia, zur-zapi edo pañuelora izan ezik.

Arimiaren aldetik grazijan egotia biar da; eta pekatu astunian dagonak, grazija ori, aldala, konfesiñuaren bidez jeditxi biar dau.

Konfesauta gero gogoratu añen pekatu as-

tunen bat, eztago ardurarik; Jaunartu, ta uřengo konfesiñuan aztu jatzun pekatu ori autortu.

Asko, asafe edo beste utsegitetxuren bat daukenian, estutu ta atzeratuten dira. ¡A ze oba litzakian, Jaungoikuari parka eskatu, gořotau utsegite ori, atera lupu edo berenua, ta bake-bakian Jaunartutia! ¡Amaika, ořen antzeko akiakula edo atxakiakaz, jaunartu barik geratuteko, atzeratuten ditu diabruak! Kendu danak, eta uřeratu Altarako Mai Santura albait sarijen! Eztago gauza oberik, geldi-geldika Jaungoikua maitetu, mundua gořotau, bijotza garbitu, arimia baketu ta zeru asko irabazteko.

Pekatu aztun ziuřik ez eukitia naikua da, esan danez, arimiaren aldetik, Jaunartuagaz grazija irabazteko. (1) Baña geyago irabazi gura dabenak, eta lotsa apurtxu bat daukan guttijak, obeto gertuteko egin biar dau alegiña. ¿Etzeunkie al dozuena egingo eřege edo bes-

(1) Oba baño obeto litzake arima on eta Jaungoikuaren grazijan geyenez dagozanei, auxe buruaren baruan sartzia: Jaunartu leikiela, pekatu astun ziuřik euki ezik. Bada onetariko asko, pekatu astuna egin ete-dabelako ezta-baida bat jatorkeneko, ikaratu ta atzeratuten dira Jaunartzetik: ate eřaza diabruarentzat. Gura badabe konfesau, konfesau daizala, konfesoriaro gogait erazo barik; edo damutu daizala. Baña jakin deyela bake-bakian Jaunartzera uřeratu leikezala. Pekatu astunetan jausten dirianak, ondo egingo dabe, naita biartuak ez egon, olako ezta-baidan konfesetia.

te jaun andiren bat zeuen etxera baletortzue?

¿Zer da, bada, egin biar dana?

Nor datoñen, nogana ta zetara, gomutau astiro, ta biar dozuena ortik aterako dozue.

Eguneroko Guzti-aztermena

Santuak eta ontasun andi batera elduteko sayatu dirian beste guztijak, antxiñakuetatik asi ta gaur arte, erakutsi ta egin oi dabe egunian-bein, gitxijenez, egun atako pekatu ta beste edozelako utsegitien aztermen arduratsu bat; pekatuak gitxituagaz, Jaungoikuaren adizkidetasunian auferatu ta bere maitetasunian ilteko neufirik ziuñena lez. Baña San Iñaziok, bere eskuetan artu ebazan ontasunerako beste gei askori lez, emon eutsan berarizko marka bat; eta ara emen, berak agintzen daben lez, zelan egin biar dan aztermen òri.

Bost atal daukaz: 1.^a *Eskeñak emon*. Eskeñak emoten deutzudaz, Jauna, Jesus'en Bijotz eta Ama Birjiñiaren bitartez, egin deustazuzan mesede andi ta ugari guztijakaitik; eta batez-bere sortu, diabruaren menpetik zeure Odolagaz erosi, kristiñau egin, eta erijotzatik jagon nozulako, pekatuan nenguanian inpernuko sugařetara jaurti barik.

2.^a *Argija eskatu*: Argitu, Jauna, nire adi-

mena, ezagutu daidazan ainbeste meseden ordezt gaur egin deutzudazan utsak.

3.^a *Aztertu.* ¿Itzartorduan jaso dozu Jaungoikuagana zeure bijotza? ¿Éreguak egin dozuz? ¿Zelan? Erabagi dozu utsegite nagosijan gaur ez jaustia? ¿Biraunik esan dozu? ¿Mezia entzun dozu, al dozula? ¿Ordua entzueran esan dozu?

Neure Salbagila maitegarrijaren Bijotza!

Gartu ta geitu zeure maitetasnnian nire bijotzotza.

¿Esan dozu saritan egun baruan éregu laburau, batez-bere ziltza edo tentaziño aldijan, bake-bakian? Jan-auñeko ta osteko éreguak egin dozuz? ¿Érosarijua? Egin biar edo obligaziñuak zelan bete dozuz? ¿Etxekuakaz zelakua izan zara? ¿Asaratu zara, edo bestiai asaratu eragin deutsezu? ¿Pentsamentu, berba edo egikera txarrik euki dozu? ¿Guzurrik esan? ¿Murmurijan ibili? ¿Añokerijarik? ¿Bestien gauzetan sartu?

4.^a *Damutu:* Ara, Jauna, gaur bere, zelako pekatuak egin deutzudazan, enebala geyago egingo berbia emon añen. Baña ezagutzen dozu nire argaltasuna-ta, zeure neuri-bako ontasunagaitik, parkatu gaurko ta bixitza guztiko pekatuak bere. Damu dot, Jauna, pekatu egiña, zeure Bijotz samur, neuganako maitetasunez

betia, arantzaz zulatu deutzudalako, ta neure buruari ekañi deutzadazan kaltiakaitik.

5.^a *Erabagi*: Ez nire indañai begiratuta, baña bai zeure laguntasunagaz indartuta, erabagiten dot, eztodala auñerantzian onako ez besteriko oben eta pekaturik egingo. Aldenduko naz jausi-erazo deusten bide ta lagunetatik, eta artzen dot asmua, eria dodanian autortuteko. (Eta esan gero): Jesukristo ñeure Jaun, Jaungoiko ta gizon egijazkua, neure Egile ta Salbagilia: zariana zarialako ta gauza guztijak baño maitiago zaitudalako, damu dot Jauna, damu dot bijotz-bijotzez, zu iraindua. Asmo sendua artzen dot ez geyago pekaturik egiteko, Zu irainduteko bide guztijetatik alde egin, autortu ta oben-nekia betetako. Amen. (1)

Aztermen onetan ordu-lauren bat emon oi da. Ezin badozu ainbeste, egin beintzat bost miñitu.

Banako-aztermena

Zein birañekua dan: Banako-aztermena pekatu nai utsegite batena da.

(1) «Neure Jesu-Kristo Jauna», biotz biotzetik esan barik ez oeratu; osasunagaz etzan añen, erijotziak pekatu astunian artu, ta inpernura jaurti etzaizan; eta edozein erijotzako ariskutan, konfesorarik eztaukazunian, maitetasun-damua, Jaungoikuaren grazijan ipinten gaituzana, egiten, oitu zaizan.

Ze biareko ta egokija dan jakiteko, gogoratuizu, Jesu-Kristo Gure Jaunak, Ebanjelijuan diñuan lez, solo guztija bedar txarez beteta daukanak, dana batera garbitu gura badau, gogaitu ta alpeferijari emon baño ezabela egingo. Ezta eizari edo kazadoriak bere, eper-aldra bat artzeko, danai batera jaurtiko baleutse, bape eleuke artuko; ta oretxegaitik banan artzen ditu. Griña txarakaz ainbat geyago egin biar da au; bada bakotxak daukaguz griña bat, bi edo geyago erudunak, geure utsegite geyenen sustrayak; eta eurak kendu ezkerro, beste guztijak bere ilagaz juango dira: alantxe antxiñako guda edo geretan bere jaurtiten eutsen soldaunagosijari, berau eratsi ezkerro, beste guztijak iges egiten ebelako. Ganera, San Inazio'k diñuan lez, gure arima inguruan dabil diabrua, soldaunagosi bat artu gura daben gaztelu inguruan lez, alde guztijetara begira, nundik ezezago sartu leikian.

Orduan, geuk bere, geure arimia jagoteko egin biar doguna da, gaztelu-zaintzaliak egiten dabena, begiratu inguruetara, nun dagon sartulekua, edo beintzat nundik ezezago sartuko jakun arerijua; ta antxe ipiñi berarizko arduria.

Begiratu, bada, ze tokitik sartu jatzuzan

oñarte arerijuak zeure arimako gazteluan, eta zaindu sar-tegi ori alegiñik andijenagaz.

Oretarako da, bada, banako-aztermena, ta ortik atara leike ze egokija dan salbateko. Agaitik San Inazio'k ez bakarik eruan oi eban banako aztermen au ardurarik andijenagaz il zan egunerarte; baita emoten eutsen pekataririk andijenai bere, eztagolako oitura, ez griña txarik, beragaz kendu edo goitu ezin leikenik: artu ta eruan dayela, bada, zintzo, salbau zein ondu gura daben guztijak.

Zelan egin biar dan: San Inazio'k diñuanez: 1.^o Goixian erabagi eguerdirarte, olako pekatu edo utsegitian ez jaustia. 2.^{en} Eguerdijan, argija Jaungoikuari eskatuta, aztertu zenbat bidar jausi zarian, eta erabagi gaberartian ez jaustia. 3.^{en} Gabaz ikusi ostera be zenbat uts egin dozuzan eguerditik ordurarte.

Banako-aztermeneko aldirik egokijena da, guzti-aztermena egiten danian, uts-egitiak aztertuten asi-aufetxuan.

Geigarijak: Geigari batzuk dakaz San Inazio'k banako-aztermen au obeto egiteko. 1.^a Kendu gura dan pekatu nai uts-egitian jausten dan bakotxian, ipiñi eskua bijotzian, bestiak ezta kuzela, parka eskatzen Jaungoikuari. 2.^a Bardindu aratsaldeko utsegitiak goixekuakaz,

egun bakotxekuak auřegunekuakaz, aste batekuak lengo astekuakaz; eta gitxituagaz ete-zu-azan begiratu. Bardintza au egiteko, ipinten eban San Iñazio'k zazpi leıo edo eřaya bikotxak, astekozazpi egunetako goiz-ařatseko banako aztermen bijentzat. Baņa gaur obeto zenbatuten dira eřosarijo garau batzuk, gora-ta-bera erabili leikezanak, jake-bařutik eruanda.

Au banako-aztermena, San Iñazio'k agintzen daben lez egin gura danian. Ainbestera elduten eztiranak egin leyena da, goixian-goiz erabagi pekatu edo uts-egite aretan eztiriala jausiko; ta, gabaz, oerakuan, begiratu jausi ete-dirian.

Bixibide edo estadua

Zer dan bixibide edo estadua: Eřege, agintari nai lantegi edo fabrika bakotxeko nagosijak aututen dabezan lez euren menpekuak, ixentaurik batari egin-biar bat, eta bestiari bestia: alan Jaungoiko arduradunak bere eukirik bere auřian miloiak bidiak gixonak euren zori-jontzara zuzenduteko, deituten deutse batari bide batera ta bestiari bestera, baņa beti bakotxaren salbaziņorako egokijen era. Bada, Jaungoikuak bakotxari bere salbaziņoko biderik

egokijenera egiten deutsan dei au da *bokazi-ñua*, ta *bixibide* edo estadua bide ori beori.

Ze birañekua dan bixibidia ondo ezagutu ta aututia: Emendik atera lei ze gauza astun eta ardurazkua dan Jaungoikuaren dei au adiketaz edo atentziñoz entzun, eta bakotxak bere bixibidia argi ezagutu ta sendaro jañaitutia. Bada Jaungoikuak ixentaten deutsan bixibidia artzen dabenak aurkituko dau bixibide oñetan bere salbaziñoako bidia leun eta gozatsua, eta jaritxiko dau bide oñen azkenian dagon salbaziñua. Bañiz norberen burutaziñuari Jaungoikuaren deyari baño obeto jañaiturik, berak gura daben eta ez Jaungoikuaren gogoko bixibidian sartzen dana, ibiliko da, bere bidetik urteniko su burdi edo trena lez; eta eltzen bada bere, nekez elduko da azken zorijonekora.

Bixibidiak zenbat dirian: Iru dira bixibide nagosijenak; eskontzakua, eskontzaga edo solterutzakua ta erlejiñokua. Siniste-ausle edo erenje izatiaren beian erabagita dauko Eleiz amak sinistutia, iru bixibide onetatik eskontzagakua (baldin garbitasunaren maitetasunez artzen bada), obia ta goratuagua dala, eskontzakua baño, ta erlejiñokua, eskontzagako utsen aldian.

Zelan ezagutuko dan bakotxa-bere bixibidia: Zetarako bakotxari deituten deutsan Jaun-

goikuak ezagutzeko, San Inazio'k agintzen dabena da: 1.º Ipiñi begijen aurian bixibide barta nai bestia, barbarako ¿zer izan biar naz, eskotzaga ala eskondua? Eskondu biar banaz, ¿nogaz? ¿Urlijagaz, ala berendijagaz? 2'n. Gogoratu zetako bialdu naberi Jaungoikuak mundu onetara, au da, neure arimia salbateko, ta artu oretarako onduen etoñiko jatan bixibidia. Ez, askok egiten dabena, diño Santuak, erabagi aurretiaz eskondua izatia, ta eskontzan salbaziñua, zelanbait, bilatu. Au da bidia azken, eta azkena bidia egitia, Jaungoikuak gura dabentokira geuk juan bialian, Jaungoikua geuk gura dogunera ekartia, ta Jaungoikuari eskua artzia. 3'n. Eskatu Jaungoikuari ipiñi daidala buru ta bijotzian, bere goratasun eta neure onerako onduen etoñiko dana, aututia. 4'n. Begiratu ardura andijaz zenbat mesede jatortazan neure *salbaziñorako* eskondutetik, eta gero zenbat kalte; au egindakuan, aztertu, bestera, zenbat mesede jatortazan *salbakiñorako* ez eskontzetik, eta zenbat kalte. 5'n. Begiratu ze aldetatik dagozan mesede geyago *salbaziñorako*. 6'n. Auturik zeure bixibidia, eskiñi Jaungoikuari, berak bere autu ta sendatu deizun, bere goratasun eta zeure onerako bada.

Askok eztauke bururik ainbeste zegaitik edo

motibo aztertuteko. Bada orentzat dakaz San Inazio'k bixibidia aututeko beste era guztiz eñazak. 1.^a Egin kontu alde baterako ta besterako neuk daukadazan eñazoiak, ezagun batek ipinten deustazala, eskatuaz neure eretxija; ta bestiarri emongo neuskijon erabagija, neuretzat artu. 2.ⁿ. Iruditu ilteko arijan nagola, edo Juizijuan, Jaungoikuaren auriñan; eta orduan egin gurako neukiena, onixe egin.

Bixibidia artzeko San Inazio'k emoten dauzan erakutsi onek irakurita, egingo dau batek baño geyagok beragan: ize gitxi dirian bixibidia oretara artzen dabena! Alan da. Ija guztijak gaurko egunian jo begija neskiari eñomerijetan edo bestela apain-apain dagonian, begiratu gero, geyenez, dirurik ete-daukan; eta geyagoko barik, laatz-inguruan zelakua dan jakin barik, zelako ixakera edo genijokua; biargiña, ala alpeña; etxia auferatutekua, ala ganorabakua; eruapen andikua, ala bañu-estu, zitala; ixila, ala murmurija ta naste-zalia, ta batezbe erlijioño andiko, ala burua erakutsi ta ondo bixitia baño beste asmorik eztaukana dan, ala ez, ondolik, eta inguruak kontuz aratuta, ezagutu barik, asten dira alkar-ikusten, maitetuten dira, edo maitetuten dirialakua egiten dabe; ezkondu arte, dana ona; inok ezer esaten badau bere

kontra, ezin ikusija baño eztala; ezkontuten dira, abere bi ezkonduko balitzakez lez, aragija baño beste asmo barik; alkañegaz bixitiak agertzen ditu laster bakotxaren utsak, asaritzen dira, eruapenik eztago, bixirik ezin egin da, ta *desesperaten* dira. ¡Ai! Aragijak bakañik lotu ebazan; aragijak, gauzarik ustelkoñena izanik, galdu dau bijotzak eutsita eukiteko indaña, ta aur alkañegaz betiko bixi biar dirian bi, une baten bere alkar ezin ikusita. ¿Inpernu bixijagorik egon lei mundu onetan? Bada orixe da gejenian eñomerija ta ilunpietan, batezbepekatuen bidez, asmaten dirian ezkontzen sarija. Eta ain ugarijak izanik gaurko egunian onako ezkontzak, izanik ain gitxi Jaungoikuak ixentaten deutesen bidetik duazanak, eztago zetan añitu, ikusten badira ainbeste ain oker, burdin bidetik urteniko su-burdija lez, bilin balaunka euren bixitzako bidia egiten dabena, bide azkenian dagon inpernuko su-lezara jo arte.

ERLIJIÑO KO BIXIBIDIA

Ezkontzarako munduak, ikusi dogun lez, daukan arintasuna, bakañik bardindu lei Erlejiñorako erakusten daben atzerakuntziagaz; prai-

le edo monja juatia aitatu orduko, guraso, senide, adizkide baita konfesoriak eurak be ez gitxitan, asten dira esaten, gauza aztuna dala, ondo pentsau biar dala, zirikaldi edo pruebak egin biar diriala. Esan leike ezkontzia atsegin utsezko *jauja* bat dala, Erlijinua bañiz arantza ta atsekabez josiriko bixibidia. Ba eritxija emoteko-bestian bixitzak ikusita; ez azaletik munduak lez, bañu-bañutik, bijotzetik-bijotzera berba egiten dala baño, diñot Jaungoikuaren aurian, nekez aurkituko dala ezkonduen artian atsekabe andi bakorik, bixibidia aldaz gora egiten ez jakanik. Bestera eunetik bat eztozue aurkituko, erlijiosuen artian gozaro bixi eztanik, Jaungoikuak erlijioso izatera deitu eutsan egun dontsua onetsi edo bedeinkatzen eztabenik. ¿Eta batzuen eta bestien erijotzia zelakua da? Ikusi dabinari itandu.

Au mundu onetan bertan dauken desbardin-tasuna. Bañiz betiko bixitzarako, (eta auxe da geyen gogoratu biar dana, mundu onetako lau egunai, ziñisbako batzuk lez, beti begira egon barik) zeru ta luñaren artian dagon aldia baño andijagua da erlijioso ta osterantzekuen artian dagona.

¿Eta gurasuak mundu onetako ta besteko zorijontzatic euren seme-alabak alagiña alden-

du? Ez, ziñistedunak badira, ta benetan maite badituez.

Seme-alaben bokaziño edo deyari, érazo andi barik, jarkiten jakan gurasua, pekatu astunian dago, ta mundu onetan bertan eukiko dau sañitan bere pekatuaren érusari edo kastingua. Bestera, Jaungoikuagandik artu dabezan seme-alabak, Jaungoikuari biurtzen badeutsaz, eurak euren eskari ta nekiakaz jadtixiko deuto arimako salbaziñua, ta mundu onetan bertan ixen ona ta bakia.

Pruebak egin biar diriala, Erlijiñorako deya dauken, ala ez, ikusteko! Eta ezkontzarako deirik dauken, ala ez, jakiteko ¿eztago *prueba*-biañik? Ba Aita San Iñazioren esakunia da, ezaubide geyago biar diriala ezkontzara deitua dala jakiteko, Erlejiñorako dala jakiteko baño.

Zelan ezagutuko dan Erlijiñorako deya: Ezta éreza; baña itune edo kontseju onena da, dana agertu autor-entzule edo konfessore aitu bati edo geyagoi, ta euren esana itsuan egitia.

Zer-edo-zer esateko ara emen arau bat, eta Jesu-Kristorena berena: «*Qui potest capere, capiat*. Erlijiñoko bixibidia artu al dabentak, artu deyala». ¿Eztago erabagita Erlijiñokua dala bixibidietatik onena, berez? ¿Eta berez

onena dana artu al-izantik, txaraguaz naikotu?

¡Orduan (egingo dau batek baño geyagok) danok juan biar gara erlijioso! Danok ez; baño, duazanak baño asko geyago, bai. Luñaren gannian zabalduen dirian azijetatik, laurenak be eztira erneten. Olakoren bat gertatuten da Jaungoikuak bijotzetan ereiten daben Erlijioño azijagaz be.

Asko ezin izan leiz erlijioso, garbitasunik ezin gorde dabelako. Baña beste asko garbijak izan añen, edo osasunik ezaz, edo ixakera zitaleko, askoren artian etxe baten betiko bixiteko txararak dirialako, edo gogoñegija eritxirik Erlijioño bixibidia, edo gurasuak euren biaz izantik, ezin dira erlijioso izan. Alan da guzti be garbitasuneko bixitzia euki gura dabe. ¡Euki deyela! Mundu gaizto, ezer eztakijan, Jesus'en arerijuak ifi ta bañe egingo deutse, ezañiko deutsez ixenik lotsagañienak. Baña San Zipriano'k deituten deutse «Eleizako baratz edo jardioño lorarik edeñenak»; San Agustin'ek «luñeko aingeruak». San Krisostomo'k aingeruen euren ganetik ipinten ditu; Espiritu Santuak, bañiz, eztago barbarik, diño, griña txararak esijagaz, garbitasunian bizi dana, duin-ala, goratutekorik. Korinto'tararak garbitasunaren maitetasunagaz palagauta, eskontzia debekauta

eguan, ala ez, San Paulo'ri itandu eutsenian, erantzun eutsen. «Eztago debekauta. Baña itune edo kontsejua emoten deutzuet: danok, al-izantik, izan zaitezela, neu lez, eskontzaga edo solteruak; ba eskonduak munduko gogaketak darabiltz, zelan emaztia atsegindu; ta zati-tuta dago. Bañiz eskontzaga edo dontzeliak Jaungoikuagan dauko bere bijotza, zelan bera maitetuko daben, gorputz eta arima garbija izateko. Eskondu gura dabena, eskondu deila; baña aragijaren aldetik zirikaldi gogoñak euki-ko dabez onakuak. Asti gitxi daukagu: egin biar dana da, emaztia daukenak, ezpaleukie-lez; negañez dagozanak, ezpalegoz lez; atsegi-ñetan dagona, ez egondako beste, gerixia lez dua mundu au-ta».

San Paulo'ren berba eder onen ostian, etoñi deizala, gura badabe, basatzako aberiak baño asmo goratuagorik eztauken mundutañak ain-geruen garbitasuna irudikatzen dabenen kon-tra bañiketari. ¿Eñomatar siñisbakuen artian ain goratuak izan zirian garbijak, kristiñauen artian lotsagañi? ¡Baña alpeñik! Eguzkijaren argitasu-na, loren edertasuna, liriñuen zuritasuna baño edeñago ta maitegañiagua izan da, ta izango da, mundua mundu dan artian, gorputz-arimetako garbitasuna. Garbijak kantañko dabe Jesus'en

ondoren, Andra Mari guztiz garbija auřetiko dabela, bestiak ezingo daben kantu edeřa.

Aldatu ezindako Bixibidia Obetuteko Arauak

Bixibidia aldatu ezin dabenak, diño San Iñazio'k, erabagi dayela zelako biximodua euki biar daben auřerantzian. Ara emen geure biargin euskaldunak, benetan onak izan gura bada-be, euki leyen biximodua. Eta baldin bat-edo-bati aztuna baderitxo, eztaitelala alpertu; ba onetan, beste gauza guztijetan baño ondiño geyago gertaten da, lenengotan astuna ta gatxa erizten dan bixitzia, gauzarik ariñen eta atsegintsuena, oituagaz, urtetia. Ikusi ta esangozu.

Itzartu - aldijan jaso Jaungoikuagana zeure biotza, esanaz: «¡Neure Salbagila maitegarriaren biotza! Gartu ta geitu zeure maitetasunian nire biotz otza», ta erabagi banako-aztermeneko utsegitian etzariala jausiko. Buruz esan eskari batzuk, jantzi ta garbitzen zarian bitartian, eta gero egin Jesus'en Bijotzeko ta Apostolauko ileroko eřegutxua. Al badozu, entzun Meza Santua. Esan Agur-Marija, orduak emoten daben bakotxian, ganeraturik Jesus'en Bijotzaganako

éregu-labur edo jakulatorijatxu bat; berbarako: «Neure Salbatzale maitiaren Bijotza, gartu ta geitu zeure maitetasunian nire bijotz otza». Auxe berau esaizu bake-bakian, bape estutu barik, zirikaldi edo tentaziñua jatortzun bakotxian. Egin matordu-aufe ta osteko eskarijak. Érezau Érosarijo Santua, ta oerakuan aztertu utsik egin ete dozun banako-aztermenian, nai emen emoten jatzun biximoduan; edo beste utsegiterik euki ete-dozun; begiratzen dozula ardurarik andijenagaz zelan bete dozuzan zeure eginbiar edo obligaziñuak; onek ondo betetian dagolako batez-bere santutasuna; ta «Jesu Kristo neure Jauna» esan bijotzetik, batez bere pekatu astunik egin badozu.

Al dala, gogarte edo meditaziño ta irakurtaldi-izkitxuak egitia, ona baño obia da. Autor-tu edo konfesau, al dala, zortzijan bein, eta Jaun-artu al danik sarijen, Aita Santuak gura dabenez. Eta kontzeju gustijen ganetik, eta enparauak beragan batzen dauzana: Jaungoikuari eskatu, ta bakotxa zelakua dan ikusita, autu konfessore aitu, arima-zale, ontasunian auñera beti eruango zaituzana; jaraitu bere esanak, Jaungoikuaren aginduak lez; eta ez bestegana juan, al dala, urtian batzuetan ezpada.

¡Amaika Santu sortuko litzakez geure men-

di-tártietan, onako bixitzia eruanda, edo emen
ixentauten dirianetik al dana eginda!

NEKALDI EDO PENITENTZIJA (1)

Bitarikua da nekaldi edo penitentzija *bañu-
tikua* ta *atetiko* edo kanpokua. *Bañutikua* da:
norberen pekatuen atsekabia, auferantzian ez
eurak ez besterik ez egiteko erabagijaz, eta
auxe da salbateko biar-biañekua. *Atetikua* da
bañutikuaren jañaipen edo frutu bat, eta irutara
batez-bere artzen da. (2)

1.^o *Jatekuan*. Lañegitik kentzen danian,
ezta nekaldija, ta bai begirune edo tenplantzia.
Nekaldija da ondo jatorkunetik zerbait uñitutia;
ta zenbat geyago uñitu, oba, makalegi egin edo
gaixo azitxuren bat ezpadakar. 2.^{en} *Lo egike-*

(1) Oñarteko San Iñazio'ren erakutsijak apur bat azalduta
esan dira. Emendik auferakuak erderatik euskera ipiñiko dira.
Penitentzijaren ixenak berak dardar eragiten deutse gaurko jen-
tiari; ta penitentzija egitia, erijotzia ekartia da askorentzat. Baña
osalari aituen eretxija da eztabela ekarten gatxik, konfesore on
bategaz itunduta artu ezkerro (ain barik ezta ona penitentzija
egitia). Baruak bañiz gaixo askon osabide dirala, oraintsu eraba-
gi dabe osalari jakintsuak. Dana dala; penitentzijarik andijenak
egin dabezanak, luzaruen bixi izan dira.

(2) Diño batez-bere irutara, esango dabezan iru erak nek-
aldirako oituenak dirialako; baña nai jañita egoteko eran, nai txi-
tximurka eginda, nai beste miña eratara artu lei: gogua da biar
dana.

ran: Onetan bere ezta nekaldija gauza bigunegijetatik edo geyegitik kentzia; baña bai estalki egokijetatik bat edo beste kendu edo gogoragotxua ipintia; ta zenbat geyago kendu ta gogoraguak ipiñi, oba; makalegi egin edo gairxo azitxuren bat ezpadator. Egoki dan luari bere ez jako kendu biar; lo geyegi egiten dabena izan ezik, *erdira* etorteko. 3.ⁿ *Aragija nekataz*, au da, mingariren bat emonda. Eta egiten da *zilizijuak* edo alanbere ertz-zorotzak (beso, geri ta obeto istaretan) eruanda; *diziplina* edo sokaz zurauta; *zaurituta*, ta beste era askotako laztasunaz.

Egokijen eta iraunkorrena dirudi, gatzik egin barik min emoten dabena nekaldija, ta oretxegaitik soka me mingarajak, baña baruko gatzik eztaKarenak, dirudije onenak.

Jakitekua da atetiko ta aragizko nekaldi onek iru gauzatarako artzen diriala batez-bere: 1.^o Lengo petatuen kitu-biderako. 2.ⁿ Norberen burua goituteko, au da, aragija arimiaren agindura ekarteko ta beko - aldia goikuaren mendian egon dedin. 3.ⁿ Laguntasunen bat Jaungoikuagandik jadisteko, nai dala pekatuen damu bixija lortutia, nai eurakaitik, zein Jesus'en Nekaldi edo Pasiñuagaitik negar *egitia*, nai ezta-baida baten argitua izatea.

JAN-EDANIAN NEURĪJA GORDETEKO

Jan-edana geure bixi, osasun eta indařak gordeteko Jaungoikuak ipiñirikua da. Baña eginbiam astunetan, euretara zaletu gaizan, atsegin eta gozakarija ipiñi daben lez; alan egin dau jan-edanian be, bera irabazteko, biam egin daigun. Atsegiña izaten da onakuetan, gatza jatekuan dana, eruakarija.

Orduan ezta jan biar atsegin artzeko; ta bai atsegin artu, jateko. Alan, bada, utsegite ta okeferija egongo da jan-edanian, atsegiñagaitik bakarik artzen danian edo bixi, osasun nai indaren kaltez egiten danian; baita jan edo edaeran, ariñegi, nai gogo geyegigaz egiten bada. Atsegin artziagaitik bakarik jaten dabena; edo begijak eta gogo gustija jateko-ganian dauzala, arin-arinda, ta gustija iruntsi-biaman dabilena, aberia da, ez gixona.

Pilosopijak ta Teologijak erakusten deus-kuezan egi onetatik ataraten dau San Iñaziok: 1.^o Ogitan biar da gitxijen neurija, ez talako artzen ogijan ainbeste atsegin. 2.^o Edanian da oba neurtua izatia; alan, bada, begiratu zek

ondo egiten deutzun, artzeko; ta zek gaitz, jaurtiteko. 3.ⁿ Janarijetan batezbere izan biar da begiratuena, jateko adiñonak (bastuak) artuaz: edo onak badira, gitxi. 4.ⁿ Jaten dan bitartian iruditu Jesu Kristo gure Jauna dakusala apostoluakin jaten; eta ikusi zelan edan, zelan begiratu, zelan berba egiten daben, eta bere antzera egin; egon dedin adiña geyen Jesus' egan eta jatekuan gitxijen. 5.ⁿ Bestetan Santuen bixitzaren bat, edo beste egikixun nai arazo bat; onetan adi egonda, atsegin gitxijago artu dedin. 6.ⁿ Batezbere gogo gustija jatekuan dabela egon ezteitela, jagon biar da; ezta atsegiñagaitik arin-arinda jan bere; ta bai izan biar da bere buruaren jaube alan jatekoeran, zein neuriyan, igaro eztedin. 7.ⁿ Okeferijak kentzeko gustiz da egokija bazkari ta apal-ostian, goserik eztaukanian, erabagitia zenbat artu biar daben urengo matorduan, eta alan egun bakotxerako; ta gosiagaitik, ez zirikaldi edo tentaziñuagaitik, ez ortik igaro; ta bai edozein gurari oker ta arerijuaren esetsi goituteko, geyago artzeko buruak emoten badeutso, gitxijago artu.

**Espiritu On eta txarrik ariman
ipinten dabezan gora-berak zelanbait asmau
edo sentidu ta ezagutzeko arauak (1)**

1.^a Pekatu astunik pekatu astun dabiltzanai ipiñi oi deutsez arerijuak azalezko palaguak, aragi-jaren atsegiñak burura ekarrijaz; euren pekatuetan lotu, ta geruago auferago eruateko. Espiritu onak bañiz mindu ta kezkatu egiten ditu onakuak kontzi-entzijaren bidez.

2.^a Pekatuetatik garbituagaz, eta Jaungoikua-ren bidian onetik-obera sendaro duazanetan, bestera egiten dabe espiritu bitzuok; bada espiritu txarrik orduan egiten dabena da ainka, sotildu edo tristetu, (2) ta eragozpenak ipiñi, guzuzeko eritxiz artegatu ta estututen dabezala. (3) Eta espiritu onak, emon

(1) Loyola'ko etxian gaixo eguala, asi zan San Inazio gora-bera onek susmau, ta arau onek ipinten: ezin naikua dan beste adierazo lei, zein andija dan euren biar izana. On-bidian benetan sartzen dirianak, ereka auxe, goixago edo beranduago igaro biar dabe. Baña ja! batzuetan nekiaren bilduz, eta asko be geyagotan ez-jakiñez, santutasun andi batera eldu biar leukienetatik geyenak, bertan itota geratzen dira.

(2) Bere burua urkatu-biarian egon zan San Inazio bera onako sotiltasun edo tristezaz. Baita berak Alkala'n Ejertzijuak emon eutsezan andra batzuk be.

(3) Alantxe ipinten eutsan San Inazio'ri diabruak Jaungoikuagana biurtu-barijan. ¿Zelan iraun ziñei bixitza oretan, bixi biar zarien irurogetamar urtian? Baita saritan ipiñi oi deutsez onakuai arerijuak ondo egiñiko konfesiñuaren kezkek, gauza onik egin barik, ondo ala txarto dagozan pentsetan, denporia galtzeko. Egin konfesiariaren esana, ita aufera! arerijuagaz ezta-baidan ibili barik, guk baño geyago daki-ta.

asartasun edo animua, indaŕa, atsegiña, negar-mal-kuak, gogapen edo pentsamentu onak, eta bakia, eŕeztuaz eta eragozpen gustijak kenduaz, ondo-egit-ñian auŕera juateko.

3.^a *Arimako atsegin-aldija*: Arimako atsegin-aldijaren ixenaz aituten dot: a) Ariman egiten dan igigune edo mobimentu bat, Jaungoikuaren maite-tasunian gartuta isten dabena, munduko gauzarik maitetu ezin dabela, Jaungoiko guztijen Egiliagan izan ezik. b) Negar-arpuluak *jaurtiten* dabezanian bere Jaungoikuaren maitetasunez, nai bere pekatuen damuz, zein Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldijak, edo Jaungoikuagana zuzen duan beste edozein gau-zagaitik. c) Arimako atsegin-aldija diñot askenez dala zinismen, itxaropen eta maitetasunaren geitute guztija, ta edozein baruko poz, arimiari deitu, ta zeruko gauzetara ta bere osasunera ekarten dabena, itxirik geldi ta baketuta bere Egile ta Jaungoikuagan.

4.^a *Arimako atsekabe-aldija*: Arimako atse-kabe-aldija irugaŕen arauan esan dogun guztijaren besterakua da; berbarako, arimako ilun-aldija, (1) geldi egon-eziña, munduko gauzetaroko makurta-

(1) Ilun-aldija dator Jaungoikuak eztabelako emoten orduan argirik Erlijioñoko siñiskai eta beste egijak ikusteko. Ezin deuten lez orduan arimiak oratu onako egijai, ezin da egon geldi; eztauko Jaungoikuaren gauzetan atsegiñik; eta atsegin barik ezin bixi izanik. makurtuten da munduko palaguetara. Arerijuak bariz ikusten dabengan arimia onako estutasunetan, laster dator bere zirikaldi edo tentazinuaz; eta zinismena onegaz geyago ilundurik geratuten da arimia San Inasio'k diñuan lez, alper, epel ta min-duta.

suna, zirikalদি edo tentaziñuak, ziñistasun, itxarotasun ez maitetasun barik; dana alper, epel, mindu, ta bere Egile ta Jaungoikuagandik aldenduta lez.

5.^a Atsekabe-aldijan ez iñoiz aldakuntzarik egin; eta bai egon sendo, atsekabe-aldi ori baño len eukazan asmo ta erabagi onai gogor eutsita. Bada atsegin-aldijan espiritu onak geyago zuzentzen bagaitu, atsekabe - aldijan geyago garabiltz espiritu txarāk, eta onen itun edo kontsejuaz ezin bide zuzenik artu giñei.

6.^a Atsekabe-aldijan aldakuntzarik, esan dogun- ez, egin biar ezpada bere; atsekabe-aldijaren kontra indañez aldatziak on asko ekarten dau; berbarako, eskari ta gogartiai geyago ekinda, kontzientzija asko aztertuta, ta nekaldija egiteko eraren baten luzatuta.

7.^a Atsekabe-aldijan dagonak gogoratu deyala, Jaungoikuak, zirikatutiafen, itxi dabela bere almen edo potentzijetan, arerijuaren ezetsi ta zirikalদি guztijai eutsi deyon; eta ori Jaungoikuaren laguntasunaz, egin lei. Laguntasun au, bafiz, beti dauko beragan, aginduak gordetako bestian; argi ikusi ez afen, Jaungoikuak arimako berotasuna kendu deutsalako.

8.^a Atsekabe-aldijan dagona, sayatu dedila arerijuaren estutasunai iraupen edo pazientzjaz gogor eutsiten. Eta gogora ekaři deyala, seigafen arauan esan dirianak gordeten baditu, laster poz-aldija etofiko jakala.

9.^a Iru gauzagaitik batezbere eukiten doguz

atsekabe-aldijak. *Lenengo*, epelak, alpeñak eta itxi-
jak garielako arimako geure ekitaldi edo ejertzijue-
tan; eta alan geure eruz aldenduten jaku arimako
gozatasuna. *Bigarren*, ikusi daigun zenbaterakuak
garian eta zenbat luzatzen garian Jaungoikuaren
otseintza edo serbizijuan ainbeste pozkari ta lagun-
tasun andi barik. *Irugarren*: barutik eta egikunez
ezagutu daigun, eztagola gugan gozatasun ez mai-
tetasun andi, ez negar-malko, ez beste arimako poz-
kafirik eukitia; dana dala baño Jaungoikuaren emo-
kai ta laguntasuna; ta inoren etxian abijarik ipiñi
eztaigun, afokeriz poztuten gariala, gozatasun eta
arimako pozkarijak geure buruari, norberenak balira
lez, ezarita.

10.^a Atsegin-aldijan dagonak, gogoratu deyala
zelan egongo dan ufengo etofiko dan atsekabe-aldi-
jan, eta artu ordurako indafak.

11.^a Atsegin-aldijan dagona, apaldu ta beeratu
dedila, gogora ekariaz zein gitxitako dan atsekabe-
aldijan, Jaungoikuaren laguntasun eta pozkari barik.

12.^a Arerijuak emakumiarena egiten dau, go-
goñian makal, eta makalian gogor. Ba gixonen bate-
gaz efijetan dabilen emakumiak, iges egiten daben
lez, gixonak betondo aztuna ipinten badeutso; ta,
bestera, gixonezkua makaldu ta igesari emoten deu-
tsanian, emakumiaren asafe, txarto-gura ta abere-
kerija izan oi dan lez ain aindi ta neuñi guztijen ga-
netikoa: baita arerijua be, arimako ekitaldijetan dabi-
lenak, betondo aztuna ipinten deutsanian, zirikaldi-

jai gogor eginda; makaldu ta indarkatuten da, itxirik bere esetsijak. Bestera, bañiz, bildurtu ta olotuten bada gogozko-egitaldijetan dabilena, zirikaldirai arpegi emotorduan: eztago luñaren ganian gure gixatasunaren arerijua baixen abere amuñaturik, ain gogo gaizto ta zitalagaz bere asmo deungak auñera eruateko.

13.^a Baita maitetasun gaiztoren bategaz zoraturik dagon gixon batena bere egiten dau arerijuak, ixilian eta ez agirijan ibili gurarik. Ba aita on baten alabia nai senar on baten emaztia bilatzen daben gixon zoruak (txarto-esana parkatu), gura izaten daben lez bere berba ta laban-añijak ixilik gordetia; eta bestera, atsekabetuten dan lez asko, alabiak aitari nai senañari emaztiak agertuten badeutsaz bere berba zoro ta gurari galduak, ezez ataraten dabelako eztabela beriagaz urtengo: baita geure gixatasunaren arerijuak bere arima zuzenai bere okeñeri ta labanañijak ekarten deutsezenian, ixilian artzia gura izaten dau; bañiz agertzen badeutsaz bere konfessore edo beste gixon aitu bati, asko minduten da, susmaten dabelako, bere guzuñak agertuak izan ezkerro, ezin bere asmo deungiagaz urten izango dala.

14.^a Ikusi Banako-aztermenian 117 ofialdian.

**Geure arerijuaren kezka ta zirikadak ezagutu
ta ulertu edo entenditzeko, laguntzen
dabe urango oarketak**

1.^a Keska edo eskrupulua deitzen deutse askok geure buruz eta gura dogula datoñen gogapen edo

pentsamentuari; barbarako pekatu eztana, pekatu dala egiten dot neure guraz. Alan lastozko kurutze bat ostikopetu ta gero, egiten dau batek pekatu egin dabela: guzuzeko eritxija da au, ta ez benetako kezka edo eskrupulua.

2.^a Lastozko kurutzea ostikopetu, nai beste gauza bat gogoratu, esan edo eginda, pekatu egin dotalako gogapen bat jatort; baña beste aldetik uste dot eztodala pekaturik egin; eta eztabaida onek artegatu ta bakia kentzen deust: auxe da benetako kezka ta arerijuak dakañen zirikaldira.

3.^a Lenengoz esan dogun keskia, guztiz da gofotogafija, guzur utsa baño ezta-ta. Baña bigañen oarketakuak, aldi apur batekua baño eztanian, ezteutso on gitxi ekarten Jaungoiko-zaliari; asko garbitzen dabelako arimia, aldendurik pekatu-antza baño eztauken gauzetatik be.

4.^a Nasaya ala estua dan arimia asko begiratzen dau arerijuak; eta estua bada, estuago biurtzera egiten dau, geyago nastateko. Barbarako, ikusten badau, arima batek eztabela, jakiñen-ganera, pekatu ariñik, ez pekatu antzeko gauzarik bere egiten; sayatzen da begitandu eragiteko pekatu egin dabela, pekaturik eztagon gauzan, esaterako, uskerizko berba nai gogapen baten. Nasaya bada, bañiz, arimia, nasayago egiten dau arerijuak; barbarako, pekatu ariñai len jaramoten ezpaeutsan, ezta iltzaliari bere eztauyela jaramon; eta len aintzat artzen baebazan, oiñ ezereztzat euki dayazala.

5.^a Ontasunian auferatu gura dabena, arerijuaz bestera ibili biar da: au da, arerijuak nasaitu gura badau, erdijan gogortu, oso baketuteko.

6.^a Jaungoikuaren gorapenerako gauza on bat egin edo esan-gurarik ibilita, bayatorko onako arima zuzen bati gogapen edo zirikaldira, olakorik ez tayala egin edo esan, arotu ezteitian, edo beste onen antzeko zer baitgaitik; egin biar dabena da, jaso Jaungoikuaganantz bere adimena; ta ikusten badau Jaungoikuaren gogokua dala, edo, beintzat, ez bere kaltezkua, zirikaldiraz-bestera egin. (1)

Eleixa-Amaren egizko eritxijaz norberena bat egiteko, gorde urango arauak

1.^a Gertu egon biar gara, bakotxak bere eritxija alde batera itxita, Jesu-Kristoren emazte, geure Eleixa-Amarena, norberentzat artzeko.

2.^a Goretsi edo alabau urtian-bein Jaunartzia, geyago ilian-bein, eta ondio geyago zortzirik-zortzira, biar dirian gertuerakin. (2)

3.^a Goretsi saritan Meza-entzutia; baita eresi edo kantu, salmo ta eskari luziak Eleixan eta os-

(1) Konfesiñuen ganian eukiten dabez kezkatijak estutasunik andiyenak. Konfesiño Jeneralian azaldu dogu zer egin biar dabena: konfesoriararen esana itsuan jaraitu.

(2) Asarkizun andija zan au San Inazio'ren aldirako, gitxi zirialako urtian bein baño sarriyagotan Jaunartzen ebenak.

tian. Onezaz ganera Eleiz-gixonen ordu ixentauetako aŕen edo eŕezuak.

4.^a Goretsi Erlejiño ta Garbitasuneko bixibidia, ta ez, onek aña, eskontzakua.

5.^a Goretsi Santuen gorpuzki edo erlikijak *gurtu*, ta arei eŕegututia. Baita bidaldi edo peregrinaziño, parkamen, bulda, ta Eleixetan kandelak ixiotutia.

6.^a. Goretsi baru ta baru-zaru edo okelarik ez jatekuak, barbarako, garixuma, urteko lau baru-aldi, aŕegun edo bijilija, ta bariku-sapatuetakuak. Ganera (goretsi) nekaldi edo penitentzija agirikuak, ez bakarik barukuak.

7.^a Goretsi Eleiz-jantzi ta Eleixak. Baita Santuen irudijak bere; ta gurtu, iruditzen dabenagaitik.

8.^a Goretsi, azkenez, Eleixiaren agindu guztijak, bilaturik gogo beroz zergati edo eŕazoiak euren alde, eta ez, ezetara bere, euren kaltez.

9.^a Eŕezaguak izan biar gara geure nagosijen agindu ta gurarijak, zein oiturak, goretsi ta ontzat emoteko. Ba naita onak izan ez batzuetan, euren kontra jardutiak bai sermotan, bai autuan, mesedea baño obeto ekarten dau murmuriya ta nagosijentzako asaŕia. Oba da, on egiteko, zuzendu leikezan bati esan.

10. Bide zuzenetik beti jua gaitezana, gertu egon biar gara, ikusten dogun gauza zurija, baltza dala ziñistzeko, Eleiz-Amak alan erabagiten badau; ziur eukiten dogula Jesu-Kristo gure Jaunaren eta

bere Emazte Eleixiaren Espiritu edo bañu-zuzentza-
lia bat dala, geure arimak salbaziñora zuzentzen
dauzana.

LOIKERIJA

Izan zaiteze garbijak, bestela zorigaistokuak
izango zarie.

Griña asko dagoz: loikerija da guztijetik txaf-
ena.

Pekatu guztijak dira zikiñak: loikerija zikinkerija
berbera da.

Pekatu guztijak ustelduten dabe gorputzaren edo
arimiaren alderen bat: loikerijak gizon guztija almen
eta sentzumen guztijakaz.

Pekatu guztijak daruez arimak inpernura, loike-
ja da arimarik geyen daruazana. Inpernuan dagozan
arimetatik, milatik bat ezta egongo garbi izan danik.

Pekatu guztijak ekarten dituez zoritxañak; loike-
rijak ekarten ditu beste guztijak baño geyago, ta
beragaitik da au sañi-askotan beste pekatu guztijen
zigoña.

Al izatera, bere izenik be ez jakitia gura eukian
San Paulo'k. Oñegaitik, ain kontu andijagaz onetan
berba egiten da kristiñau artian.

Loikerijak *daukazan ixenak, izan al daiteke-
zanik goñotogarijenak dira*. Bera adierazoten da-
ben ixenak, eta beragan daukazan beste griñak, zer-

baitekoren aufian esan bere ezin leikez. Berbeta orri dongak, okefak, lotsagaldukuak eta zantafak bakafik dakije.

Griña onek *aldi guztijetan pekatu eragiten dau*. Onen menpian daguana, pekatu egiten dago era guztijetan. Irakufi, ikusi ta entzuten daben guztija, bere atsegiñetara zuzenduten dau. Ikasten daguanian, jokuan, ibilten, jolasian, mayan, gabian itzarik daguan aldijetan, egunezko zeregiñetan, bakartadian, lagun-artian eta Eleixan bertan, altaren onian bere, loikeritsua, onik-onenian bere pekatua goguan dabela dago. ¡Gauza bildurgafija!

Griña onek *okeferi guztijetara eruaten dau*. Diru asko biar daben legez, eruaten dau mafokerijara (tranpara), ostutera, lapufetara ta bidebagekerira. Azartasuna ta afokerija dira loikerijaren seme bidezkuak: mutilak galduten dau bere lautasuna, ta neskatiliak isten dau bere edertasun eta moduzkotasuna: lotsabagakerija, zantarkerija ta labankeri edo likiskerija dira loikerijaren izen bardiñak. Jaungoikorik ezta la diñoen ofen artetik, bat ezta ezez izango loikerija bakorik. Dongaro egiten diran konpesiño ta komuniñorik geyenak loikerijatik datoz.

Loikerijak mundu guztijarentzako *egiten dau gizona donga*. Loikerijak salduten dau adiskidia, senafa, emaztia, aita, bizitza guztiko gordetzalia... Adiskidetasuna, entzute ona, zin edo juramentua, erlejiñua, sendi edo pamelija... guztija ufatuten dau, dana ostikopetuten dau loikerijak. Otsokerija, saldu-

kerija, gatz-bide ta lotsaririk geyenak loikerijatik datoz. Odolezko eretakak, basazko ibayakin nastaurik, daruaz bere ondoren loikerijak.

Gauza guztijak dongaro darabiltz loi edo zantarak, bere griña zital guztijak aseteko. ¡Zelako berba-estari ta zear-esanak, pirtadak, bafe-geyak, nastaketak eta nabarmenkeriyak! ¡Zelako kanta ta soñuak! ¡Zelako dantza ta ibilerak! ¡Zelako berba-neurtu ta ipoiñak! ¡Zelako lauko (kuadro) ta antzez-kijak! ¡Zelako jantzijak eta kiñuak! ¡Zelako batzar eta jolasak! ¡Zelako biltoki ta ikusgarrijak! ¡Zelako asmuak ixil-mandatu gofotogarrijak! ¡Zelako egunak eta gabak! ¡O griña itxusi, aitatu bere ezin leitekiana!

Eta ijakiña da! guztija desegiten dau, dana itxurgatuten dau, guztija iruntsiten dau, guztijari barua jaten deutsa, guztija ustelduten dau...

Loikerijak galduten deutsa bere buruaren duintasuna, pekatuaganako gofotua, ta guztijez ganetik, Jaungoikua ezaututia. Loikeritsuak, lotsa barik, destaña egiten deutse gauzarik itzalgarijenai, ondriari, zuzentasunari, erlejiñoari, legiari, aginpidiari, adiskidetasunari, garbitasunari, onbide edo birtutei, santuei, Jaungoikuari... Loikeritsua da izan al daitekian gizonik beragokuena ta lotsarik gitxien daukana, gauza guztijak ostikopetuteko duin dana. Galerazoten dau *baruko bakia*, eztagualako obenik ez pekaturik, loikerija baño baruko ar mingarrijagorik eta bizitza guztiko okada iguintsuago ta lotsagarrijagorik emoten dabenik. Galdu eragiten dau

aukeria, bere atsegiñaren menpian dagualako, eta au zelan goitu eztakijalako. Safi - askotan loturik gauzarik beratu, iguingaři ta malepetuenei, katiatuten da mila sare bildurgaři ta zatarkeri ziñistu bere ezin leitekezanetan. Galerazoten dau *ziñistia*, ilunduten dabelako loyaren arimia, ta erlejiñoko egijai sartzen isten ezteutsalako. Galerazoten dau *itxaropena*, oben eragin eta beragaz eruaten dabelako, loyari isten eztautsalako beragandik alde egiten, eta egunero atsegiñen egařiija geituaz juakolako. Loirik geyenak bapere eztitu poztuten zeruak. Galerazoten dau batez-bere *ongura edo karidadia*, au da Jaungoikuaganako ta lagun urkua-ganako maitetasuna. Eztago iñor loya baño taketago ta berekořagorik. Galduten dau ixen on, *kreitua*, alde batetik edo bestetik geyenian agertu oi dan oben edo pekatua dalako, ta daukana deskreitetan dabelako. Galduten ditu *ondasunak*, atsegin au oñian eukitia gatxa dalako, ta loikerijaren ondoren, geyenian, ondamendija ta ezer-eztauna datozalako. Galduten dau *osasuna*, griña onek gorputza indarbagetu, makaldu, ta gatx iguingaři ta osatu-ezindakuak ekarten ditualako. Loikerijak il dituan gorputzez, ilargirañoko pilo bat egin leike.

Loikerija da inpernurako biderik zuzenena; griñařik iraskořena ta isten gatxena dalako. Loyak euren buruak askotan ilten ditue.

¡O gazte, loikerijaren atsegiñetan eřez sartuten zariana! ¡ziñistuidazu! ¡ziñistuidazu! Bide ořetatik

sartuten bazara, negar asko egin, eta mingatx ikar-agafijak igaro biarko dituzu. Etzaitez sartu. Atzeratu zaitez. Izan zaitez garbija, garbija izan zaitez. Eta ez esan, ezin dozula. *Erározto garbi gorde zeintekez.* Oñetarako neuk erakutsiko deutzudaz lau bide ziuñak, iraupenez jafaituten badeutsezu.

Lenengo bidia: Konpesore on bat eukitia, ta beragaz safitan konpesetia, osalari ta aitari legez zeure argaltasun guztijak agertuaz. *Bigarren bidia:* Safi-safi gure Jauna artutia, gitxijenez astian-bein, eta biar bada safijago, ta, baldin al badozu, egunero, konpesoriak isten badeutzu. *Irugarren bidia:* Garbitasunaren zaintzaila Marija'ri zaletasun edo deboziñoie andi bat eukitia. *Laugarren bidia:* Eregutu ta eskatu beti garbitasuna Jaungoikuari ta Marija Donzeiliari. Inor bere ezin leiteke grazija barik inoiz garbi bizi: baiña grazija ereguaz jaristen da.

Gauza premiñazkua, berau barik alpefekuak izango dira ganerako guztijak; eta da, pekatuko bide ba ikusgafi afiskuetatik aldendurik bizi izatia. Jolasak, biltokijak, paperak, antzezkiak, ipuñak, berbakuntzak, dantzak, adiskidetasunak; berba baten, gure gozamenaren egañija bizkortuteko mundua-betian dagozan gauza guztijak, dira legen-afaren azi atsitua ta loikerijaren min-bizija alde guztijetan ereiten dabenak...

Ondo merezi dau garbitasunaren edertasunak beragaitik jolas edo ibilte batzuk istia.

ABESTIJAK

CHRISTUS VINCIT

Christus vincit, Christus regnat, Christus
Christus imperat.

Adoramus te Christe, et benedicimus tibi,
quia per sanctam Crucem tuam redemisti mun-
dum.

Christus vincit...

Tempora bona veniant, pax Christi veniat,
regnum Christi veniat.

Christus vincit...

Pio undecimo summo Pontifici, et univer-
sali Papæ, vita et salus perpetua.

Christus vincit...

JESUS'EN BIOTZA

Jesus'en Biotza
Maitari gozoa,
Zorion osoa
Zurekin daukat.
Zu zara poza ta
Zu neure atsegiña,
O Jesus biguna,
Ni naz zuretzat.
O Jesus biguna,
Ni naz zuretzat.

1

Jesus'en Biotza
Dago suturik,
Maitasuna agertzen
Alde guztitik.
Nork izan leike
Biotz gogoñik
Biotz onen suan
Urtuko ez danik?

2

O Jesus, esaten
Deutzugu pozez
Zureak garala
Biotz-biotzez.
Oyu egin daigun
Danok abotsez;
¡Bizi beti Jesus
Gure Erege!

AGUR IZAR EDER


1. Agur izar eder argiz jantzia
Agur gure zerurako bidea
Agur, Ama, zeruko atea.

2. Zu zara Jesus'en Ama maitea
Zu zara guretzat Ama laztana:
¡Jesus'en Ama, gure Ama!

3. Jakiñik zarala erukitsua,
Zuregana nator naigabetua:
Eruki zaitez nitzaz, Ama.

4. Zure mendean nai neuke nik bizi,
Zure besoetan nai neuke nik ii,
Zugandik ez dot nai alde egin.

5. Izate guztia eskeintzen deutzut.
Zure biotzean gorde nagizu:
Amatxo, bedeinkatu naizu.



ARKIBIDIA

Iñaki deunaren gogo iñarkunak.....	5
Autorkuntza	8
Esaminia edo azterpena.....	16
Damua	23
Erabagija.....	31
Autorpena edo Konfesiñua.....	42
Zelan autortu biar dau.....	53
Autorkuntzako lotsiatzaz.....	55
Konfesiño Jenerala edo Guztijena.....	64
Satisfaziñua edo Kitugarija	73
Esamiñia edo azterpena egiteko itaunak.....	87
Jaunatzea.. ..	106
Eguneroko Guzti azterpena.....	115
Banako-azterpena.....	117
Bixibide edo Estadua.....	120
Erlijiñoako Bixibidia.....	124
Alda-ezindako Bixibidia Obetuteko arauak.....	129
Nekaldi edo Penitenzija.....	131
Jan-edanian Neurija Gordeteko	133
Espiritu On eta txarñak ariman ipinten dabezan gora-berak zelanbait asmau edo sentidu ta eza- gutzeko arauak	135
Arerijuaren kezka ta zirikadak ezagutzeko arauak.	139
Elexa-Amaren eretxiaz norberena ba-egiteko.....	141
Loikerija	143
Abestijak	148



Gom' - E-NS-11-26

est 31

9002

23

23

